


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ZUZENBIDE
FAKULTATEA
FACULTAD
DE DERECHO

GRADU AMAIERAKO LANA
KRIMINOLOGIAKO GRADUA

**Terrorismoko biktimen dolua gainditzeko
ekimenak: S(u/a)minetik Bakera esperientzia**

2019-2020 ikasturtea

EGILEA: Nerea Ereña Ogiza

ZUZENDARIA: Jokin Alberdi Bidaguren

AURKIBIDEA

1.	Kontzeptu teorikoak eta lotura lanarekin	6
1.1.	Sarrera: Gaiaren garrantzia	6
1.2.	Biktimen Trauma eta doluen definizioa eta kategorizazioa (estres posttraumatikoa).....	6
	Hasierako erreakzioak	7
	Bigarren mailako erreakzioak.....	9
	Estres post-traumatikoa	11
	Dolua	12
	Doluaren ikuspegi psikosozial eta antropologikoa.....	13
	Trauma edo dolu bat gainditzea	16
1.3.	Biktimen Trauma eta doluari lotutako kontuan izan behar diren beste kontzeptu batzuk:.....	17
	Terrorismoa-Estatuko terrorismoa.....	17
	Biktimen biktimizazioaren kausa eta ondorioak	21
	Biktimizazioa.....	24
	Memoria – Justizia – Justizia Leheneratzailea	25
2.	Terrorismoko biktimak Espainia eta Ipar Irlandan.....	29
2.1.	Biktimen aukeraketaren dinamika.....	29
2.1.1.	ETA eta IRAREN estrategiak	29
2.2.	Erreparazio politikak.....	30
2.3.	Konparaketa	33
3.	Euskal esperientziak	35
3.1.	Euskal gatazkaren testuingurua.....	35
	Memoria eta biktimak frankismoan: ETAREN sorrera	35
	ETAko terrorismoa: Zergatik sortu zen.....	36
3.2.	Eusko Jaurlaritzako bakerako-plana	38
	Plan honen interpretazio esparrua	38
	Planaren ondorioak.....	40
3.3.	Biktimei zuzendutako programak	42
	Batera konpromezua.....	42

Adi-adian Hezkuntza Modulua.....	45
Gertu Programa	47
Eraikiz Programa	50
Gogora Institutua	51
4. S(u/a)minetik Bakera.....	54
4.1. Ekimenaren deskripzioa	54
4.2. Elkarriketak	54
IÑAKI PEÑA: SU/AMINETIK BAKERA EKIMENAREN BULTZATZAILEA	55
OLATZ ETXABE: ESTATUAREN ALDETIK ETORRITAKO INDARKERIA	
JASAN DUEN BIKTIMA	63
SANDRA CARRASCO: ETAREN INDARKERIA JASAN DUEN BIKTIMA...	69
5. Ondorioak	78
6. Bibliografia.....	80

LABURPENA

Ikerketa honekin terrorismo biktimen dolua eta trauma aztertu, bigarren mailako biktimizazioa minimizatu eta ongizatea hobetzen dituzten programa eta teknikak aztertu nahi dira ETA eta Estatuko terrorismoaren biktimen kasuak aztertzearen bidez. Programa ezberdinen gainbegirada egin, eta S(u/a)minetik bakera esperientzia ikus-entzunezko/artistikoaren ikasketak mahai-gaineratu nahi dira.

Horretarako, lehenengo atalean, azterketa teoriko bat egingo da biktimen trauma eta doluen definizioa eta kategorizazioaren inguruan, ondoren, gai honetan kontuan izan beharreko kontzeptuak azalduko dira, hala nola; terrorismoa eta Estatuko terrorismoa, biktimen biktimizazioaren kausa eta ondorioak, biktimizazioa, eta memoria, justizia eta justizia leheneratzailea.

Jarraian Espainia eta Ipar Irlandaren arteko konparaketa egingo da biktimen egoeraren ikuspuntutik.

Ondoren, euskal gatazkaren testuingurua azalduko da eta Eusko Jaurlaritzak biktimen alde egindako programa eta ekimen ezberdinak aztertuko dira: Batera Konpromezua, Gertu eta Eraikiz programa. Baita beste elkarte eta erakundeek memoria eta biktimei laguntzeko programa eta jarduera batzuk identifikatzen ere saiaturiko da lan hau.

Azken zatian, S(u/a)minetik Bakera esperientzia sistematizatuko da, eta doluaren kudeaketa kolektiboaren alderdi positiboak eta horiek Euskal Herriko bizikidetzak eta bakea eraikitzeko dituzten ondorio erreparatzaileei balioa emango zaie. Esperientzia horren inguruan ahalik eta gehien sakontzeko hiru elkarrizketa egingo dira: Iñaki Peña ikus-entzunezkoaren egilea, Olatz Etxabe Estatuko terrorismoaren biktima, eta Sandra Carrasco ETAREN biktima.

AURREKARIAK ETA GAIAREN JUSTIFIKAZIOA

Terrorismoko gaiak, eta konkretuki terrorismoko biktimak eta hauek daramaten bizitza estiloa gertakari traumatiko hori bizi ondoren, tabu bat izaten da kasu gehienetan.

Gizartean ez da horri buruz hitz egiten. Delitugilean zentratzen da arreta guztia; zein den, nongoa den, zein ideologia jarraitzen duen, etab. Honek guztiak, non kokatzen du biktima? Itzalean. Ez zaio entzuten. Hain gogorra egin da bizipena, Estatuak ez dakiela

nola “konpondu” edo erreparatu gertatutakoa, eta lagundu beharrean, beste aldera begiratzen du. Zorionez, azken urteetan egoerak hobera egin du.

Gradua hasi nuen unetik nolabaiteko arreta berezia ematen zidaten terrorismoko gaiek, eta graduan aurrera joan ahala, jakin-min hori handiagoa egin da. Horrez gain, gai gehienetan biktimarekin empatia sentitzeko erraztasuna ere izan dut. Hori dela eta, gai hau benetan interesgarria da niretzat.

Kriminologiaren ikuspuntutik dinamika hau oso interesgarria da. Biktima ez du gertaera traumatikoak bakarrik bilakatzen, gizarteak asko egiten du horrek horrela jarrai dezan. Gizartean bestelako hezkuntza bat egongo balitz, erakusten duena nola jokatu benetan egoera latzak bizi dituzten pertsonekin, errealitatea ezberdina izango litzateke. Beraz, kriminologiaren bitartez hau aztertzeaz gain, beharrezkoa da politiketan kriminologoen esku-hartzea.

HELBURUAK ETA HIPOTESIAK

Ikerketa proiektu honekin helburuetako bat biktimen egunerokotasuna ezagutu eta ekimenean eragina gertutik ulertzea da. Biktima izatean nola sentitzen den pertsona bere buruarekin, ingurukoekin, harremanek izandako aldaketak, jasotako babesak, etab. Obra eszenikoari dagokionez, beraien helburua lortzeko erabilgarriak diren teknikak ezagutzea. Trauma eta dolua arintzeko edo hobetzeko balio duten ala ez, dolua egiteko prozesuan zerrek balio duen eta zerrek ez, erreparatuak sentitzen diren ala ez, justizia egin dela sentiaraztera laguntzen duten ala ez.

S(u/a)minetik Bakera ikus-entzunezkoaren inguruko hipotesiak:

- Gainontzeko herritarrok uste dugun baino askoz ere lagungarriagoa da
- Biktimak babesturik sentitzen dira
- Beraien bizipenak inguru lasai eta atsegin batean kontatzean pisua kentzen dute gainera

METODOLOGIA

Gaiaren inguruan irakurlea kokatzeko marko teoriko bat landu da, baliagarria alde enpirikoa hobeto ulertzeko.

Egindako hipotesiak baieztatzeko hiru elkarrizketa egin dira: ekimenaren zuzendariari, Iñaki Peña; eta beraien esperientzia kontatzera ausartu diren terrorismoko bi biktimei; Estatuko terrorismoaren biktimari, Olatz Etxabe, eta ETAre biktimari, Sandra Carrasco.

Covid-19 birusaren egoera dela eta, liburutegiak itxita egon dira eta marko teorikoa osatzeko Google Akademikoa erabili da. Elkarrizketak egiterako orduan, ezinezkoa izan da aurrez-aurre burutzea, beraz, telefonoz egin dira.

METODOLOGIA LAN-PLANA

Bibliografia Google Akademikoaren bitartez lortu eta osatu ondoren, elkarrizketatu bakoitzarentzat egokitutako galdera-sorta antolatu da. Iñaki Peña, Olatz Etxabe eta Sandra Carrascori telefonoz elkarrizketa egin ondoren, beraien erantzunak hasieran bildutako informazio teorikoarekin lotu dira. Azkenik, elkarrizketen bidez lortutako informazioarekin ondorioak atera dira.

1. Kontzeptu teorikoak eta lotura lanarekin

1.1.Sarrera: Gaiaren garrantzia

Delitu bat gertatzen denean, normalean arreta gehiena delitugilean zentratzen da eta biktima alde batera uzten da, ez zaio garrantziarik ematen. Terrorismoko biktimekin berdina gertatzen da, eta biktima babesgabetasun egoeran sentitzen du bere burua. Egoera horrek hainbat ondorio eragiten ditu pertsona konkretuan eta bere ingurukoetan.

Tamalez, terrorismoko gaiak, eta konkretuki terrorismoko biktimak eta hauek daramaten bizitza estiloa gertakari traumatiko hori bizi ondoren, tabu bat da. Ez da horri buruz hitz egiten, eta horrek ez-jakintasuna dakar.

Ez bada gertatutakoari buruz hitz egiten eta biktimari ez bazaio entzuten, zaila izango da hasierako ongizatera itzultzea. Biktimek onarpena, memoria eta justizia nahi izaten dute. Helburu horretara iristeko gertaera traumatikoa bizi izan duten pertsonak babestu behar dira eta jakinarazi behar zaie ongizaterako ibilbidea ez dutela bakarrik egingo. Jakintza ezberdinetako profesionalen laguntza jasotzeaz gain, gertakari antzekoa bizi izan duten beste pertsona batzuekin elkartzeko aukera izango dute, hala nola, dolua gaintzeko programak. Horietan, delitu antzerakoa jasa duten pertsonak bilduko dira, gertatutakoari buruz hitz egiteko, eta helburua da ikustea nahiz eta indarkeria hori talde ezberdinetatik heldu, beraien egoera biktima moduan antzerakoa dela. Prozesu honekin elkar-puntu batera iristea lortuko dute, elkar ulertu eta elkarrenganako enpatia handituko da.

Kriminologia diziplinarteko zientzia den heinean, gai asko barnebiltzen ditu; delitutik hasita, delitugile, biktima eta horren inguruan garatzen joaten den gizartera. Hori dela eta, interesgarria eta garrantzitsua da fenomeno hau ikuspuntu honetatik lantzea.

1.2. Biktimen Trauma eta doluen definizioa eta kategorizazioa (estres postraumatikoa)

Trauma gertaera arriskutsu eta bapatekoa da; ondorioz, pertsona baliabide psikologiko, fisiko eta ekonomikorik gabe geratzen da. Gaboriten arabera (2006), orokorrean traumek hurrengo ezaugarriak izaten dituzte: intentsitate handikoak izaten dira, ezustekoak, ezohikoak, eta denboraren arabera luzeak edo betirako izan daitezke.

Gertaera baten ondoren, pertsonak bi modutara jokatu dezakete, (kontrako eta ezberdina). Batzuek nahastuta erreakzionatzen dute, ez dute ulertzen gertatzen ari dena, eta shock egoera altu horretan orientazioa, denbora eta norberare identitatearen zentzua galtzen dute. Shock egoera honek traumatizan ohikoak diren zenbait urritasun kognitibo azaldu ditzake. Urritasun kognitibo horien artean ohikotasunez gertaera traumatikoaren alderdi garrantzitsuak gogoratzeko zailtasuna aurkituko da. Batzuetan, egoera amnesiko horrek hainbat urte iraun ditzake. Seguruena da pertsonak ez daudela oroitzapen horiek erreprimitzen, baizik eta informazioa ez dela ondo kodifikatu eta gorde memorian.

Horrelako gertakarietan erreakzionatzeko bigarren modua herstura sentimendu altuarekin da. Herstura hau baliagarria izan daiteke pertsonak beraien indar fisikotik haratago jarduteko eta era horretan bizirauteko. Hala ere, pertsonen energia eman diezaieke erreskate lanak egiteko, albo batera utziz beraien osotasun fisikorako arrisku garrantzitsuak. Baina, era berean, herstura honek ezinezko egiten die pertsonen bere inguru fisiko eta sozialean aspektu garrantzitsuak identifikatzea, baliagarriak izan daitezkeenak arazoaren aurrean hobe bizirauteko.

Hasierako erreakzioak

Gertaera traumatiko baten ondoren erantzun psikologikoak trauma berriro bizitzea eta saihestea edo ekiditea dira. Bi erantzun arrunt horiekin batera hurrengoak ere azaldu daitezke (Gaborit, 2006): trauma errepikatzeari beldurra, lotsa babesgabetasunagatik, hutsune handiko sentimenduak, traumaren kausa edo sortzaileenganako haserre edo amorrua, lotsa bizitzen diren bulkada erasokorregatik eta ikaragarritzko tristura jasandako galerengatik. Hala ere, pertsona guztiek ez dituzte sintoma berdinak esperimentatzen eta ezberdintasun nabariak daude sintoma horien adierazpenean. Ez da arraroa sintoma batzuk ez agertzea, beste jarrera batzuetan ezkutaturik egon baitaitezke (adibidez, alkoholaren abusua). Alabaina, nabarmendu beharrekoa da, bizirik dirauen kopuru handi batek ez duela inolako sintomatologiarik izaten.

Asko izaten dira gertakari traumatikoaren berbizipena erakusten dutenak. Funtsean pentsamendu intrusiboak izaten dira nabarmentzen direnak, hau da, gogamena ustekabean hartzen duten ideia iraunkorrak, eta horiekiko ez dago inolako kontrolik, antsietate sentimenduak, aktibazio sensoriala gertakari traumatikoa gogoratzearekin, eta gehiegizko zaintza. Era berean, ez da arraroa berbizipen horrek arazoak sortzea loaren

ziklo eta edukian. Amets gaiztoak arrisku gaietarako buruzkoak izan daitezke, edo sinpleki, esperientzia berriro bizitzea. Flashbackek pertsonari trauma berriro bizitzea eragiten diote, hori berriro gertatuko balitz bezala.

Sarritan, bizirauten duten pertsonen, haserrekor erakusten dute beraien burua, eta ez dira gai ikusten sentimendu horiek kontrolpean mantentzeko. Indarkeria hori beste pertsona batzuei zuzendua izan daiteke, bereziki familiako kideei eta arreta edo zaintza behar dutenei, edo baita beraien buruei, jokaera autosuntsitzaileekin (jokaera suizidak, inpulsibotasun sexuala, alkohol eta drogen abusua). Badirudi gizon eta emakumeen artean ezberdintasuna dagoela haserrekortasunari dagokionez: gizonek beste pertsona batzuei zuzendutako indarkeriazko portaerekin adierazten dute, eta emakumeek, aldiz, beraien aurka.

Saihesteko era ezberdinen helburua norbanakoa babestea da gertaera traumatikoaren oroitzenetatik. Klabe traumatikoek esanahi bikoitza dute biktimentzat. Lehenik, momentuan bizitako mina gogorarazten diote, eta bigarrenik, berriro arriskuan egon daitezkeela adierazi. Maiztasunez, emozio sakon baten edozein saiheste pertsona babesten du traumarekin loturiko aktibazio psikofisiologikoarengandik. Hala ere, saiheste jokaera asko pertsonen kontzientziatik at kokatzen dira, ez dira ohartzen egiten ari direla.

Traumaren momentuan edo ondoren egoera disoziatibo batzuk bizi daitezke.

Pentsamenduen, sentimenduen, kontzientzian dauden bizipen eta pertsonen memoriaren integrazio normalaren falta. Eragina egoten da kontzientzian, memorian, identitatean eta inguru fisikoaren pertzepzioan.

Gertakari traumatikoei loturiko sintomei dagokienez, aurrez ikus daitezkeen sekuentzia jarraitzen dute. Bizirik irauten dutenek gertaera berriro jasaten dute, berriro biziko balute bezala, zehaztasun handiarekin, gertaeraren berdinak izan daitezkeenak edo ez, eta bigarren momentu baten saiheste jokaerak ematen dira, nahasmen eta ezeztapen formetan. Itxuraz, berbizipenak eragindako antsietateak era egokian funtzionatzeko gaitasuna gainkargatzen du, eta horrek eragiten du norbanakoak inhibizio defentsiboko prozesua hastea, gertaera traumatikoarekin erlazionatutako informazioaren prozesamendua jaisteko estrategiak erabiliz.

Gertaera berriro bizitzeak pertsona geldiarazi dezake eta ondorioz, horrek efektu negatibo hori kontrolatu nahiko du. Hori lortzeko era bat traumarekin loturiko informazioa

kontrolatzea da, eta bi eratan egin daiteke: traumaren memoria galarazten edo traumarekin loturiko pertzepzioak galarazten. Ekiditeak min emozionaletik babesten du pertsona. Behin antsietatea murriztuta, pertsonak berriro prozesa dezake traumarekin zerikusia duen informazioa. Zikloa errepikatu egiten da traumarekin erlazionatutako informazioak antsietate mailaren igoera sortzen duenean. Bi fase sekuentzial hauek egotearen oinarritzko arrazoia da norbanakoak prozesu kognitibo/emozionaletan sartzeko beharra duela, bere buruaren eta munduaren ikusmoldea hornitzeko, berak ulertzen duen bezala (Gaborit, 2006).

Bigarren mailako erreakzioak

Aurrerago deskribatutako erreakzionatzeko bi era nagusiez gain, gertaera traumatikoarekin loturiko bigarren mailako erantzunak ere daude (Gaborit, 2006). Esan beharra dago pertsona guztiek ez dituztela sintoma guztiak edo gehienak izaten eta kontuan hartzeko aldakuntza indibidualak daudela. Izaeraren ezberdintasun hauek hobeto azaltzen dituzte traumaren erreakzioak: Depresioa, autoestimu baxua, identitatearen nahasmenduak, zailtasunak pertsonen arteko erlazioetan, eta lotsa eta erruduntasun sentimenduak.

Depresioa gertaera traumatiko baten ondorio modura, era askotan adierazi daiteke, eta horrek adierazpen kognitibo, emoziona, konduktualak edo fisiologikoak izan ditzake. Orokorrean, traumatizatutako pertsonak modalitate horietako hainbatetan adierazten dute depresioa. Depresioaren ohiko erak hurrengoak hartzen ditu: egoera letargikoak edo motorreko aktibitate eza, apatia sentimenduak edo esperantza gabekoak, konstanteak diren pentsamendu negatiboak, arreta jartzeko zailtasunak, jateko gogoaren galera eta nahasmenduak loan. Ez da arraroa konstanteak diren pentsamendu negatiboak izaten direnean, hauek norbera bere buruaz beste egiteko ideietan amaitzea. Nagusiki, depresio forma ezberdinak kontrolaren galeraren ondorio modura ematen dira. Pertsonak egoera depresiboekin erantzuten dute ezin dutenean beraien ingurua kontrolatu, beraiek egin dezaketen edozer gauzak ez duela egoera aldatzen, edo ezin dituztenean antsietate eta desegokitasun sentimendu propioak kontrolatu.

Beharbada ohikoena den bigarren mailako erreakzioa autoestimu baxua da, trauma mota askoren erantzun bezala, pertsonak beraien buruari buruz duten kontzeptua ezegonkortu egiten da eta egoera pertsonak eta sozialak eraginkortasunez aldatzeko indarra ere bai,

beraien ongizatean kalteak eragiten. Askotan, autoestimu baxuak pertsoneri galarazten die trebetasun kognitibo eta sozial berriak eta beharrezkoak ikastea, egoera horretan beharrezkoak direnak.

Trauma geroz eta handiagoa izan, nagusiagoak izango dira ondo ezarritako estruktura psikologikoen ezegonkortasuna, adibidez, identitatearen zentzua. Identitate pertsonalaren inguruko nahasteetan orokortutako sentimendua adierazi daiteke, non norbera ez duen bere ekintzen kontrola. Askotan pertsonak adierazten dute beste pertsona bat beraiengatik aukeratzen dabilzala, eta ez beraiek (despertsonalizazioa), edo beraien buruarekiko banandurik sentitzen dira, eta ondorioz, ez dira beraien ekintzen erantzule sentitzen. Gertakari traumatikoaren ondorioz beraien identitatea setiatuak sentitzen duten pertsonak, ohikotasunez, amnesia adierazten dute, gertakariaren aspektuei buruz eta baita beraien buruei buruzko zehaztasunei buruz. Despertsonalizazioaren bizipenak denbora asko irauten baldin badu, arriskua dago identitate galera handia izateko, eta hori bereziki arriskutsua da haurtzaroan.

Ezbehar baten ondoren nahiko ohikoa izaten da pertsonen arteko erlazioetan zailtasunak bizitzea. Hau nahiko arazotsua izaten da, horrelako egoera bat bizi ondoren pertsonak beste pertsona batzuekin erlazionatzeko beharra izate dute bizirauteko arazoak konpontzeko.

Lotsak edo erruduntasun sentimenduek galarazten dute pertsonak bizitza normaltasun batekin hartzea. Lotsa sentitzen duten pertsonak sentitzen dute okupatzen egon beharko liratekeen postu soziala baino beherago kokatzen direla. Besteengandik begiratua sentitzearen ondorio da.

Erruduntasuna sentimendua egin behar ez den zerbait egiteagatik edo eskatzen den zerbait ez egiteagatik izaten dute. Alde batetik, pertsonak ez du sentitzen jazotzen ari diren gertakariak kontrola ditzakenik. Bestetik, bere burua eta besteak ezin babestearen ideia hain da jasangaitza, pertsonak nahiago duela pentsatzea zerbait ez berdina edo hobea egin zezakeela. Lotsarekin gertatzen den bezala, erruduntasun sentimenduak ez du errealista izan behar, ezta bizirautean duten pertsonen jokaeraren parte (Gaborit, 2006).

Hurrengo taulan argi azaltzen da doluaren fase eta momentu bakoitzean eman daitezkeen sintoma ezberdinak (Echeburúa et al., 2005):

FASEAK	MOMENTUA	SINTOMAK
<i>Shock</i> edo paralisia	Heriotzaren ostean	- Erreakzio afektibo eza - Apatia - Urduritasuna
Mina eta lasaitasuna	Lehenengo bi asteetan	- Heriotzaren onarpena - Pena eta mina - Etsipena
Erresumina	Lehenengo bi aste eta lau hilabete artean	- Depresioa - Antsietatea - Suminkortasuna - Segurtasun eza
Oroitzapena	Hiru eta hamabi hilabete artean	- Hildakoaren oroitzapenak - Pena

Estres post-traumatikoa

Estres post-traumatikoa gertakari traumatiko baten ondoren agertzen den kuadro kliniko bat da eta pairatzen duen pertsona ezgai bihurtzen da. Garrantzitsua da azpimarratzea psikologoek erantzun normal kontsideratzen dutela, erantzun normal bat egoera anormal baten aurrean (Gaborit, 2006).

Arazoa sortzen da erantzun horiek beharrezkoak diren denboran baino gehiago luzatzen direnean, hori dela eta, muga bat suposatzen dute pertsonak bizitza normaltasunez har dezan. Zentzu horretan, pertsonen arteko erlazioak eta zailtasunei aurre egiteko gaitasuna (gertaera traumatikoarekin lotura zuzena izan gabe) okerrerantz joaten dira.

Balioztatu da gertakari traumatiko bat bizi izan duten pertsonen %23 inguruak estres post-traumatikoa garatzen dutela, eta horietatik, emakumezkoak gizonezkoak baino gehiago. Denarekin bezala, ezberdintasunak nabariak daude gertakari traumatikoaren arabera.

Aldakortasun hau zaurgarritasun faktore eta pertsonen babesean kokatzen da. Arrisku faktore batzuk hurrengoak dira: gainditu gabeko doluak, etxebizitza eta familia-kideen galera, trauma eta aurretiaz gertatutako hondamendiak (Gaborit, 2006).

Dolua

Etimologikoki dolu terminoak “mina” esan nahi du (dolus) eta baita “erronka edo borroka bin artean” (Pacheco, 2003).

Freud izan zen dolua lehenengo aldiz ikertu zuena 1917an; doluaren emozio normala eta lutoan bere azalpena ezagutu zuen. Doluaren konponbidea, Freudek ezagutu zuen bezala, prozesu mingarria da eta ez da erraztasunez lortzen.

Dolua prozesu dinamiko konplexu bat suposatzen du. Norbanakoaren izaera osoan eragiten du, modu kontziente edo inkontzientean, “nia”-ren funtzio guztietan, jarrerak, defentsak, eta bereziki, besteekin dituen erlazioetan.

Dolua prozesu sozial modura kontsidera daiteke, hobeto konpondu bait daiteke banatzen denean eta gainontzekoengandik laguntza jasotzen denean.

Galera bati ematen zaion erantzun unibertsal bat da. Honi adin guztietako pertsonak egin behar izaten diote aurre. Erantzun normal eta naturala da; erantzun hori ez egotea ez litzateke hain normala izango. Zerbait pertsonala da eta bakarra eta pertsona bakoitzak bere modu eta erara bizitzen du. Hala ere, ohiko giza erreakzioak eragite ditu. Doluak esperientzia global bat da eta pertsonari bere osotasunean eragiten dio: aspektu psikologikoetan, emozioetan, mentaletan, sozialetan, fisikoan eta espiritualean.

Dolua, era berean, bizipen anibalentea da: posibilitate eta arrisku modura azaltzen da. Heltzeko posibilitatea, prozesuaren ondorioz pertsona ezberdina bilakatzen da: modu kontziente edo inkontzientean maite zen pertsonarekin zituen lazoak desagitea lortzen du, galerara moldatu eta era “osasuntsu” batean maite zen pertsona berriro egongo ez den munduan bizitzera bueltatu. Indartuta irteten da psikikoki eta espiritualki. Eta kronikoa bihurtzeko arriskua, amaitu gabeko edo gaizki egindako dolu bat egitean; kasu horretan tratamendu psikologikoa edo psikiatrikoa behar izatera iritsi daiteke (Pacheco, 2003).

Doluaren ikuspegi psikosozial eta antropologikoa

Atal hau Pachecoren “Perspectiva antropológica y social ed la muerte y el duelo” lanean (2003) oinarrituko da. Autore horren hitzetan doluak eta trantsizio pikosozialak egiteko era ingurura moldatzeko oinarrizko osagarria da. Erlazio sozialeko moldaketak eta zailtasunak ere. Hori dela eta, dolu prozesuek ondorio garrantzitsuak dituzte norbanakoaren bizitzan. Dolua erakusteko modua, hala ere, estuki erlazionatuta dago parte garen kulturarekin, galera inguratzen duten egoerekin, hildako pertsonaren adinarekin, bizitza egoerarekin, espero zen heriotzarekin edo bapatekoarekin.

Dolua maite den pertsona bat galdu eta berehala edo hurrengo hilabeteetan hasten da, eta denbora tarte batera mugatzen da, zeina ezberdina izan daitekeen pertsonaren arabera (ez da bizitza osora zabaltzen). Doluaren prozesu psikologiko konplexua da, eraturako harremana desegin eta galeraren minari aurre egin behar zaio. Doluan galera benetakoa da, eta pertsonak normalak ez diren portaerak izaten ditu (baina ez da patologikoa), denboraren poderioz gainditzen da. Produktibitatea baxuagoa da eta mundua pobre eta huts geratzen da.

Dolua egiteak barne munduaren berreraikuntza dakar, bizipen berri honekin pertsona aberastu egiten da eta norberarenganako konfiantza handiagotu egiten da.

Errealitatean, doluaren eta horren prozesuaren adierazpen sozial eta antropologikoen hiru alderdi dituzte: alde batetik, gizarte, instituzio eta talde txikien mailan prozesu horien adierazpenak dira, nolabait komunitate horren parte diren gehiengoak momenturen batean bizi izandakoak. Beste maila batean, erritualizazioa eta horrek suposatzen dituen ohiturak, integratuta dagoen kultura batean, doluaren lan psikologikoa laguntzen dute; bertatik dator erritu zehatz batzuen garrantzia, esaterako, hiletak. Azkenik, errito eta ohitura horiek alderdi antropologiko eta soziala dute: gertaeraren komunikazioa komunitateari errazten dute, ondasun eta zerbitzuen trukerako bidea ematen dute, hildakoarekin eta bere familia eta gertukoekin adiskidetzeko aukera, eta abar.

Zentzu horretan, hileta erritu horiek laugarren balio bat dute: doluan dauden norbanakoen prozesu emozionaletan laguntzen dute, hau da, balio emozionala dute. Ondasunen eta zerbitzuen birbanaketaz gain, balio sinboliko eta komunikatiboa dute: kideen artean komunikatzeko erak dira, baita gizarte kohesiorako bidea ere.

a) Faktore psikologikoak

Galera eta galera sentimendua bakuna da. Galera berdinak esanahi ezberdina du pertsona bakoitzean, bakoitzak era ezberdin batean pertzibitzen duelako, hurrengoaren arabera:

- Erlazioaren zentzua eta kalitatea
- Sortu duen dependentzia edo independentzia
- Senitartekoaren eta hildakoaren artean konpondu gabe geratu diren “gaien” kalitatea, hildakoaren ezaugarriak (adina, sexua, pertsonalitatea).
- Senitartekoaren pertzepziotik hildakoari bizitzak eman dion “errealizazioa, asetzea eta betetzea”
- Senitartekoarentzat, familia eta mugitzen zen sistema sozialarentzat hildakoaren rol eta funtzioak.

Hildako pertsonarekin harremana gatazkatsua izan bada, mina ez da galerarengatik bakarrik; senitartekoak bere buruari leporatzen dio hildakorekin erlazio hobea ez izana; egunen batean hobetzeko esperantzarik ere ez du. Kasu horretan, aurretiaz konpondu ez diren gatazka zaharrak berriro irteten dira, eta senitartekoak aurre egin behar die momentuko galera eta zaharrei.

Galera batek pertsona batean duen eragina ezin da “normalizatu”.

b) Baliabide pertsonalak

Galerari ematen zaion erantzuna eta doluari aurre egiteko modua pertsonak bizitzako beste momentu batzuetan emango lukeenaren antzekoa da. Honen arabera da:

- Bere portaera adaptatiboak, pertsonalitatea, izaera eta osasun mentala.
- Norberarenganako konfiantza maila.
- Heldutasun eta inteligentzia maila, dolua gainditzearekin positiboki erlazionatuta, heriotza horren zentzua ulertzeko posibilitate gehiago ematen dituelako.
- Beste dolu batzuk izana edo ez, era positiboan edo negatiboan eragin dezaketenak.
- Dolua adieraztearen posibilitatea.
- Dolua zailtzen duten beste krisi pertsonal batzuekin elkartzea. Horietako bakoitzak pertsona “hutsik” dagoenean energia eta arreta eskatzen dute.

Izatearen zentzuak, oinarri erlijioso-filosofikoak, kulturalak eta sozialak eragina izango du galeraren ulermenean, inplikazioetan, aurre egiteko eran eta adierazpenean.

c) Heriotzaren egoera zehatzak

Hiltzeko modua era momentuak gainontzeko pertsonetan eragiten du. Ez da berdina:

- Agure edo haur baten heriotza.
- Gaixotasun terminala edo bapatekoa.
- Bere buruaz beste egindako hilketa edo ekintza biolentoengatik.

d) Kanpoko babesak

Saminduek beraien dolua errealitate sozial zehatz baten bizi dute, eta horrek eragina du errekonstruzio prozesuan. Familia oinarrizko kontestua da eta dolua egitea lagundu edo oztopatzea egin dezake. “Familia kultura” orok jokaera, tradizio, balore sozial eta espektatibak inplikatzen ditu. Lagunak, profesionalak, “pertenentzia taldeak”, Eliza, “batak bestea laguntzeko taldeak” –bizipen antzerakoak bizi izan dituzten pertsonen osatuak– babesak eta kontsolamendua ematen duten beste hainbat aukera izan daitezke.

Gizakia psikologiko eta era emozionalean besteekiko erlazioan babesturik bizi da. Kanpoko babes hauetakoren bat hiltzen denean, aldi baterako barne hondamendi bat sortzen da, eta horren intentsitatea hildako pertsonarekin izandako erlazioaren arabera izango da, baita bere izatean duen garrantziaren sakontasunaren arabera.

Pertsona batek maite duen hurbileko pertsona baten heriotzari aurre egiten dionean gai da dolua ulertzeko. Bakarrik denborarekin eta, galeraren minari aurre egin ondoren, gainditu egiten da, poliki, zarata handirik egin gabe, diskretuki. Behin prozesua amaituta, pertsona barnekoa eta intimoa den transformazioaz kontziente egiten da pertsona, eta baita harritu sufritu duenarengatik; aurreko egoera eta bizipenaren ondorengo erraz desberdindu daitezke. Bere bizitzaren egunerokotasunean zituen planteamenduak zentzugabeak eta faltsuak dira.

Trauma edo dolu bat gainditzea

Bizitako esperientzia oso gogorra izan da ere, beti dago aukera zauri hori ixteko, guztiz edo partzialki. Echeburúa et al.-en hitzetan (2005) helburua ez da ahaztea, baizik eta oroitzapenekin harrapatua ez sentitzea. Lortu nahi dena momentuko beharrei aurre egiteko gaitasuna errekuaratzea da eta etorkizunera itxaropenarekin begiratzea. Funtsean, eguneroko bizitzaren eskakizunetaz arduratzeko gai izatea, kanpo estimuluei jaramon egin, gaur egungo egoeran eskura dagoenaz gozatu eta etorkizuneko planak egin. Portaera hauek errekuarazio bidea adierazten dute.

Batzuetan biktimaren eskaerak eskainitako tratamendu mota alda dezake. Pertsona batzuk antsietatea edo loaren alterazioak moduko ondoez konkretuen arintzeagatik arduratzen dira; beste batzuk, ordea, trauma beragatik atsekabetuta daude; eta beste batzuk, azkenik, oinarrian terapia baino gehiago bilatzen dutena beraien egoera mentalari buruzko adituen irizpen bat da indemnezazio ekonomiko edo lanerako ezgaitasuna lortzeko.

Era berean, batzuetan hasierako lehentasuneko helburua gaur egungo arazoak edo bizitza egoera kaltegarriak konpontzea izan daiteke, trauma berriro ez aktibatzeke helburuarekin edo gaintzetzeko estrategia kaltegarrietara ez jotzeko (adibidez, alkoholaren abusua). Beste batzuetan, erlazonaturik dauden nahaste mentalei lehentasun terapeutikoa ematen zaie, adibidez, hurrengo kasuan: depresio sakona, buruaz beste egiteko joera, alkoholismoa edo familia banaketa sakona. Behin helburu hori lortuta (partzialki gutxienez) trauman zentratu daiteke.

Edozein kasutan, terapiaren oinarriko helburuak sintoma gogorrenei momentuko lasaitasuna ematea da (hau, batzuetan, psikofarmakoei esker lortu daiteke), traumari aurre egin, segurtasuna munduan eta pertsonetan berreskuratu biktiman, eta kontestu komunitarioan biktimaren birgizarteratze soziala erraztu. Errealitatean, biktima errekuaratuta sentitzen da bere bizitzan erabakiak hartzeko sentsazioa errekuaratzen eta bere bizitza zentzuz kontrola dezakeenean.

Biktima ez denean gai ikusten jasandako trauma bere kabuz gaintzetzeko, edozein interbentzio terapeutikoren oinarriko printzipioak horrela laburtu daitezke: ondoez emozionala hobetu; sendatze naturalaren prozesuari lagundu; ez erabili egoera okertzen edo errekuarazioa atzeratzen duten tratamendu ez-eraginkorrak edo aplikaezinak; eta terapia pertsona bakoitzaren behar zehatzera moldatu.

Konkretuki, tratamenduaren helburuak mailaketa bat eginez planteatu behar dira, beharrei lotuta. Lehendabizi, sintoma gogorrenei aurre egitean datza (loezintasuna, amesgaiztoak, antsietate sakona, umore depresiboa, etab.). Bigarrenez, traumaren nukleoa landu behar da (gertakariaren berbizipena, saiheste jokaerak eta izu erreakzioak). Eta azkenik, emozioak erregulatzean datza, eta autoestimua eta beste pertsonetikiko konfiantza berreskuratzea. Prozesua arrakastarekin amaitzen bada, biktimak nolabaiteko lasaitasun eta segurtasun sententzia lortzen du, bere bizitza eta emozioen gaineko kontrola berreskuratzen du, kontestu komunitarioan sozialki birgizarteratzen da eta bere bizitza proiektuarekin aktiboki jarraitzen du.

Bestalde, dolu patologikoaren gainditzeak gertakari traumatiko baten biktimentzat baliodunak diren helburu terapeutiko asko partekatzen ditu. Baina, dolua gainditzearen prozesua berezia da. Zehazki, lehenengo pausua galeraren errealitatea onartzea da. Bigarren pausua minaren eta penaren bizipena partekatu. Hirugarrena, sistema familiarraren berrantolaketa hildakoaren funtzio rola onartuta. Eta azkenik, laugarrena, erlazio eta helburu berriak ezarri bizitzan, zeina beti ez den erraza hildakoarenganako sentitzen den leialtasuna dela-eta eta galera berria izatearen beldurrez. Batzuetan, etsipenak eta kontsolamendu erlijiosoak, eta maite diren pertsonen babes emozionalak ere (seme-alabak, familia kideak, lagunak, eta abar), errekupeazio prozesua bizkortzen laguntzen dute.

1.3.Biktimen Trauma eta doluari lotutako kontuan izan behar diren beste kontzeptu batzuk:

Biktimen trauma eta doluari buruz hitz egitean, konkretuki terrorismoaren biktimei buruz, garrantzitsua da kontzeptu batzuk lantzea, hau da, kontzeptu hauen inguruan ezagutza izan beraien egoera hobeto ulertzeko.

Terrorismoa-Estatuko terrorismoa

- Terrorismoa

Terrorismoa hierarkikoki antolatuta egon daitekeen talde batek jarduera biolentoak erabiliz gizartean beldurrezko klima psikologiko bat sortzen duenean emango da.

Terrorismoak, zeregin profesional eta kulturalak izango ditu; hau da, bizimodua bihurtuko da nahiz eta biktimak sortu (Burleigh, 2013).

Iturriaren arabera terrorismoaren inguruko definizio ezberdinak aurki daitezke. *RAE* k hiru eratarata definitzen du terrorismoa:

1. Terrorearen bidez menperatzea.
2. Modu jarrai batean terrorea sorrarazteko indarkeria bidez egindako ekintzak.
3. Antolatutako banden portaera kriminala, behin eta berriz eta normalean modu

Terrorismoaren inguruko definizio zehatza eta bakarra ematea oso zaila da, batzuentzat terrorismoa dena, beste batzuentzat askatasunaren aldeko borroka delako, besteak beste. Historian zehar terrorismoaren inguruko ehun definizio baina gehiago eman dira, baina guztiek lau ezaugarri amankomun dituzte (Icuza, 2018):

1. Biolentzia politikoa: Terrorismoa izan dadin beharrezkoa da biolentzia helburu politiko bat lortzeko erabiltzea. Ezaugarri hau klabea da terrorismoa talde organizatuetatik bereizteko.
2. Biolentzia komunikatiboa: Egintza terrorista ororen helburua gizarte osoarengan beldurra sortzea da.
3. Indarren asimetria: Botere gutxiago duen talde batek indarkeria erabiltzen du boteretsuena den taldearen kontra, beharra edo premia ikusten duelako horren aurka egitea.
4. Modu sistematikoan biolentzia erabiltzea: Biolentzia ez da momentu batean bakarrik erabiltzen. Behin eta berriz delitu asko gauzatzen dira, leku ezberdinetan eta momentu ezberdinetan, inork espero gabe eta helburu politikoa lortzeko.

NBEk terrorismoaren kontzeptuaren inguruan honako definizioa ematen du: “Pertsona bati heriotza eta lesioak eragiteko aurrera eramaten den ekintza oro; gizartea, gobernua edo erakunde internazional bat larderia eta beldurtzeko helburuarekin, azken hauek zerbait egin dezaten edo egin ez dezaten lortzeko.”

1/2015 Lege Organikoa, martxoaren 30ekoa, honako lege organiko hau aldatzen duena: 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodearena. Terrorismo delitua kontsideratuko da edozein delitu larri:

- Bizitzaren aurkakoa, osotasun fisikoaren edo moralaren aurkakoa, askatasunaren aurkakoa, askatasun sexualaren aurkakoa, ondarearen aurkakoa,

ingurugiroaren aurkakoa, osasun publikoaren aurkakoa, arrisku katastrofikokoa, Koroaren aurkakoa, atentatua edo edukitzea, armen trafikoa edo gordetzea, lehergailuen edukitzea eta ibilgailu publikoen jabetzea.

- Helburu hauekin:

- Ordena konstituzionala, erakunde politikoak, egestura ekonomikoak edo sozialak iraultzea Estatuak zerbait egin dezan edo egin ez dezan.
- Bake publikoa modu larrian aldatzea.
- Erakunde internazional baten funtzionamendua modu larrian desorekatzea.
- Estatu bateko biztanlerian terrorea eragitea.

De la Corte Ibañez-en arabera (2007), 7 dira terrorismoa azaltzeko printzipioak:

1. Terrorismoa ezin da inoiz sindrome (sozial edo psikologiko) bezala klasifikatu, baizik eta eragin soziopolitiko bezala. Kasu honetan, talde boteretsu batek minoria baten jarreretan eragin nahi du eta horretarako bide ezberdinak erabiltzen ditu. Ondorioz, terroristek indarkeria erabiliko dute zenbait arazoren aurrean gainontzekoen atentzioa lortzeko eta horrela haien helburuak eta balore politiko zein erlijiosoak jakingo dira.
2. Terroristen atribuzioak interakzio sozialen prozesuen bidez moldekatuak daude. Honen arabera, balore nazionalista erradikalen edo korrante erlijioso estremisten testuinguru batean hazi baldin bada norbait, terrorismoarekin parekatuko da zuzenean.
3. Talde honen parte diren pertsona guztiak erakunde sozial baten parte-hartzaileak kontsideratzen dira non haien interesak eta baloreak mehatxatuak suertatzen diren eta hau dela eta, indarkeria erabiltzen dute argumentu bezala bidegabekeriaren kontra. Komunitate batean erakunde terrorista bat sortzen baldin bada, komunitate horretako kide gehiago barneratzea ekarri dezake.
4. Terrorismoa posible izango da baldin eta terroristek eta aliatuek ezinbestekoak diren errekurtso batzuk lortzen badituzte. Kanpaina bat lortzeko ezinbesteko errekurtsoak ekonomikoak, teknologikoak eta materialak dira, baita gizakiak eta sinboloak ere. Lehenengo jarduerak lapurreta eta kalteetatik hasten dira eta

bahiketekin jarraitzen dute. Bigarrena lortzeko, biltzeko programa eta estrategia ezberdinak beharko ditu.

5. Ez da terrorismoa existituko jardueri zentzua ematen dien ideologiarik existitzen ez bada. Ideologia, ezaugarri politikoak dituen sinesmen eta baloreen sistema bezala ulertuko da. Talde berdineko kideek kultura eta erlijio berdina partekatuko dute.
6. Mugimendu soziopolitikoek zein talde terroristek antzezle arrazionalak izango balira jokaten dute, hau da, haien helburuak lortzeko beharrezkoak diren jokabideak aukeratzen dituzten pertsonak izango dira.
7. Terrorismoa burutzen duten pertsonen jarduerak taldearen ezaugarriak islatzen ditu. Ezaugarri horiek bi kategoriatan banatzen dira, taldearen estruktura eta taldearen barnean taldearen dinamikak. Estrukturak zer nolako erlazioak egongo diren eta zeintzuk izango diren bakoitzaren rola erakusten du. Bertan bi estruktura mota auki ditzakegu: hierarkikoa (lider bat dago eta kontrol handiagoa) eta sare formakoa (taldearen forma mantentzen da eta zailagoa egiten du taldea armagabetzea).

- **Estatuko terrorismoa**

Beharrezkoa da ulertzea ez dagoela Estatuko terrorismoa deitzen den tipo penal bat, baina ondo ezagutua da Gobernutik modu jarraitu eta sistematikoan datozen neurri errepresibo, kriminalak eta autoritarioak Estatuaren etsaiak kontsideratzen diren hiritarrei zuzenduta daudela. Horrela kalifikatutako hiritarra “benetako arrisku iturria” da Estatuarentzat eta beharrezkotzat ikusten da bere ezabapena talde segurtasunari jarraikiz (Torres, 2010).

Terrorismoaren kontrako borroka praktika ilegitimo, batzuk legalak eta beste batzuk Zuzenbidearen guztiz kontrakoak ekarri ditu (Portilla, 2001). Estatuaren aldetik etorri den indarkeria ilegitimoaren existentziaren onarpenak azken urteetan eman diren gertakari batzuk ulertzen lagundu dezake: Almeria kasua eta GAL (*Grupo Antiterrorista de Liberación*) adibidez.

Estatuko terrorismoa faboratua ikusi da ustezko terroristaren berme batzuk baztertea posible egiten duen legeria prozesal penalarekin, horrela torturaren egikaritzea errazten.

Legitimitate zalantzarriko praktika legalekin batera, beste batzuk garatu dira, zeinak baieztatzen duten Estatu barneko organizazio terroristaren existentzia (Portilla, 2001).

Barne-Ministerio barnean GAL sortzea erabaki zen ETaren indarkeria terrorista Estatuako terrorismoarekin erantzuteko helburuarekin. Horrela, terrorismoaren aurkako borroka (1983-1986), bide legal baina bidegabeen bitartez (berme konstituzionalen etenaldia) egin zen, eta Estatutik sortutako organizazio terrorista hori, Estatutik finantzatu eta armatu zen.

Dogmatikoki Estatuako terrorismoari buru hitz egiteari buruz, doktrina banandua dago, horietako batzuk kontzeptuaren kontra ageri dira (Portilla, 2001). Zentzu horretan, Lamarca Pérezek dio Estatu ez dela inoiz terrorista izan; bere indarra erabiltzean, indarraren erabilera legitimoan kokatzen delako. Kontzeptu honen existentzia sistema politiko zehatzetan ezeztatzen duen beste autore bat Serrano Piedecabras da, honek dio Zuzenbideko Estatu demokratikoetan ez duela zentzurik Estatuako terrorismoari buruz hitz egiteak.

Esandakoaren kontrara, beste autore batzuk bai onartzen dute Estatuako terrorismoaren existentzia. Muñoz Conderren arabera, Estatuaren aurkako terrorismoaren kontra “Estatutik datorren terrorismoa” ere dago. Hori batzuetan beste terrorismoaren aurkako “gerra zikinean” erabiltzen da, erailketa eta bahiketa moduko indarkeriazko portarekin, zeinak era berean zigortuak izan behar diren. Bere aldetik, Gubernat Ordeigek adierazi du 1983 eta 1986 urteen artean Barne-Ministeriotik antolatua zegoen hiltzaile, torturatzailer eta bahitzaile talde batek, bizia kendu ziela hogeita hamar pertsona ingururi, gutxienez bi pertsona martiritatu eta beraien hobia zulatu arazi ondoren kare biziarekin desagerrarazten saiatu ziren, eta Zigor Kodean jasota dauden egitate deliktibo larrietakoak egin zituzten.

Portillaren arabera (2001), terrorismoak banda armatu baten existentzia galdatzen badu, organizazioa edo taldea, bere egonkortasuna, armamentua, hierarkizazioa eta hiri segurtasuna aztoratzeko helburuarekin, orduan, bai baieztatu daiteke Estatuako terrorismoa espainiar Auzitegiek emandako epai ezberdinen ondoren, GALi dagokionez.

Biktimen biktimizazioaren kausa eta ondorioak

Atentatu terrorista batek giza eskubideen urrapena dakar (Bernal, 2012). Urrapen hau biktimizaziorako lehen arrisku faktorea kontsidera daiteke. Pertsona kaltetua eta

gizartearen artean sortutako arrakalak arreta berezi bat behar du bere ondorioak ahalik eta gehien gutxitzeko. Arreta hori nagusiki onarpenetik egingo da. Horretarako beharrezkoa da 3 maila zehaztea.

1. Maila: lotura afektiboa

Lotura hauek oinarrizkoak dira sujetuarentzat, beraz oso garrantzitsua izango da bestearengandik onartua izatea.

2. Maila: zuzenbidearen sorrera. Araudia

Legislazioa loteslea da onarpena zein onarpen ezerako. Zuzenbideak onarpen hori maila publikoan babestu behar du. Konponketa erreparazio sozialen ekitaldietan onartzen hasi behar da (adibidez, barkamena botere politikotik eskatu).

3. Maila: estima soziala (erreparazio sinbolikoa)

Estima soziala sozialki onartua izateko eskubidea da. Kaltea jasan duen pertsona, biktima modura izendatua izan dena, gizartearen aldetik onartua eta gizarteratua izan behar, egoera eta bere kontakizuna ulertzen.

Bigarren arrisku faktorea atentatu terroristen ezaugarriak dira. Edozein atentatu terrorista nahita eragindako indarkeriazko ekintza bat da, era zakarrean ematen da, ez da espero, indiskriminatua da eta ikusgarria. Gizakiek eraginda, gizakien aurka.

Hurrengo arrisku faktorea atentatuan bizitako estresaren aldaketa faktorea da. Hori bizi duen pertsona moldaketara behartuta dago. Aldaketa hoen konplexutasuna ulertzeko bi gauza izan behar dira kontuan: kanpo munduaren galera eta barne munduaren galera. Kanpoko mundua asko aldatzen da, arraroa da, nahasia, mehatxatzailea etab. Barne munduari dagokionez, inguruaren aldaketak, inguruko errealitatea pertzibitzeko modu subjektiboa aldatzen du. Bizipen honek trauma osteko estres sakona gara dezake.

Baina terrorismoko biktimek biktimizazio prozesuan ondorio zehatz batzuk izaten dituzte. Edozein gertaera traumatikoetan maila ezberdinetako biktimak izaten dira.

Lehen mailako biktimak edo biktima zuzenak indarkeriazko ekintza zuzenean jasan dutenak dira. Askotan zauri fisikoak eta erreakzio psikologikoak izaten dituzte, azken hau adaptazio mekanismoen ondorioz (trauma psikikoa). Bigarren mailako biktimak edo ez-

zuzenak, gertaera traumatikoa zuzenean jasan duten pertsonekin erlazio dutenak dira edo gertaeraren lekuko izan direnak. Pertsona hauek desestabilizazio bat pairatu izan dezakete eta hurbileko familia-kideak, laguntza-zerbitzuetako jendea eta boluntarioak izan ohi dira.

Beste kontzeptu ezberdin bat biktimizazioa da: biktimizaziotzat ulertzen da delitu baten biktimean edo sujetuan gertaeraren ondorioz sortzen diren efektu eta aztarnen multzoa. Lehen, bigarren eta hirugarren mailako biktimizazioak ezberdintzen dira.

Lehen mailako biktimizazioa delitu baten ondorio zuzena da, hau da, ordenamendu juridikoan delitutzat kontsideratzen den portaera baten biktimea bihurtzen den prozesua. Delituari aurre egiteko eta bertatik eratorzen diren ondorio kaltegarrien bizipen pertsonala da. Ondorio hauek izaera fisikoa, psikologikoa, ekonomikoa edo soziala izan dezakete.

Bigarren mailako biktimizazioa sistema sozialak biktimari ematen dion erantzun negatiboa da, edozein dela bere izaera, instituzionala, poliziala, judiziala, administratiboa, osasun arloko, etab. Erantzun negatibotzat ere jo daiteke instituzioen alderik erantzunik ez jasotzea. Terrorismoko biktimeen gaian, egoera honek ondorio psikosozialak eragin ditu biktimeetan eta beraien familietan, askotan berreskuraezinak (adibidez; egoera estresgarriaren trataera eza, baliabide ekonomikoen falta larria, edo inguru sozialean gizarteratzeko arazo garrantzitsuak). Pertsonak tratu desegoki eta ez justua jasotzen du eta batzuetan delituaren erantzukizuna edo gertaera asmatzeaz leporatuko zaio. Trataera hau praktika polizialean, judizialean edo biktimearekin lan egiten duen beste edozein instantzian ematen da. Kasu horretan, biktimea erasotua sentitzen da eta bere biktimea papela berriro bizitzen du, baina kaltea berak laguntza eta errespetua jasotzea espero duen instituzioetatik ematearen gehikuntzarekin. Delitua bizi ondoren zaurgarria dela pentsatzen, horrelako erantzun edo trataerarekin babesgabetasuna handiagoa sortzen da.

Azken urteetan, terrorismoko biktimei emandako babesa eta onarpena askoz handiagoa da. Hala ere, berbiktimaziorako gaur egungo beste faktore bat gertaeraren inguruan komunikabideek ematen dioten gehiegizko arreta da,

Azkenik, hirugarren mailako biktimizazioa konponbide garaian ematen da, prozesu legala amaitu denean, eta biktimeak delituaren eta prozesu legalaren ondorio emozionalak onartu behar ditu. Horrela, esaterako, terrorismoko biktimea bere gain hartzen zuen estigma soziala.

Biktimizazioa

Biktimizazio terroristetan biktimak beste batzuek beste batzuek eragindako indarkeria jasaten dutenak dira, inolako arrazoirik gabe, suntsitu eta menderatzeko. Horregatik, biktimak errugabeak dira. Biktima kontzeptua ezinezkoa da biktimario gabe: hori dela era ez da biktima sufrimenduarengatik. Biktimarioaren eta bere ingurukoaren sufrimendua existitzen da, baina ez zaie biktima izaera egotzen. Biktima da biktimarioak “arrazoirik gabe” (ez dago arrazoirik suntsipen eta menderakuntzarako) biktimizatutako pertsona edo pertsonekin suntsipeneko erlazioa ezarri nahi izan duelako. Biktimarioak sortzen, sustatzen edo errazten duen biktimizazioari hiltzeko zentzu zehatza ematek sortzen dira biktimak (Subijana, 2014).

Biktimak adierazgarriak dira: beraien funtsa biktima izatean aurkitu behar da. Adierazgarriena biktima bihurtzen duen ekintza terroristaren ebidentzia da: kaltetuak diren pertsonen bizitza proiektuan egin de suntsipen eta galera beraiek direnarengatik edo irudikatzen dutenarengatik. Horretan oinarritzen da gertakariaren biktimen memoriarako eskubidea eta gizartearen aldetik eskubide hori babestera (Subijana, 2014).

Ikuspuntu biktimologikotik terrorismoko biktimen hiru dimentsio ezberdinu beharra dago (Subijana, 2014):

- Bere beharrez ezaugarritzen dena: inguru pertsonala, biktimak gizakitzat jotz.
- Bere interesekin identifikatzen dena: inguru soziala, biktimak hiritartzat jotz.
- Bere eskubideetara lotua: inguru juridikoa, biktimak prestazio galdagarri baten titular modura jotz.

Biktimizazio terrorista orokotan elkartuta doazen bi esanahi daude: faktikoa eta hermeneutikoa. Faktikoa egitateko ebidentzian zentratzen da: gertakari bat eman zen. Hermeneurikoa gertakariaren esanahian oinarritzen da: zer zentzu duen egitateak eta zer mezu ematen duen egitateak. Bigarren ikuspuntu honetan memoriak bere zentzua du, askotan biktimarioak beharrezkotzat jotzen duelako biktimak ez-ikustaraztea. Bere biktimario egoera ezkutatzeko estrategia bat da (Subijana, 2014).

Memoria – Justizia – Justizia Leheneratzailea

- Memoria

Memoria da injustiziaren esperientziaren garrantzia unibetsalizatzen duen kategoria. Memoriari gabe gertakaria bera desagerrarazi egiten da. Memoriari esker iragan urruna orainaldi bihurtzen da, askotan injustizia baten iragana. Horregatik, memoria aldentutako iraganetik hasi behar da. Ikuspuntu honetatik, gogoratzea ez da iraganean emandako gertaera bat burura ekartzea, iragandako injustizia gaurkotasunez onartzea baizik. Hori dela eta, memoria eta justizia batera doaz.

Makrobiktimizazioak agerikoak dira egin eta pairatu dituztenentzat. Baina, hauek desagerrarazten baldin badira, gogoratzen dituen baten bat egoten bada soilik izango da eskuragarri hurrengo belaunaldientzat. Bertatik dator kontaketaren garrantzia. Memoriarik gabe, injustizia ez da inoiz existitu, urrun daudenak desagertu egiten dira, eta orainaldikoak era librean antolatu daitezke, biktimizazioa inoiz emango ez balitz bezala. Memoria urrun geratzen diren pertsonak gaur egunean integratzeko modua da, gainera iraganean emandako injustiziak gaur egunera ez igarotzea ahalbidetzen du. Iraganean biktimizazioa justifikatzeko emandako arrazoiak deslegitimaturik geratu eta bizikidetzaren oinarriak eraikitzen dira.

Memoria biktimizazioaren ezagutzan eta bere esanahiaren ulermenean orientatzen da. Gertatutakoa ezkututzeak modalitate ezberdinak har ditzake: bertsio ofizial baten sorkuntza, instituzionalizatutako gezur baten elaborazioa, isiltasun orokor baten ezarpena, edo axolagabetasun axiologikoaren diskurtsoa.

- Justizia

Justizia injustiziaren esperientziaren erantzuna da. Horregatik justizia biktimizek jasandako injustiziarik abiatu behar da. Ez dago abstrakziorako eremurik: gizakiak dira sufritzen dutenak, gizakiak dira sufrimendua eragiten dutenak, y gizakiak dira albo batera begiratzen dutenak.

Kontatu beharrekoak:

- Gertatutako deskribatu
- Gertatutakoa egitate biktimizatzaile bat den kalifikatu

- Adierazi aipatutako biktimizazioko erantzuleak zein edo zeintzuk diren, biktimario moduan izendatuta.
- Adierazi zein edo zeintzuk diren gertakariaren ondorioz kaltetuak, biktima moduan izendatuta.
- Biktimarioei biktimizazioaren larritasunaren arabera zehapen proportzionala ezarri.
- Zehaztu biktimarioek eragindako eta biktimek jasandako kaltea eta horren konponketara behartu.
- Aukera eman ezarritako zigorraren exekuzioak biktimari eragindako kaltea konpontzea, eta baita biktimarioen birgizarteratzea ere.

Behin Legearen arabera erru kriminala mugatuta, erru moralaren espazioara zabaldu daiteke, non kontzientzia, mina, damua eta barkamenarekin erlazionatutako arazoak landu daitezkeen. Delitua ekintzaren larritasuna eta ondoriozko zigorraren arabera neurtzen da. Errua kontzeptu moral bat da eta biktimari eragindako kaltearen kontzientziarekin lotzen da: hori dela eta, behin legearengandik aurreikusitako zigorra beteta ere, delituak bertan jarraitzen du.

Suntsipenezko biktimizazioan –gizakia desegiten duena– Legeak ez du Justiziaren balore gorena asetzen. Kasu horietan, kaltearen izaera itzulezinak eta bere erreparazioarako aukerarik ez egoteak, legalitatea gutxiegia da bilakatzen du jasandako injustizia osorik konpontzeko. Justua dena legala denetik kanpo kokatzen da. Gai hau benetan arazotsua eta konplexua da. Legearen betearazpena ez da zigorgabetasunaren baliokide, nahiz eta kaltearen izaera definitibo eta konponezinak, suntsitutakoa ezin osoki konpondu.

Biktimizazio terroristak biktimak erreferente eksklusibo eta baztertzaille modura ditu, eta ez Estatua. Horregatik, ezin da egin ETAREN biktimen eta botere abusuaren ulermen osoa. ETAREN terrorismoaren biktimak eta botere abusuaren biktimak, denak dira biktimak, baina ez berdinak. ETAREN biktimak organizazio baten biktimak dira, zeinak proiektu totalitario bat ezartzeko terrorearen bidez beraien hiritar izaeratik aldentzen dituen. Ideia kriminal baten biktimak dira. Botere abusuaren biktimak ez dira ideia kriminal baten biktimak, Estatu demokratikoa, estruktura instituzionalizatu modura, Zuzenbidearen mende dagoen espazio bat delako. Gainera, ETAREN terrorea gizartearen alderdi adierazgarri bati zuzendu da: bere biktimen zati handi batek ez du Estatua ordezkutzen. Ez dago biktimizazio loturarik biktima batzuen eta beste batzuen artean (Subijana, 2014).

- **Justizia leheneratzailea**

Justizia trantsizionaleko mekanismoak martxan jartzen dira prozesu autoritario edo diktatorial baten ondoren trantsizio demokratiko bati ekiten zaionean edo gatazka armatu batetik irteteen, non giza eskubideen aurkako urratze larriak eta sistematikoak eman diren. Subijanaren aburuz (2014), Euskadin gaur egun dagoen egoera ez da demokratikoa ez den ordena batetik beste demokratiko batera edo aurka dauden bi bandoren arteko indarkeriazko gatazka. ETAren ekintza terrorista nagusiki Estatu demokratiko baten barnean garatu da, Zuzenbide Estatu batean. Ez da indarkeriazko konfrontazio berezirik sortu talde politiko edo sozialen artean eskala handira, non denak diren bata bestearen biktima eta biktimario. Ondorioz, ez dago lekurik justizia trantsizionalarentzat.

Aldiz, bada lekua justizia leheneratzailearentzat, elkartasun sinkroniko (daudenekin) eta diakronikoan (ez daudenekin, beraien ahotsa isilarazita izan dena) babesten dena. Erreparazio justuak prozedimendu mota baten beharra du (bitartekaritza eta beste prozesu leheneratzaileak), emaitza zehatz bat (erreparazioa) eta helburu mugatua (berreraikuntza).

Justizia leheneratzailean injustizia erlazio bat suntsitzen duen ekintza modura ikusten da eta justiziak berreraiki behar du. Biktimizazio suntsitzailean justizia leheneratzailea gizakien espazio sakonetan finkatzen da, eta bertan bizitzeko bere beharrak kokatzen dira, interes ideologiko, politiko eta publikoetatik aldentuta. Bizitzeko behar hauek bi galderetatik irteten dira: delitua burutu dunari bere erantzukizuna non kokatzen den galdetzen zaio, biktimari, ordea, non kokatzen den egia ezagutzeko beharra, galdetzeko, azaltzeko, gauzak aurpegiratzeko, eta berari kaltea eragin dion pertsonari gizatasuna itzultzeko. Galdera hauek sortzen dituzten mugimendu energetikoek topaketa leheneratzaileak eragiten dituzte, biktimengandik sustatu, eskatu eta onartuak.

Justizia leheneratzaileak biktimizazio suntsitzaile eta menderatzailean biktimarioaren ekintzak behar ditu alderdi indibidual eta sozialean.

- Alderdi indibidualean, kalte pertsonala erreparatu, konpondu daitekeena konpontzen eta konpondu ezin daitekeenaren memoria bizirik mantenduz.
- Alderdi sozialean, biktimaren inguruak egindako ezeztapenek eragindako kalte politikoa konpondu.

Biktimarioaren birgizarteratzeak bi alderdien konponketa eskatzen du:

- Alderdi indibidualean, eragindako kaltea onartu eta hori ahalik eta gehien erreparatzea bere esku dagoen heinean. Hemen kokatuko litzateke barkamena, ekintza boluntario modura, sakona, eta biktimarioa egindako ekintzaren loturatik askatzen du. Barkamen hori onartzea, noski, biktimaren askatasunean kokatzen da, inoiz ez da exijitua edo ezarria izango.
- Alderdi sozialean, biktimizazio terroristaren alde edo hori erraztu duen eduki ideologikoa ezin daiteke ordena politikoan egon. Beharrezkoa izango da bizitza publikoan biktimarioak eta gizarteak biktimen protagonismoa aitortzea.

Justizia leheneratzailearen helburua ez da eragindako kaltea erreparatu eta hasierako egoerara itzultzea; lortu nahi dena espazio berri bat erreparatu eta eraikitzea da, non ez den posible erreparatutako injustizia (edo erreparatzeko dagoena) burutzea. Justizia biktimak berregin eta biktimak baino zerbait gehiago izateko aukera da (Subijana, 2014).

2. Terrorismoko biktimak Espainia eta Ipar Irlandan

Atal honetan Espainia eta Ipar Irlandaren arteko konparaketa bat egingo da, bi herrialdeetan biktimaren papera zein izan den ikuste aldera.

Herrialde horietan terrorismoak ondorio latzak utzi zituen. Garai horietan zehar biktimek instituzioetatik jasotako babesgabetasunaren ondorioz, milaka pertsonetan indarkeriaren ondorioak areagotu zituen eta gaur egun justizia, memoria publiko eta herrialdeko prestazioekin loturiko erreklamazioak dituzte (Jiménez, 2019).

2.1. Biktimen aukeraketaren dinamika

ETA eta IRA Europako talde terrorista zaharrenak dira, bi taldeetako lehenengo kideak izaera iraultzaile eta sozialistako proiektu nazionalistak bilatzen zituzten gazte aktibista batzuen generaziokoak ziren. Hala ere, faktore etniko-erlijiosoa, Ejerzituaren parte-hartzea, talde errepublikano terroristen presentzia eta loialista Ipar Irlandan, edo Euskal Herriko bizi maila altua de eta, beraien kontestuak eta ibilbideak urruntzen hasi ziren.

Ezberdintzeko beste faktore bat biktimen zenbakia izan da. ETAk egindako erailketak 853 izan dira, eta kaltetuak 6.389. Erailketa guztietatik, 574 Euskal Herrian egin ziren. Estatuko indar eta segurtasun kideekin erlazionatutako taldeek (BVE, GAL) 62 pertsona erail zituzten. Ipar Irlandaren kasuan, IRA eta beste errepublikar taldeen biktimak 3.600 izan ziren eta 30.000 zaurituak.

1974 amaiera eta 1975 hasieratik 1981 arte Espainian ETAREN aurkako “gerra zikina” hasi zen. Talde esstrukturatu bat izan beharrean, Ejerzitu, Polizia, Guardia Zibil eta inteligentziako zerbitzuetako kideek osatzen zuten, beste batzuekin batera. Indarkeriazko ekintzak hainbat taldeegandik erreibindikatuak izan ziren, nagusiki Triple A eta Batallón Vasco Español, eta hildako biktimak 33 izan ziren. 1983an bigarren etapa bat hasi zen hamarkada amaierara arte, Grupos Antiterroristas de Liberación (GAL) taldeak dominaturik. Guztira 62 erailketa izan ziren (Jiménez, 2019).

2.1.1. ETA eta IRAREN estrategiak

Organizazio nazionalistetako indakeria terroristaren garapena aztertzeko bi aldagai aztertu behar dira: Biktimen aukeraketa maila eta talde terroristen estrategia.

Biktimen aukeraketarako erailketa mota ezberdintzen dira: selektiboak –biktimaren jokaeran oinarrituta–, generikoak –biktimaren profesioa dela eta justifikatua, Estatuako indar eta segurtasun kidegoaren parte izatea–, indiskriminatuak, kolateralak –burutu nahi ez direnak, baina antolatutako atentatu batean egikarituak–, eta okerrak –orokorrean pertsonaren gainerako informazio faltsuarekin erlazionatuta–.

Estrategiari dagokionez, desgasterako erailketak eta kontrola mantentzeko burututakoak ezberdintzen dira. Desgastekoak Estatuaren aurka daude zuzenduta eta segurtasun indarren aurka eginez egikaritzen dira, funtzionarioak edo zibilak, Estatuaren ordezkari modura kontsideratuak eta *statu quo*-a mantentzearen erantzuleak. Bigarrenak talde terroristaren segurtasuna urratzera bideratuta joan daitezkeen portaerak gelditzeko bideratuta daude. Ipar Irlandan krimen sektarioak ere zeuden, arrazoi politiko-erlijiosoen ondorioz. Beraiek guztiak eskuragai izandako baliabide eta jarraitzaileen babes mailaren arabera egongo ziren baldintzatuta (Jiménez, 2019).

2.2. Erreparazio politikak

Ingelesez *reparation* hitzak bi zentzu ditu: alde batetik, “erreparazio”; eta bestetik, “kalte-ordaina”. Terrorismoko biktimen erreparazio politikek esanahi bikoitza izaten jarraitzen dute: jasandako kaltea erreparatzen saiatzen dira eta laguntza ekonomikoa gehitzen dute terrorismoak eragindako kalteen beharrezko konpentsazio modura. Autore ezberdinek diote biktimaren onarpen juridikoak erreparaziorako eskubidearen eraginkortasuna aseguratuta izan behar duela, errekupeazioan lagundu, prozesu penalaren eraginkortasuna handitu, eta horrekin justiziaren zentzu indibidual eta kolektiboa, eta bigarren mailako biktimizazioa saihestu.

ETA zein IRAren biktimen kasuan egoera berdina ematen da. Nahiz eta lehenengo biktima mortalak 70eko hamarkada amaieran izan, 90eko hamarkadara arte ez ziren kontsideratuak izan Espainia eta Erresuma Batuko ordenamendu juridikoengandik. Biktima esanahiaren garaiko aldaketa eman da, biktima erdigunera eramaten da, eta aldaketa sortzen da sufrimendua baliogabea izatetik, justiziaren esanahia izatera pasatzen denean (Jiménez, 2019).

2.2.1. ETako biktimei arreta

Espanian biktimarenganako arreta 90. hamarkadara arte atzeratu zen Europarekin alderatuz. Biktimei zuzendutako arreta instituzionala etapa ezberdinetan banatzen da: ukapena, errukia, elkartasuna eta “eskubideen garaia”.

Ukapena ETaren hasierako ekintzetatik 80. hamarkada erdialdera arte luzatzen da, terrorismoko biktimei aldeko lehenengo manifestazio publikoak sortzen direnean. Bitartean kaltetuek garrantziari gabeko periodo politiko, moral, sozial eta juridikoa bizi dute. 1981ean hiru emakumek Asociación de Víctimas del Terrorismo (AVT) fundatu zuten, indarkeria terroristaren kaltetuen eskubideak ordezkatzeko zituen lehenengo erakundea (Jiménez, 2019).

Euskal Herrian, 1980an biktimei defentsarako lehenengo elkarteak sortu ziren, Asociación por la Paz. Ordutik, biktimei aktibismoa era jarraikorrean handiagotzen joan zen, eta era erabakikorren eragin zuen kolektiboari zuzendutako politika publikoetan.

Eremu legegilean lehenengo neurriak pentsioen dekretuak izan ziren, 80 eta 90 hamarkaden bitartean onartuta. Ondorengo legeetan indemnizazioak onartu ziren, ordura arteko biktima gehienak Estatuko segurtasun indarren kideak ziren, eta beraien zerbitzuan hiltzen ziren arauak aplikatu zitzaizkien. Baina aurrerago terrorismoko biktimak izatearren beste mota bateko kalte-ordaina jaso zuten. 2016ra arte Estatuak terrorismoko biktimetan 123.271.929 eurotako indemnizazio eta laguntzak eman zituen.

Hala eta guztiz ere, araurik garrantzitsuena irailaren 22ko 29/2011 legea da, terrorismoko biktimei errekonozimendu eta babes integraleko legea, atzeraeraginkortasunez 1960ko urtarrilak 1etik egikaritutako ekintza terroristak guztiei aplikagarria. Legeak babes integrala, osoa izateko asmoa du, memoria, duintasun, justizia eta egiaren printzipioak jarraituz. Gainera, argi adierazten du zeintzuk kontsideratzen diren terrorismoko biktimak eskubide eta prestazioen ikuspegitik –ekintza terroristaren ondorioz hil edo kalte fisiko zein psikikoak jasan dituztenak– eta doako justiziaren eskubidea onartzen da. Lege honen bidez, lehenengo aldiz egiten zaio erreferentzia memoriari.

Terrorismo biktimei arretarako espainiar sistema Europa mailan ezaguna izan arren, kaltetuek erreklamazioak egiten jarraitzen dute. Horiek artean zigorgabetasun maila altua nabarmentzen da –ETako krimenen %30 eta 40aren artekoa–; kalte-ordainen ezberdintasuna epai judiziala duten biktimei eta horren faltan dauden artean; eta ETako

krimenen inguruko dokumentazio garrantzitsua gordetzen duten artxiboen dispersioa. Erreklamazio horiekin batera ase gabeko beste batzuk gehitzen dira, adibidez, omenaldi publikoen debekua Euskal Herri eta Nafarroan terrorismoarengatik kondenatuei (Jiménez, 2019).

2.2.2. IRAko biktimei arreta

IRAko biktimek ez zuten arreta politiko eta instituzionala jaso 1998ko Ostiral Santuko Hitzarmena eman arte. Ordura arte etta 1964tik Erresuma Batuak estatuko sistema bat ezarri zuen izaera deliktiboko kalteak indemnitzatzeko –Criminal Injuries Compensation Scheme (CICS)– herrialdeko fronteren barruan emandako indarkeriazko ekintzak konpentsatze aldera, ekintza terrorista barne. Horren arauketak 30 urte baino gehiago iraun zituen, 1995ean kalte penalen indemnaziorako legea onartu zen –Criminal Injuries Compensation Act (CICA)–. 1995eko martxoan gobernu britanikoak IRArekin erlazionatutako 1.119.585.000 libretako indemnizazioak ordaindu zituen, 300.516.000 libra ondasunen aurkako kalteengatik eta 814.219.000 kalte pertsonalengatik.

Ostiral Santuko Hitzarmenarekin, negoziatzaileek presoengatik inguruko kontzesioak egiten hasi ziren, aldagai erabakigarrian bihurturik. Tony Blairren gobernuak, biktimek kritikak aurreikusirik, barkamena eskatu eta hainbeste espero zen bakearen helburua aurkeztu zen zenbait zehazketa emateko justifikazio modura. Presoengatik askapenak, 1995ean hasitako prozesua, jarraitu zuen eta biktimek –Espainian gertatu ez zen bezala– arreta psikologikoarekin erlazionaturiko zerbitzuak eskatzen hasi ziren. Zerbitzu sozialek IRAren biktimei ondorioen lehenengo ikerketa egin zuten. Horrek guztiak, geroz eta handiagoa egiten ari zen presioa suposatu zion gobernu britanikoari, eta gertaera traumatikoa gainditu zuten pertsonen eskakizunei aurre egitera behartu zen.

Espainiako legerian biktimei dagokienez, inoiz ez zen “biktima” hitzari buruzko debatea sortu, aldiz, Ipar Irlandan bai. Izan ere, gaur egun oraindik, desadostasunen gogorren arrazoi zentrala izaten jarraitzen du: definizio hau finkatzeak, alde batetik, iraganaren kontaketa zehatz bat egitea inplikatzeko, eta bestetik, zehaztea zeintzuk diren konpentsazio ekonomikoetarako eskubidea duten pertsonak.

Horri “sufirimendua” kontzeptua gehitzen zaio. Erresuma Batuan baieztatzen dute sufirimendua ez dela baldintza nahikoa biktima izaera jasotzeko. Espainiako kasuan, sufirimendua ez da debatearen parte izan paradigman aldaketa ematen den momentura arte

eta biktimak gatazkaren ondorio modura ikustetik kalte injustu bat pairatu duen talde izatera pasatzen dira. Egoera berri honek bi ondorio ekarri ditu: alde batetik, biktimak figura inkomodoak bilakatzen dira erreparaziorako eskaerek ez dutelako bat egiten ahazteko ohitura orokortuarekin; bestetik, delitua burutu duenaren figura sortzen da, gizartearen zati batek heroitzat hartzen duena.

Eztabaidetatik at, gaur egun Ipar Irlandan dagoen “biktima” hitzaren definizioa 2006ko Ipar Irlandako Biktima eta Bizirik irten direnen Ordenak jasotzen du (Victims and Survivors Northern Ireland Order). Bertan ezartzen da biktimatzat hartu behar direla fisikoki edo psikologikoki kaltetuak izan direnak, horiei zaintzak ahalbidetzen dizkienak, eta indarkeriazko ekintzen ondorioz zuzeneko familia-kide bat galdu dutenak.

Biktimen beste erreklamazioetako bat, euskal kasuan bezala, zigorgabetasunarekin du zerikusia. Estatua ez dago prest berriro ikerketekin hasteko, ez du biktimekin elkarlana egin nahi beraiek egia jakin dezaten, justizia eta egia lortzeko eskubidea ezeztatuz. Bigarren mailako biktimizazioaren eredu baten aurrean kokatzen gara (Jiménez, 2019).

2.3. Konparaketa

Euskal Herria eta Ipar Irlanda bezalako eremu txikietan terrorismoak eragin maila altua izan arren, bietan lortutako indarkeria maila ez da konparagarria. 1968 eta 1981 artean ETAk 352 pertsona hil zituen, eta IRAk 2.358. ETAREN aurka egin zuten talde parapolizialak egon ziren, baina Ipar Irlandan talde hauek presentzia benetan nabarikoak izan zen.

Bai ETA, bai IRAk, Estatuaren aurkako desgaste estrategia garatu zuten eta era horretan gizartearen babes maila handitu zen. Estrategia aldaketa 90eko hamarkadaren erdialdera eman zen bi erakundeek zibilak hil zituztenean.

Espanian zein Ipar Irlandan biktimei emandako arreta ekintza terrorista gehien zeuden momentuan eskasa edo urria izan zen. Ez zeuden arau zehatz batzuk ezarrita eta jasotako konpentsazioak beste egoera batzuetarako ezarritako arauetan oinarritu ziren. Neurri desberdinak 30 urte beranduago iritsi ziren. Espainiako arreta sistema Europako garatuenetarikoa den heinean, Ipar Irlandan “biktima” hitzaren definizioarekin eztabaida mantentzen dute.

Bi kontestuetan zintzilik geratu dena zigorgabetasuna da. Espainian kalkulatzen da ETaren erailketen %40 ingurua argitu gabe dagoela. Ipar Irlandan, zigorgabetasun indizea askoz altuagoa da, eta horren larritasuna handiagotzen da Ostiral Santuko Hitzarmenean kondenen jaitsiera garrantzitsua adostu ondoren, eta Estatuaren interes urriak krimen horiek argitzeko, biktimen artean ezeztatzina den zigorgabetasunaren sentsazioa sorrarazi du (Jiménez, 2019).

3. Euskal esperientziak

Atal honetan Euskal gatazkaren testuingurua azaltzetik Eusko Jaurlaritzak eginiko bakerako plana azalduko da. Horretaz gain, biktimei zuzendutako programa edo ekimenak landuko dira.

3.1.Euskal gatazkaren testuingurua

Gaur egungo egoera ulertzeko, egoera honen sorrerara joatea beharrezkoa da. Garrantzitsua da jakitea nondik datorren euskal gatazka hori, egoera ulertzeko eta horrela arazoari errazago aurre egiteko.

Memoria eta biktimak frankismoan: ETAren sorrera

1952 urtean Deustuko Unibertsitateko 3 ikaslek, irakasle baten babesarekin, Ekin taldea sortu zuten politikaren inguruan apatia eta desinteres bat ikusten zutelako. Ondoren, Bilboko Ingeniaritza Eskolako beste ikasle batzuekin eta Euskaltzaindian lan egiten zuen beste pertsona batekin kontaktuan jarri ziren. Klandestinitatean Ekin Bilbotik Donostiara, Zaragozara, Valladolidera, Bartzelonara eta Madrilera zabaldu zen, ikasle euskaldunen medioz. Ekineko kideek euskal kulturaren, historiaren eta hizkuntzaren inguruan ikasten zuten eta horiei buruzko hitzaldiak ere antolatu zituzten.

1959 urtean, EKIN taldeak ETA: Euskadi ta Askatasuna, izena hartzen du (Azurmendi, 2014). ETA bi helbururekin sortu zen: Euskadiren askatasuna lortzeko eta gizarte eredu justu bat lortzeko. Talde honek herri euskaldunaren zapaltzaileak zirenekin bukatzeko indarkeria beharrezkoa dela adierazi zuten.

1961 urtean, gobernuak errepublikarekin amaitu izanaren 25 urteurrena ospatzeko kanpaina bat antolatu zuen, eta beraz, ETAk erabakitzen du momentu egokia dela frankismoaren kontra egiteko. Beraz, Donostiara zihoan tren bat errailetatik ateratzeko erabakia hartu zuten, barruan soldadu falangista ohiak zihoazelako. Honek ez zuen biktimarik eragingo. Ez zuten trena errailetatik ateratzea lortu baina konboia aldaroka ibili zen. Momentu berdinean Donostiako erdigunean hiru bandera espainiar erre zituzten.

Gertakari honen eta sortutako zapalkuntza polizialaren ondorioz, ETaren jarduera gutxiagotu egin zen. Beraz, haien jarduerak, ideiak eta abar antolatzeko eta ezartzeko batzar bat ospatzeko aukera sortzen da.

1962 eta 1973 urteen artean batzar desberdinak antolatu zituzten, eta bertan taldearen ideologia, helburuak, bideak, antolakuntza... landu zuten. Batzar horietan ere taldearen arteko zatiketak gertatu ziren, ikuspuntu desberdinak zirela eta.

Hasierako hilabetetan egin zituzten jarduera gehienak propagandistikoak ziren; pintadak egin, ikurriñak kokatu eta panfletoak banatu. Baina ondoren, noizbehinka, salatari eta faxista nabarmenak erasotzen zituzten. Momentu horretan hasi ziren lehergailuak erabiltzen.

Ondoren, taldearen antolakuntza eta ideologia indartuz joan zen heinean, borroka armaturako bidea egin zuten.

ETako terrorismoa: Zergatik sortu zen

ETaren sorrera egoera historiko eta politikoekin lotzen da, zeinak euskal gizartean erakundearen finkatze bizkor eta sakona ahalbidetuko duen. ETaren sortzaileek espazio politiko bati hasiera eman zioten Euskal Herrian, askatasun nazional eta sozialaren alde borrokatzen zuena, hain zuzen, ezker abertzalea. Gertakari hau ulertzeko azken urteetan euskal nazioaren aldeko borroka izan duen eboluzioari erreparatu behar zaio, bereziki XX. mendeko lehen erdiari.

XIII eta XVI. mendeen artean euskal lurralde penintsularrak konkista eta maniobra politiko bidez Gaztela-Espainia-ko koroara barneratuak izan ziren. Independentziaren galera arintzeko, Espainiako monarkiak Foruak mantendu zituen, kode legal batzuk euskal lurraldeei eskubide garrantzitsu batzuk ematen zizkienak: zerbitzu militarerako salbuespena, independentzia fiskala, zuzenbide zibil propioa... Foruek autonomia maila esanguratsua adierazten zuten.

Baina XIX. mendean egoeraren aldaketa garrantzitsua eman zen. Europa osoan mugimendu liberalei aurre egiten zebiltzan eta Estatu Espainiarrean liberalek Foruak feudal garaiko pribilegiotzat hartu zituzten eta horiek indargabetzea eskatu zuten. Horrela konfrontazio armatu bat sortu zen liberal eta kontserbadoreen artean (gerra karlistak) eta euskal biztanleriaren gehiengoa kontserbadore karlistekin batu zen foru sistema

mantentzea defendatzen zutelako. 1876ko karlisten azken porrotaren ondoren, Foruen gehiengoa abolituta geratzen da.

Garai berdinean Euskal Herrian, bereziki Bizkaian, industrializazio prozesu indartsu bat sortzen da eta honek langile espainiarren etorrera handia dakar. Inmigrazio masibo hau foruen galerarekin lotuta, euskal biztanleriako sektore handietan kontzientzia nazionalaren biziraupena dela eta kezkatzen hasten dira. Honek mende amaieran euskal nazionalismo modernoaren sorrera dakar, Euskal Alderdi Jeltzalearen (EAJ-PNV) sorrerarekin, 1895ean Sabino Aranaren eskutik sortua.

EAJ barruan, era esanguratsuan handitu den alderdia eta modu batera euskal kontzientziaren desintegrazioaren mehatxua gelditzea lortu duena, debaterako bi bide agertuko dira. Alde batetik, Espainiatik modu batera autonomia politikoa lortu nahi dutenak eta independentzia osoa lortu nahi dutenak.

Estatu Espainiarrean bandoak argi bananduta zeuden, ezkerrean eta eskuinean kokatzen ziren aliantza politiko handiak urteetan zehar zebiltzalako hauteskunde eta gizartean aurkatzen.

Gerrak hiru euskal probintziei autonomia Estatutuaren emakida eragin zuen. Estatutu horrekin Eusko Jaurlaritzara osatu zen, ejertzito propioa eta borrokarekin eta zibilen bizitzarekin zerikusia zuten aspektu guztiak zuzendu zituen denbora horretan zehar. Euskal ejertzitoak tropa faxisten aurreratzea ekiditen saiatu arren, hilabete batzuetan Francoren tropek Euskal Herri penintsular osoa hartu zuten.

Politika frankistak euskal nazioa genozidio kulturalaren bitartez desagerraraztea proposatu zuen, oinarrizko elementuen debekatzearekin, folkloretik hasita hizkuntzaraino.

Gerra Zibileko porrotaren ondoren, euskal nazionalismoak koadro politiko baliotsuenetarikoa galdu zuen hiltzen ikusi edo erbestera alde egitean. Euskal Herrian geratu zirenak espetxeratuak, errepresaliak jaso edo estatu polizialaren aldetik jazarpenaren biktimak izan ziren, faxismoak sortuak.

36ko gerraren amaieraren ondoren, EAJ-k politikan bi bide hartu zituen. Alde batetik, Errepublikako Eusko Jaurlaritzaren mantentzean Euskal Herrirako oinarrizko erreferente politiko modura. Eta bestetik, bere itxaropena diktaduraren amaierarako gordetzen.

1947an Bilboko industrial gunea paralizatuta geratzen da langileen protesta dela eta. 1951an euskal industriak erantzuna ematen dio frankismoaren aurkako Greba Orokorren deialdiari. Saiakera hauei emandako errepresioak erakutsiko du oraindik ez dagoela prest ongi antolatutako oposizio bat (Casanova, 2007).

Behin testuingurua eta egoera ezagututa, errazagoa izango da biktimei zuzendutako politika publikoa garatzea. Beharrezkoa da egoera ondo jakitea, biktimak ahalik eta hoberen tratatuak izateko.

3.2. Eusko Jaurlaritzako bakerako-plana

Eusko Jaurlaritzak gatazka presente zegoela ikusirik, bake eta elkarbizitzarako planak egitea beharrezkotzat jo zuen.

Atal honetan, Eusko Jaurlaritzak bakearen eta bizikidetzaren arloan dituen planak aztertuko dira, lan honetan lantzen ari diren memoriarekin eta biktimen arretarekin lotutako gaiekin dituzten loturak identifikatzen saiatzeko. Lehenik eta behin, 2013-2016 urteetarako Bake eta Bizikidetzeta Plana landuko da, eta, bigarrenik, 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana aztertuko da. Bi planen interpretazio esparrua, planaren banaketa, eta izandako ondorioak azalduko dira, planekin lortu nahi dena argi geratzeko.

2013-2016 urteetan Bake eta Bizikidetzeta Plana garatu zen. Helburua gizartea elkartzea zen, eta hori lortzeko maila sozial eta politikoan eragina izan behar zuen.

Plan honen interpretazio esparrua

Planarekin hasteko, hausnarketa egitera bultzatu nahi zen egoeraz kontzienteago izateko, horrela pertsonen artean enpatia sortu eta elkarbizitza bultzatzeko.

Gogoetarako bost gai aukeratu ziren: (I) ETArekin amaierari buruzko jarrera; (II) orainean kokatzeko gutxieneko etiko eta demokratikoak; (III) iraganari buruzko kontakizuna; (IV)

jatorri ezberdinetako urraketen tratamendua; eta (V) etorkizunari lehentasuna ematearen zentzua.

Baina horrekin hasi aurretik, bi puntu argi izan nahi ziren, iritzi ezberdinek biktimei min gehiago ez egiteko.

Kontuan izan beharreko lehenengo puntua planaren asmoei buruzko oharra ziren. Argi zegoen denbora luze batean mesfidantza egon zela, eta horrek sortutako sentimenduak onartu behar zirela. Sentimendu horiek onartuta, iritziak ezberdinak dira, baina ezin da beste pertsona kaltetu. Elkarrizketan ezin da epaitu, iritziak epaitzen dituzten erantzunak jasotzen baldin badira, zaila delako asebetetzeko moduko erantzuna ematea.

Bigarren puntuan, premisen eta helburuen arteko tentsioa kokatzen da. Plana progresio eta prozesu baten ikuspegian oinarritzen zen, hau da, denbora tarte batean egitekoa, eta ikuspegi horretan argi ikusten zen nolako konplexutasun sozial eta politikoa zekarren eraldaketa historiko horrek. Egoera horrela, desio zenaren eta bideragarria zenaren arteko tentsio logiko bat gertatzen zen. Ekarpen batzuetan, tentsio hori ikus zitekeen, ibilbidearen eta lortu nahi diren helburuen artean.

Planaren prozesu zehaztuari dagokionez, lehen zatian proiektua mahai gaineratzen da, ezinegonetik ongizatera igarotzeko. Helburu horiek lortzeko egoeraren diagnostikoa egiten da eta hurrengo lau urteetarako proiektuaren oinarriak zehazten dira.

Bigarren zatian hasiera ematen zaio prozesuari, mesfidantzatik konfiantzara pasatzeko. Hemen hiru atal bereizten dira; iragana, oraina eta etorkizuna. Iragana ikuspegi etiko-sozialetik begiratzen da; oraina ikuspegi soziopolitikotik; eta etorkizuna gizarte- eta hezkuntza-arloko ikuspegitik.

Hirugarren atalean, programa martxan jartzen da, desadostasunetik adostasunera joateko. Programa hiru ardatzetan banatzen da, iragana, oraina eta etorkizuna ardatz harturik. Ardatz horietan fitxen arabera antolatutako ekimenak gauzatuko dira, iragana, oraina eta etorkizuna kudeatzeari dagokionez. Eta azkenik, laugarren ardatz bat egongo da, zeharkako ardatza, jarraipena eta ebaluazioaz arduratuko dena.

Gai hauek ukitzean, eta pertsona kokaturik egon den lekuaren arabera, bizitakoa eta egoeraren ikuspuntua alde batetik edo bestetik ikusten du. Gertatutako objektiboki berdina izan arren, subjektiboki pertsona bakoitzarentzat ezberdina izan da. Hori dela eta, normala eta aurreikustekoak dira iritzien arteko desadostasun eta horietan azaldutako

tentsioa; ulerkorra da, baina instituzioek jakin behar dute horri buelta ematen, eta hasieran azaleratzen diren amorruek eta tentsio sentimenduek horiek baretu, elkar-ulertzea eman dadin.

Planaren ondorioak

Plana martxan jarri, eta indarrean egoteko denbora amaitu ondoren, ebaluazio bat egin zen.

Bake eta Bizikidetzaren Planaren proposamenak bakea eta bizikidetzaren eraikitzearen prozesua hasi behar denean pildatzen diren kezka, min, beldur, nahi eta ikuspegi ugariak islatu da.

Plan honek jasotako ekarpen guztien esanahia esaldi bakar batean laburbildu beharko balitz, hau izango litzateke: “Iraganak mina ematen digu, orainak kezkatzen gaitu eta etorkizunak batzen gaitu”.

Iraganak mina ematen digu eta hori argi eta garbi ikusten da eragozpenak sorrarazten dituzten ekimenetan eta horretarako ematen diren argudioetan. Orainak arazo gutxiago sortzen ditu, baina iraganeko konfiantza ezak orainean proiektatzen den kezka sortzen du. Bizikidetzaren etorkizuna konpartitzeko borondateak, ordea, batu egiten gaitu.

Eusko Jaurlaritzak errealitate konplexu hori onartzea proposatzen du, zalapartak alboratuta, normaltasunez, zorroztasunez eta eraikitzearen borondatez. Gauzak argitzearen elkarriketa da adostasun eta ezadostasun horiei ekiteko tresna. Ikuspegia ez galtzeko, nondik gatozen eta nora joan nahi dugun argi eduki beharko genuke. Une historikoa bizitzen ari gara.

Bake eta Bizikidetzaren Planak jasotako ekarpenek arazoak non dauden argitu dute. Formulatu diren bost gai horiek egiteko dagoen lanaren agenda islatu baino ez dute egiten. Bost gai horiek denon artean jorratu behar ditugu. Gizarte osoaren lana da.

Hau da Bake eta Bizikidetzaren Plana: baldintza egokiak sortzea herri honetako familia politiko guztien gutxienerako akordioak lortu ahal izateko zenbait gairi buruz. Bake eta Bizikidetzaren Plana abiapuntu bat da.

Lehenengo plan horrek izandako ondorio positiboak zirela eta, Eusko Jaurlaritzak 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana kaleratu zuen, “Gizartea elkartzea helburu, enpatiaren aldeko hautua” izenburupean. Proposamen hau aurrekoaren jarraipena da, hori dela eta, puntu batzuk berdinak izaten jarraitzen dute.

Planaren banaketari dagokionez, aurreko planaren antzekoa da. Lehenengo zatian esparru orokorra lantzen da. Egoeraren diagnostikoa egiten da eta Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren Oinarriak zehazten dira.

Bigarren zatian akordiorako tresnak ezagutarazten dira. Hemen aurreko bakerako planean aipatzen ziren gaiak errepikatzen dira: Gure burua orainaldian kokatu gutxieneko etiko eta demokratikoekin; ETA amaitu aurretik izandako jarrera; Iragana nola bizi izan den kontatu; Jatorri ezberdinetako urraketan tratamendua; eta etorkizuna helburua izatearen garrantzia.

Azkenik, hirugarren zatian, jarduera-plana azaltzen da. Jarduera-plan hau lau ardatz ezberdinez osatzen da, eta ardatz bakoitzean kronologikoki denbora ezberdin batean zentratzen da, hau da, iragana, oraina eta etorkizuna. Amaitzeko, azken ardatza egongo da, zeharkakoa eta hau kudeaketa eta aurrekontuez arduratuko da.

Iraganari dagokionez, indarkeriaren amaiera antolatua landuko da. Horretarako hiru fitxa egingo dira: ETAREN armagabetzea eta desegitea, iraganari buruzko hausnarketa kritikoa, eta iragana argitzea.

Oraina aztertzeko, bizikidetzaren normalizazioa hartuko da kontuan. Biktima, memoria eta espetxe-politika landuko dira.

Etorkizunerako aztertzeko, aldiz, bizikidetzaren erronka berriei erreparatuko zaie. Bertan, aniztasunaren kudeaketa positiboa, elkartasunaren sustapena, hezkuntza, dibulgazioa, parte-hartzea, lankidetzaren estrategikoa, nazioarteko ekintza eta elkarrizketa eta akordioa landuko dira.

Plan hauek Euskal Herriko pertsona guztiei zuzenduak izan dira, baina horrez gain, beharrezkoak dira biktimei zehazki bideratutako plan, politika edo programak sortzea. Hori kontutan izanda, biktimak erdigunean jarri dira.

3.3. Biktimei zuzendutako programak

Gizartera bideratutako ekimenez gain, biktimei era zuzenago batean eragiten dieten programak sortu dira. Atal honetan biktimekin lotura duten programa batzuk aztertuko dira. Hala nola, Batera Konpromezua, Adi-Adian Hezkuntza Modulua, Gertu Programa, Eraikiz Programa eta Gogora Institutua. Programa hauen bidez biktimei babesa ematen zaie, biktimak ikasle gazteengana hurbiltzen dira beraien bizipena kontatu eta gazteak beraiek bizi ez duten garaian gertatu ziren gauza errepikaezinetaz jabetzen dira, banan-banako elkarrizketak eraildako biktimen familia eta Euskal Herriko hiritarren artean, eta biktima ezberdinek beraien artean hitz egiteko gune diskretu eta seguruak sortzen dira.

Batera konpromezua

Batera Konpromezua Eusko Jaurlaritzak biktimei arreta emateko dituen ekimenen eta programen oinarriak azaltzen laguntzen duen dokumentua da eta "konpromiso" horrek bake- eta bizikidetza-politika horiek gidatuko dituzten printzipioak finkatzen ditu, biktimen politika publikoetan aurrerapauso bat emateko oinarriak.

Biktimen politiken gestioa eta bultzatzea Bake eta Bizikidetza Planeko lehentasun bat da. Ekimen horretan, bi ardatz inplementatzea aurre ikusten da: biktimei babesa ematen jarraitzea; eta biktimei zuzendutako politikak berritzea gaur egungo egoeraren eboluzioarekin loturik. Batera Konpromezua politiken jarraitutasun eta berritzeen artean kokatzen da.

Biktimen politika publikoak fase ezberdinetatik igaro dira. 70 eta 80. hamarkadetan arreta gabezia nabarmentzen zen; 90. hamarkadan sentsibilizazio progresibo bat eman zen, eta 2000ko lehenengo hamarkadan biktimei beren eskubideen babes aktiboa eman zaien, normatibo eta instituzionalki.

ETAren biolentzia 2011n amaitzen da, eta une horrek egindakoa baloratzeko eta hurrengo urteetan biktimen politiken norabideari buruz hausnartzeko balio du.

Batera Konpromezua azken urteetan biktimen politiketan egindako eraketetan oinarritzen da. Hiru printzipio jarraitzen ditu: egiatzotasun printzipioa, zintzotasun printzipioa eta berdintasun printzipioa.

Egiazkotasun printzipioak dagokigun autokritika onartzera eramaten gaitu. Biktimen inguruan egindako hausnarketa kritikoak hainbat gabezia egiaztatu ditu: berandu iritsi biktimek merezi zuten sentsibilitate eta erantzunera, banaketa politikoa biktimen batasunari lehenetsi, biktimen artean banaketa egin jasandako indarkeriaren arabera, edo biktimen kausa erabili alderdietako interesekin.

Eusko Jaurlaritzak bere autokritika egin zuen errore hauetako bi onartzen. Lehenik eta behin, 90. hamarkada hasieran instituzioak berandu iritsi zirelako biktimengana. Bigarrenik, hurrengo urteetan, banaketa politikoa askotan solidaritatearen batasuna eta indarkeria gaitzeste itxuragabetu zutelako.

Eusko Jaurlaritzak autokritika egin zuen eta horregatik barkamena eskatu zien indarkeriaren eta terrorismo guztien biktimei, bereziki 70 eta 80. hamarkadan gertatutakoei jasandako zabarkeriagatik. Lehenago, hobe eta batuago erantzun beharko zutela pentsatzen dute. Hausnarketa autokritiko hau Batera Konpromezuaren hasiera puntua da.

Zintzotasun printzipioak minimo etikoa argi definitzea ahalbidetzen du. ETaren amaierak ez du esan nahi egoera gainditu behar denik gertatutakoaren inguruan kritika zehatzik egin gabe. Memoria egiteko politikek inplikatzten dute onartzea edozein indarkeriazko forma edo terrorismoa, beraz, ETako indarkeria eta terrorismoa injustizia bat izan zela.

Eusko Jaurlaritzak indarkeriaren eta giza eskubideen urraketan edozein justifikazioren kontra aurkeztuko da. Biktimen memoria eta ohorea ezin dira iraganean geratu etorkizunera begiratzeagatik. Hori da minimo etikoa, ezinbestekoa etorkizuna eratzeko, eta hor finkatzen da Batera Konpromezua

Berdintasun printzipioa, azkenik, biktimen eskubideak betetzen ditu. Biktimen politika publikoak bideratuko dira benetako eskubideen betearazpena, justizia eta dagokien erreparaziora, eta ahalegin berezia jarriko da biktimen arretaren pertsonalizazioaren sustapenean.

Norabide honen betearazpena biktimen eskubide berdintasunaren printzipiopean garatuko da, zein nahi izan jasandako indarkeria. Printzipio honek irudikapen bikoitza du:

alde batetik, ez onartu eta errepikatu biktimen diskriminazioa; eta, bestetik, arbuiatu eta aurre egin biktima batzuk beste batzuentzat daudenaren pretentsio justifikatzailea.

Zabaldago dagoen paradigma biktimak etorkizunarekin ere lotzea da. Biktimen politika publikoak iraganeko begiradara loturik egon dira. Hau beharrezkoa izan da, beharrezkoa da, eta izango da. Hala ere, iraganera bakarrik bideratuta dagoen begiradak muga suposatzen du biktimarentzat eta biktimizazioa gainditzeko. Eusko Jaurlaritzak paradigma hau gainditu nahi zuen.

Biktimen begirada etorkizunera bideratuta ere egon daiteke. Ikuspegi hau izateak esan nahi du biktimengan pentsatzerakoan, iraganean jasandako injustiziaren kaltean pentsatzea, eta baita beraien paperrean oraina eta etorkizuna gizartearekin bat sortzean.

Lehentasunez izan behar den balorea biktimak eta gizartearen arteko elkartasuna sustatzea da. Terrorismoko edo indarkeriazko biktimak jasandako gertaera traumatiko eta injustua gainerako gizartearengandik ezberdina da. Ezberdintasun horrek distantzia sortzen du biktima eta gizartearen artean. Biktimologiako ikerketak adierazten du, hemen edo munduko beste edozein lekutan, biktima eta gizartearen arteko erlazioa hurbilpen eta urruntze artean egoten dela.

Denbora joan ahala, biktimak eta gizartea hurbiltzen edo urruntzen dituzten faktoreak agertzen dira. Politika publikoek distantzia hori handitu, txikitu edo desagerrarazi dezakete. Eusko Jaurlaritzari dagokionez, biktimen inguruan egindako jarduerak lehentasuneko balore batengatik gailenduta egongo dira: biktimen eta gizartearen arteko elkarreragina, elkartzea eta batasuna etorkizunerako eta elkarbizitzarako gakoa da.

Konpromisu hau egitate konkretuetara bihurtuta egon behar da. Gaur egun Eusko Jaurlaritzak bultzatzen dituen programa guztiak Batera Konpromezuaren espirituarekin markaturik daude eta horrela izaten jarraituko dute etorkizun batean:

- Adi-adian Programa etorkizunean kokatzen da eta biktima eta gizartearen batasuna bilatzen du elkarbizitza hobeagoa sortzeko hezkuntza eremuaren bitartez.

- Gertu Programak etorkizunera bidean batasuna lortu nahi du eta horretarako biktimekin kontaktzen du memoriaren sorkuntza sozialerako.
- Udal erretratuen bitartez hurbileko biktimen bizitzeko eskubidearen urraketak hiritarregana hurbiltzen dira.
- Eraikiz programa oraina eta etorkizunaren sorkuntza biktima eta gizartearen artean elkarbanatzera bideratzen da.
- Gogora Institutua biktimak eta gizartearen artean elkarbanatutako espazioa da eta bere helburua memoria egitea da. Iragana kontuan hartuta elkarbizitzaren eraketa proiektatzen da.

Batera Konpromezuak biktimen politiketan etapa berri bat hastea adierazi nahi du, begirada iraganera ez ezik, etorkizunera ere egoteko, eta elkarbizitzarako biktimen eta gizartearen arteko batasuna sustatzen zentratzen da.

Batera Konpromezuak jarraitutasuna eta pausu berriak inplikatzeko ditu. Konpromezu honek lau hitz batzen ditu: biktimak, gizartea, etorkizuna eta elkarbizitza. Denon kontribuzioa eskatzen duen erronka da. Instituzio, alderdi politikoena, komunikabide, agente sozial, biktima eta gizartearena.

Hemen informazio gehiago lortu daiteke:

www.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos_paz_convivencia/es_def/adjuntos/Batera

Jarraian Batera Konpromezutik eratortzen diren programa batzuk aztertuko dira; hala nola, Adi-adian Hezkuntza Modulua, Gertu eta Eraikiz.

Adi-adian Hezkuntza Modulua

Euskal hezkuntza-sistemaren urteetako kezka da nola landu behar diren bakearen aldeko hezkuntza, indarkeriaren bidegabekeria, biktimekiko elkartasuna eta beren testigantzen balio pedagogikoa. 2005etik biktimen testigantzekin egin zen lan, Antzerki-Foruma tresnaren bidez (www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/modulo-adi-adian/).

Programa honek ETAre eta beste erakunde batzuen (BVE, GAL...) indarkeriaren zenbait biktima aukeratu eta trebatzen ditu DBHko 4. mailako eta Batxilergoko ikasgeletan beren esperientziaren berri emateko, helburu hezigarri batez.

Aurreko Legegintzaldian jarri zen martxan Adi-Adian programa, Bakea eta Bizikidetzaren 2013-2017 Planaren harira, eta 10.000 ikasleek entzun dituzte biktimen esanak.

2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planak adierazi zuen komeni zela Adi-adian proiektua berritzea eta bultzatzea, biktimek ikasleei ikasbidea eman diezaieten beren testigantzen bitartez.

Hori dela eta, oinarri hori kontuan hartuta, testigantzak jendeari giza eskubideen kontua barneratzeko daukan indarra baliatzen jarraitzea da, eta elkarrekin bizitzen irakasteko hezkuntzan etika ere sartzea. Proiektu hau, batez ere, DBHko laugarren mailako eta Batxilergoko ikasleentzat prestatuta dago, baina orain unibertsitateko ikasleek ere testigantzak entzuteko aukera izango dute.

Biktimek beren bizipenak geletan kontatzea gero eta gehiago eskatzen da, unibertsitatean ere, horregatik, Adi-adian proiektua eguneratze aldera, biktimen aurrez aurreko testigantzak ez ezik, grabatutako testigantzak ere erabiliko dira.

Modulu honen azken helburua da norberaren hezkuntza-prozesua hobetzen eta sendotzen laguntzea, geure errealitatearen testuinguruan, gizarte eta mundu hobe baten alde eginez. Eginkizun orokor horretatik abiatuta, helburuak hauek dira:

- Esperientzia. Bizipen hezigarri bat sustatzea, terrorismoak eta indarkeriak eragiten duen benetako sufrimenduaren bidegabekeria ikusi eta sentitzeko aukera emango duena, ondoren horretatik ikasteko.
- Enpatia. Bidegabekeriak sufritzen eta jasaten dituzten pertsonetako enpatia sentitzeko gaitasuna garatzea ikasleengan.
- Giza duintasuna. Giza duintasuna goi-mailako balio gisa ulertzea, bizitzea eta horretaz jabetzea.
- Giza eskubideak. Giza eskubideen edukia ezagutzea eta ikastea horien sakoneko zentzua ulertzeko, bizitza pertsonal eta sozialari begira.
- Bizikidetzaren. Elkarrekin hobeto bizitzen ikastea errespetuan oinarrituta, eta ikaskuntza hori eguneroko bizitzara eramatea.

Hezkuntza-modulua aurrera eramateko, une honetan tresna didaktiko hauek daude eskuragarri:

- Gida didaktikoa. Esperientzia honetatik ahalik eta gehien ateratzeko, gida didaktiko erraza ere dakar modulu honek, biktimaren testigantza entzun aurretik, bitartean eta ondoren lana nola egin aukera batzuk emateko.
- Ikus-entzunezko testigantza. Adi-adian hezkuntza-moduluan parte hartzen duten biktimek grabatutako testigantzak dira.
- Aurrez aurreko testigantza. Biktima batzuk prest daude ikastetxeetara joan eta beren bizipenen berri emateko, baina ahal dutenean, ikastetxeen eskariaren arabera. Horrek esan nahi du ezin dela erabat ziurtatu moduluetan beti aurrez aurreko testigantza lantzeko aukera izango denik

Adi-adian hezkuntza-moduluaren ebaluazioari dagokionez, ikusi da emaitza kuantitatiboa onak izan dituela, eta, batez ere, esperientzia oso ontzat jo dutela bai irakasleek bai ikasle batzuek bai moduluan parte hartu duten biktimek ere, denek oso ebaluazio ona eman diote-eta.

Gertu Programa

Biktimen arreta pertsonalizatuaren eta beraien parte hartzearen errefortzua lotzen dira programa honetan. Gaur egungo egoeraren beharretara egokitzeko biktimen politikak berriztu behar dira eta Gertu Programa bertan kokatzen da, esku-hartze berrien ezarpenean. Praktikan, biktimen familiekin gertuko komunikazioaren metodologia ezartzean oinarritzen da. Hau helburu bikoitzarekin egiten da: alde batetik, beraien errealitatea entzun eta horri hobeto erantzun; eta, bestetik, memoria eta bizikidetzaren eratze prozesuetan parte-hartzeak eskaini (www.ogasun.ejgv.euskadi.eus).

Gertu Programaren garapena praktikan irudikapen erraza dauka. Zuzeneko elkarriketa bat hastean datza, banan-banan, eraildako biktimen familia guztiekin eta Euskadiko hiritarrekin. Prozesu honek bi alderdi ditu: arreta eta parte hartzea.

Arretari dagokionez hori izango dira gakoak; entzun, identifikatu eta erantzun. Lehenengo gakoa, entzutea da, programa martxan jartzen den momentutik afektaturik suertatutako familia bakoitzarekin kontaktua izango da. Kontaktu hori arretaren behar basikoak entzun eta identifikatzera bideratuko da. Bigarren gakoa, identifikatzea. Horretarako idazkaritzako taldeak jasotako erantzunak sistematizatuko ditu, esku-

hartzeko lehentasunak ezartzeko terrorismoko biktimen oinarrizko beharren arretari dagokionez. Hirugarren gakoa, erantzuna, lan honek posible egingo du biktimen egoera hobetzeko esku-hartzeak definitu eta aktibatzea, baita memoria eta bizikidetzaren eraketa sozialeko prozesuetan parte-hartzeak hobetzeko ere.

Parte-hartzearen eremuan ere hiru izango dira gakoak; eskaini, grabatu, eta jarraitu. Eskaintzearen gakoan, elkarrizketetan solaskide bakoitzari bere testigantza grabatzeko aukera eskainiko zaio memoriaren eraketaren parte modura eta dokumentu modura Memoria eta Bizikidetzaren Institutuan gordeko da. Hurrengo gakoa, grabatzea. Nahi duten biktima guztiek beraien testigantza bideoan grabatuta eskaini ahal izango dute. Grabatzeko formatua, estrukturatua eta profesionala izateaz gain, horrelako testigantza motetan internazionalki homologagarriak diren pautei erantzungo die. Azken gakoak jarraipenari egiten dio erreferentzia. Lehen fase honen errodajeak programaren ebaluazioa egitea ahalbidetuko du, beharrezkoak diren zuzenketekin, oinarrizkoa denari jarraitutasuna emateko: kontaktu pertsonalizatua eta testigantzen bilketa.

Ekimen hau martxan jartzeko arrazoiei dagokienez, programek biktima protagonista izatea bilatzen dute, eta helburu horretan IVAC-KREI (Kriminologiaren Euskal Institutua) parte hartzaile bihurtu da. Institutuak Euskadin bizi diren erailketen zeharkako biktimekin egindako ikerketa kualitatiboak Eusko Jaurlaritzak eragingarri bihurtu nahi dituen ondorio batzuk eskaintzen ditu. Lehenik eta behin, kausa ezberdinengatik biktima askok jasaten duten berbiktimizazioaren edo bigarren mailako biktimizazioaren faktorearen garrantzia azpimarratzen da, zeina ez den behar bezala erantzun.

Zentzu horretan ikerketak bi gako garrantzitsu azpimarratzen ditu: biktima askok aintzat hartzen dute arreta beharra eta oinarrizko tratua ez direla betetzen, eta biktima askok parte-hartze zuzenagoa izatea gustatuko litzaieke memoriaren eraketaren prozesu sozialetan beraien testigantza propioarekin.

Eusko Jaurlaritzaren egin-beharra, biktimen babes eta arreta politiketan, oso era zehatzean bideratu behar da berbiktimizazioa saihestera eta gainditzea sustatzera.

Horretarako bi gako hartzen dira kontuan: oinarrizko beharrak asetzen dituen erlazio pertsonalizatu baten balorea indartu eta interes politikoak edo mediatikoak biktimen kostara gutxitu; eta biktima askori bidea eman elkarbizitzaren berreraketa sozialeko alderi

aktiboa izateko. Memoriaren eraketan biktimen testigantzak izatea oinarrizko alderdia da elkarbizitzaren normalizazio sozialaren prozesurako.

Programa honen bi printzipiotan oinarritzen da; orokorra eta zehatza.

Printzipio orokorrean, Eusko Jaurlaritzaren politika publikoa biktimei dagokienez, beraiei dagokien eskubideekin egiten du konpromezua: egia, justizia, erreparazio eta berriro errepikatuko ez delaren bermea. Internazionalki aitortutako eskubideak.

Printzipio zehatzean, Eusko Jaurlaritzaren politika publikoa biktimei dagokienez, elkarbizitzaren politikaren parte da eta bi konpromezutan finkatzen da; Iraganera begirada kritikoa, terrorismoa, indarkeria edo giza eskubideen edozein urraketa deslegitimatzen dituena, zein edozein banalizazio edo ukapen gertatutakoaren inguruan. Eta begirada prebentiboa etorkizunera, gertatutako ez errepikatzea bermatzen duena sozio-hezitzailea den proiektu baten bidez, giza duintasuna, giza eskubideak eta elkarbizitzaren konpromezuan oinarriturik.

Lortu nahi diren helburuei eutsiz, Gertu Programak hurbiltasuna bilatzen du, distantzia motzak elkarrizketa afektibo eta efektiboa posible egiten duelako. Hurbiltasuna da programa honen helburu orokorra. Helburu zehatza lau puntutan zerrendatu daitezke: (I) Biktimen eta instituzioen arteko hurbiltasuna faboratu elkarrizketa eta entzute zuzenaren bitartez; (II) Biktimen familietan asetu gabeko oinarrizko beharrei erantzun, posiblea den guztietan; (III) Berbiktimizazio prozesuak gainditzeko lagundu eta biktimen ezinbesteko ahalduntzea sustatu; eta (IV) Biktima eta gizartearen arteko hurbiltasuna mantendu eta sustatu, elkarbizitzaren eraketa sozialeko prozesuetan beraien parte-hartzea ahalbidetuz.

Helburu horiek lortzeko beharrezkoa da irizpide batzuk jarraitzea, hala nola; zehaztasuna, hurbiltasuna, konpromezua, ahalduntzea, eta parte hartzea.

- Zehaztasuna. Gertu Programa kualifikatutako pertsonak garatuko dute. KREIren aholkularitza jasoko du, bereziki elkarrizketak sistematizatzerako orduan, arazoak identifikatzen eta erantzunak formulatzerakoan.
- Hurbiltasuna. Familiekin egindako elkarrizketak ez dira aurretik ezarritako galdetegi batekin egingo, ez dute inkesta formatua izango. Elkarrizketa hurbila,

gizatiarra, zuzena eta informala bilatu nahi da, elkarrizketatuen egoera animikoa ezagutzera bideratuta eta beraien oinarritzko beharrei.

- Konpromezua. Biktimen beharrak asetzeko alternatibak bilatu behar dira, baina biktimei ezin zaizkie itxaropen faltsuak eman beraien egoera hobetzeko, bereziki hobetze hauek beraien aukeren eta eskumenetatik at kokatzen badira, hau da, legez ez badira biktima kontsideratzen.
- Ahalduntzea. Arreta berezia ezarriko da berbiktimizazioko egoeretan. Zentzu horretan, edozein eratako paternalismoak saihestuko dira, hauek oztopo bat direlako beraien egoera gainditzeko. Aldiz, lankidetzak, banandutako erantzukizuna eta biktimen ezinbesteko ahalduntzea sustatuko da konponbideen eratzean.
- Parte-hartzea. Gertu programaren helburu zentraletako bat biktima eta gizartearen arteko hurbiltasuna mantentzea da. Elkarrizketa hauek arreta berezia eskainiko diete kooperazioko espazioen eratzeari memoria egite aldera, eta biktima elkarbizitzaren normalizazio prozesuaren parte sentitzea baimendu gizartearen parte izanik.

Eraikiz Programa

Gertu programa martxan jarri ondoren, ondorioztatu zen biktima askok beste biktima batzuk ezagutzeko beharra zutela, berdinekin elkartzeko eta lasaitasunez hitz egiteko guneak izateko.

Ildo horretatik, ikusi da beraien bizitza berreraikitze prozesu pertsonalen berri jakin eta eman nahi dutela, eta gizartearekin hitz egin memoria eta elkarbizitza helburu izanda. Biktimen nahia asetzeko esperientzia ezberdinak ari dira egiten eta horiek denak Eraikiz Programaren barruan kokatzen dira. Biktimek beraien artean hitz egiteko gune diskretu eta seguruak behar dituzte, hori dela eta, komunikabideetatik at garatu dira (www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/-/eraikiz-programa/).

Programa hau egiten dutenak terrorismoa eta izaera ezberdinetako indarkeria jasandako eraildako biktimen familiakideak dira. Beraien artean hausnarketak, bizipena eta jasandako minaren esperientziak elkar-banatzen dituzte, helburu errestituzio eta eraikitzailearekin(www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/6872/ERAIKIZ_CAST.pdf?1441983342).

Partaideak desberdinak izan arren, errespetatu beharreko balore batzuk dituzte: Batasuna; Tolerantzia, errespetua eta dibertsitatearen balorea; Enpatia eta solidaritatea; Izateko, adierazteko eta bizitza propioa bizitzeko askatasuna; Justizia eta eskubide berdintasuna biktima guztientzat; Printzipio etiko eta moral solidoetan finkatutako bakearen balorea; eta Adorea, erantzukizuna eta konpromezua.

Biktimek, beraien testigantzarekin, memoria sortzen dute. Beste biktima batzuei euskarria eta babesa, batasuna, aurreiritzien gainditzea, adostu eta erabakitze gaitasuna, eta bizikidetzaren emateko daude.

Beraien biktima egoera kontuan izanda, hainbat eskakizun egiten dizkiote gizarteari: Ez ahazteko Euskadin hamarkadetan zehar jasandako terrorismo eta indarkeria; Iraganean izandako jarrera berrikusi eta egindakoaren inguruan autokritika egitea; Indarkeria eta horren inguruko edozein justifikazio ezeztatzea; Tolerantzia izan eta Euskal hiritar guztien ideia pluralak errespetatzea; Ez izan aurreiritzirik eta biktimen aniztasuna onartu; Enpatiatu eta biktimengana errespetuz eta afektuz hurbildu; eta hitz egin, elkarrizketak egin, parte hartu eta inplikatu.

Hori da biktima gehienek nahi dutena, azken puntua bereziki, parte hartu eta inplikatzeko, ez delako beraien kontua bakarrik, gizarte osoarena.

Gogora Institutua

Gogora, Memoria, Elkarbizitza eta Giza Eskubideen Institutua Euskal Herriko memoria demokratikoa jaso eta transmititzeko egitekoarekin jaio da.

Azken ehun urteetan indarkeriak markatutako esperientzia traumatikoen memoria gordetzeko eta transmititzeko eginkizuna du; bidegabeki pairatutako sufrimenduaren memoria, bai eta bizikidetzaren demokratikoa eta, are egoera txarretan ere, giza eskubideen eta bakearen defentsan oinarritutako gizartearen eraikitze eta defendatzeko ahaleginaren memoria ere.

Memoria demokratikoa transmititzeko erantzukizun etikoa abiapuntu hartuta, memoriaren eraketa inklusiboa sustatzea eta herritarren parte-hartzea bermatzea da Gogora Institutuaren helburua. Memorien arteko elkarrizketa horrek muga bakarra du: memoria ezin da erabili gertaerak baztertzeko edo parekatzeko. Ezta edozein terrorismo, indarkeria edo giza eskubideen urraketa mota justifikatzeko ere.

Eginkizunei dagokienez, institutuaren egin behar nagusia memoria kritikoa gorde eta transmititzea da, helburu pedagogiko eta dibulgatzaileekin. Horretarako, memoriaren eta giza eskubideen sustapenaren inguruan lan egiten duten instituzioen eta gizarte-erakundeen jarduera koordinatzen du, lankidetzaz sustatzen eta gizartearekin harremanik handiena izateko bidea bermatzen.

Institutuak eginkizun espezifiko hauek betetzea izango du helburu. Eginkizun espezifiko horiek betetzea helburu izanda, ekimen ezberdinak martxan jartzen ditu. Oinarriak zehaztuta, bertatik abiatu nahi da biktimen beharrak asetzeko:

- Oroitzapena: programak, argitalpenak, jarduera akademikoak eta kulturalak antolatzen ditu. Gainera, orokorrean, gizarte demokratiko eta askearen eraikuntzan garrantzitsuak izandako pertsonen eta gertaeren lekukotasuna eta memoria bizirik mantentzeko ekitaldiak ere.
- Kontserbazioa: Euskadiko memoria demokratikoaren ondarea euskarri material guztietan gordetzeko lana egiten du. Horretarako, bere jardueran, memoriari lotutako elementuen eta tokien inbentarioak eta informazio-funtsak sortu eta mantenduko ditu; ondasunak, gune fisikoak, gizarte-inguruneak eta gizarte-identifikazioa lortzeko beste batzuk.
- Ikerketa: ikerketa sustatuz eta instituzioekin lankidetzan arituz, erakunde espezializatuekin eta gogoeta-foroekin; gainera, behar diren dokumentazio-azpiegiturak sortuko dira, informazioa eta egiazko datuak biltzeko ikerlanen bidez. Horren guztiaren bidez, memoria eta bizikidetzaz eraikitzea, zabaltzea eta jakinaraztea ahalbidetuko da.
- Prestakuntza: pertsonaren funtsezko eskubideen onarpena eta errespetua oinarri hartuta oinarrizko bizikidetzaz- eta memoria-printzipioak ezarriz, bai hezkuntza-komunitatean, bai eskubideen urraketa pairatzeko edo eskubideak urratzeko arriskua egon daitekeen edo birgizarteratze-prozesuen beharra duten kolektiboetan.
- Parte-hartzea eta hedapena: memoria-ondarearen berri izateko bidea Administrazioak herritar guztiei bermatu beharreko eskubide bat dela ulertuta.
- Integrazioa: lan bateratua eta komunikazioa sustatuz Institutuaren xedeen antzekoak edo osagarriak dituzten instituzioen eta erakunde publiko eta pribatuen artean, behar diren lankidetzaz- eta laguntza-protokoloak eta -hitzarmenak

izenpetuz, memoriaren eta bizikidetzaren azpiegitura-sarea sortzeko, eta haren barruan Institutuaren helburuekin bat datozen edonolako zentroak sartzeko.

- Kontsulta: Institutuaren xedearekin zerikusia duten gaiei buruz txostenak eginez, administrazio publikoek eskatuta.

Zazpi oinarri horiek betetzea izango da Gogora Institutuaren xedea. Helburu horietatik abiatu ziren ikerketa gaien landuko diren bi elkarrizketak. Gogora Institutuari interesgarria iruditu zitzaion herri berdineko bi biktima ezberdinei beraien bizipena kontatu, hori grabatzea, dokumentu hori herrian bertan eta inguruan hedatzeko helburuarekin, gizartea gertatutakoaren gainean jakitun izateko.

4. S(u/a)minetik Bakera

Biktimei arreta emateko Eusko Jaurlaritzaren zenbait ekimen eta programa aztertu dira. Baina badira gai horiek lantzen ari diren ekimen pribatuak edo gizarte-erakundeak ere. Kasu zehatz bat aztertzeko, Su/aminetik Bakera esperientzia artistikoa aukeratu da, graduko azken lan honetarako interesgarriak diren gai espezifiko batzuk lantzen dituelako. Zehazki, terrorismoko biktimen dolua eta trauma lantzen dituen esperientzia bat da, eta hori aztertzea interesgarria izan daiteke horrenbeste landu ohi ez den biktimen arretaren dimentsio horretara hurbiltzeko.

4.1. Ekimenaren deskripzioa

Su/aminetik Bakera doluari buruzko dokumental bat da, indarkerian zentratuta, bi protagonistekin.

Alde batetik, zati bat grabatuta dago eta etengabean pantaila batean proiektatzen da. Beste alde batetik, zuzenean bi narratzaile daude eta jositako gidoia pantaila agertzen denarekin tartekatzen joaten dira. Batzuetan narratzaileek hitz egiten dute, eta tarteka protagonistek. Protagonistak Olatz Etxabe eta Sandra Carrasco dira, biak indarkeriaren biktimak, eta dokumental honen bidez beraien esperientzia eta dolu prozesua azaltzen dute.

Dokumental honetan Estatuko eta ETaren terrorismoko biktima bana elkartzen dira. Beraien esperientzia kontatzen dute, sufritu dutena eta gaur egunerainoko prozesua. Egindako lan honekin adierazi nahi dena da posible dela amankomuneko puntu batera iristea, nahiz eta bakoitzak esperientzia eta ideologia ezberdinak izan. Maite den bat pertsona bat galdu dutenek antzeko sentimenduak izaten dituzte, eta beharrezkoa da horren inguruan hitz egitea, tabua den gai bat normaltasunera eramateko.

4.2. Elkarrizketak

Su/aminetik Bakera esperientziaren inguruan gehiago jakiteko erarik onena bertan parte hartu duten pertsonekin elkarrizketak egitea izan da. Hiru pertsona izan dira elkarrizketatuak; Iñaki Peña, ekimenaren sortzailea; Olatz Etxabe, Guardia Zibilek bere aita erail zuten; eta Sandra Carrasco, bere aita ETak erail zuen.

IÑAKI PEÑA: SU/AMINETIK BAKERA EKIMENAREN BULTZATZAILEA

Iñaki medikua da profezioz eta batez ere adineko jendearekin ibiltzen da zainketa aringarriak egiten, minbiziarekin, alzheimerra eta gaixotasun kronikoekin, beraz esan daiteke profesionalki heriotzarekin harreman estua duela.

2013an doluari buruzko lehenengo dokumentala egin zuen “Aulki Hutsak” deiturikoa eta bertan dolua jorratzen da orokorrean, baita gaixotasunekin ere. 2017an Su/aminetik Bakera aurkeztu zuen, doluari buruzko bigarren dokumental bat baina indarkerian zentratua eta bi protagonistekin bakarrik. Gaur egun hirugarren proiektu bat aurkeztekotan dago, media eta doluarekin lotuta, horrela doluaren trilogia amaitzeko.

Su/aminetik Bakera ekimena planteatzea eta martxan jartzea

Iñakik arrazoi bat baino gehiago izan du proiektu hau martxan jartzeko. Lehenengoa, izango litzateke “Aulki Hutsak”en ez zutela biolentziaren gaia plazaratu, baina asmoa izan zuten. Bera zerbait egiteko gogoekin geratu zen, eta azkenean *Gogorak* egindako ekimen horretatik piztu zen ideia. *Gogora Institutuak* Arrasateko bi emakumeei eginiko elkarrizketak irakurri zituen, Olatz eta Sandrari eginikoak, eta liluratuta geratu zen.

Urteetan zehar Arrasaten ibili da lanean eta ezagutzen zuen Etxabetarren istorioa, eta gero Sandrarena ere, Isaias Carrasco berak lan egiten duen ospitalera eraman zutelako hil zutenean, gainera ETAREN azken atentatua izan zen eta denek ondo gogoratzen dute.

Azken arrazoi nagusia, bere bizipena askatzeko eta berari buruz zerbait esateko gogo pertsonala zen. Su/aminetik Bakeraren interesa dolu prozesuarena da, ez da ideologietan sartzen, edo ez dira azaltzen zergatiak. Baliteke pertsonalki interesa izatea, baina obrarako ez. Bereziki kontuz ibili ziren distortsioa zor zezaketen elementuak kentzen. Hortaz gain, interesgarria iruditzen zaio gauza bakoitza gertatu zenean norbera non zegoen jakitea; adina, egoera, ideologikoki nola erantzun zuten atentatuak gertatzean, etab.

Aitor Monje (obrako musikaria) eta Iñakik hausnarketa pertsonal bat egin zuten; bakoitza biografikoki nondik zetorren, eta oso aberasgarria izan zen normalean lagunen artean ez delako horrelako gauzei buruz hitz egiten, edo oso jende gutxirekin hitz egiten delako.

Alde ideologikoa alde batera utzi nahi da eta biktima eta beraien prozesuan zentratu, beraiek sentitzen dutenari buruz hitz egiteko.

Egindako hurbilketa orokorretik konkretura izan da, heriotzaren fokoa zabal-zabalik izatetik, beraien bizipen konkretuetara jo da. Obra honen sortzaileen tesietako bat da, doluak ezberdinak direla, baina badaudela gauzak amankomunean. Gainera, jasotzen duten mezua da ideologikoki ezin direla biktimak konparatu, ez dutela zerikusirik, baina ez daude batere ados horrekin, emozioak eta sentimenduak oso komunak direlako. Iñaki, zaintza berezietako mediku modura, ikusten du heriotza ezberdinen artean amankomunezko puntuak daudela. Heriotza izan minbiziak eraginda, alzheimerra, istripu batek edo suizidioak.

Iñakik gurasoak minbiziagatik galdu zituen, biak, tokatzen zitzaionean baino lehenago, eta Aitorrek bere aita ere bai. Horrek harira, umezurtzatasunaren inguruko hausnarketa egin dute. Horrela bi seme bi alabengana hurbildu dira.

Horrelako pausu bat emateko ausardia behar dela esaten diete, baina ausardia baino gehiago beraiek legitimitate hori ikusten dute, beraiek ere gurasoak galdu dituztelako, beste era desberdin batean, baina dolu batetik pasa dira, eta min horretan amankomunean dauden hainbat gauza ikus daitezke.

Eramandako prozedimendua

Eramandako prozedimendua Iñaki eta Aitorrek bizitza pertsonalari buruz egindako hausnarketekin hasi zen, eta ondoren biktimengana hurbildu ziren. Pare bat ordu inguru egon ziren bakoitzarekin, proiektuari buruz hitz egin eta zer nahi zuten eta zer ez azaldu zieten.

Abiapuntua *Gogora Institutuak* egindako elkarrizketak dira. Gauza batzuk aldatu eta beste puntu batzuk gehitu dira, baina ez zuten ezer forzatu nahi. Nolabait egindako beste modu batean errepikatzea izan da. Beraz, %80a lortutako elkarrizketak izan dira eta gainontzeko %20a gehitutakoa izan da. Hausnarketak egiten dira heriotzarekin orokorrean, indarkeriarekin, mundu mailan gertatutako beste eraiketa batzuen inguruan... eta hori dena jaso nahi izan da.

Ikus-entzunezkoaren zatia dokumental bat egitea bezala izan zen, muntaketa egin, beste elementuak gehitu eta puzzle bat egin. Gero zuzeneko emanaldiak kontu handiz egin dira. Ez dira asko egin, guztira 13-14, baina une oro jakiten zein zoru zapaltzen zen, gaiak

delikatuak direlako. Ez da “Aulki Hutsak” bezala izan, bertan aulkiak mugitzen ziren, oraingoan funtzionamendua errazagoa da, nahiz eta gaia tabua izan.

Lanaren helburua

Obraren helburuari helduz, egileek badakite “Bakea” oso kontzeptu zabal dela, eta hitz horrekin bakoitzak gauza bat ulertzen duela. Badago tesi handi bat, beraien lankide batena, horrela dio: “Zer eskatzen diezu zure agintariei; bakea edo garaipena? Bakea eskatzen baldin badiozu prest egon behar zara zurea den zerbait galtzeko; eta garaipena eskatzen baldin badiozu, beste toki batera begiratu behar duzu, garaipen hori lortzen den bitartean gauzak gerta daitezkeelako, adibidez, torturak edo erailketak., eta abar. Tesi honek ondo islatzen du pertsona askok pentsatzen dutena eta egileek asko erabiltzen dute.

Bakerako bide asko daude eta obra honen bidez, egindako planteamenduarekin, hondar aletxo bat gehitzen dute. Biktima modura bi pertsona bakarrik ateratzen dira, eta kontuan hartuta zenbat biktima dauden, zenbat pertsona hil diren euskal gatazkaren ondorioz, eta horien senideak, biderkatuz gero, oso zifra handiak irteten dira. Hori hemen bakarrik. Beraz, horietatik bi pertsona bakarrik aukeratu izanak ikuspuntu txikia ematen du, baina beste kontestu orokorrago baten sartzen saiatu dira. Nolabait dolu eta ikuspuntu guztiak ezberdinak direla plazaratu nahi da, baina ez erabat desberdinak, azkenean gauza asko daudelako amankomunean.

Adibide bezala, bigarren emanaldia Bartzelonan egin zen (gainontzekoak Euskal Herrian). Oso polita izan zen, narratzaileetako bat Robert Manrique izan zelako, Hipercorreko atentatutik bizirik irten zen pertsonetako bat. Bera oso sartuta dago terrorismoko biktimen elkarteetan jendea laguntzen. Bigarren narratzailea “Aulki Hutsak” Huesca aldean egin zen emanaldi batean ezagutu zuen Iñakik. Ordurako dolua eta indarkeria uztartuz zerbait egiteko ideia zuen buruan eta ezagutu berri zuen pertsona honek, Iñaki inoiz proiektu hori burutzera heltzekotan, berarekin kontatzeko esan zion, Kataluniako testigantzak lortzeko aukera izango zuelako.

Hau martxan jarri zenean, gidoia katalanera egokitu behar izan zen, lana euskaraz dagoelako, Sandraren zatia izan ezik. Hortaz, Sandraren zatia zegoen bezala utzi zen eta euskaraz zegoena katalanera itzuli zen.

Egileen zalantza zen Arrasateko bi bizipenek zer nolako eragina sor zezaketen Bartzelonan. Hain toki ezberdinak izanda, bata 24.000 biztanleko herri bat eta bestea 3.000.000ko hiri bat, zalantzak egon ziren, baina hala ere, pila bat gauza egon ziren amankomunean.

Bartzelonako emanaldia 2018 hasieran egin zen, eta garai hartan politikoki kristoneko tentsioa zegoen. Egoera oso kurioa izan zen; Euskal Herritik joandako talde txiki bat bakearen inguruko gauza batzuk planteatzen, orain arte beti alderantziz izan denean. Dena inbertitua izan zen, oso bitxia.

Bertara joan eta horrelako aportazioa egitea oso positiboa izan zen sortzaileentzat, baita eraikitzailea ere.

Trauma eta doluaren arintzea

Lan honekin trauma eta dolua arintzea edo hobetzea espero da. Jendea doluei aurre egiteko garrantziaz jabetu nahi da, bertatik pasatu behar dela, oso bereziak direla, baina berdin-berdin egin behar direla. Eta ez du esan nahi zure ideologiari uko egin behar diozunik, ezta gutxiago ere. Egileek hau egitearren ez du esan nahi ideologia konkretu batekoak direnik, horrek ez du axola, berdin da beraiek zer pentsatzen duten. Garrantzitsuena biktima eta bere bizipena dira eta egileek humanitate ikuspuntutik egiten dute lan. Beraien aburuz, bihotzetik pentsatzen duzunean beste gauza distortsionante horiek desagertu egiten dira eta pertsona bat ikusten duzu zure aurrean.

Prozesuan baliagarria eta baztertzekoa dena

Doluaren prozesua ez da ibilbide erraza, eta bertan, alde guztietan bezala, pertsonaren alde edo kalterako izan daitezkeen faktoreak daude. Elkarte baten baldin bazaude, adibidez biktima elkarte baten, edo preso senideen elkarte baten, abantaila batzuk dituzu. Abantailak dituzu; talde babesa, baliabide anitzak, aholkularitza juridikoa, eta abar. Baina praktikan, Iñaki Peñaren aburuz, elkarte hauek lobby moduan funtzionatzen dute, lobby politiko eta ideologikoak. Biktimaren samin hori beste helburu politiko batzuk lortzeko erabiltzen da. Pertsonak pena emateaz baliatzen dira, badakite egoera horretan inork ez diela ezer esango, eta era horretan beraien alderdietarako abantailak lortuko dituzte. *Etixeraten* ere gauza bera gertatzen da. Orduan, ikusten da pena hau

errukitik urrun kokatzen dela, zerikusirik ez duen beste gauza bat da. Biktimen elkarreetan egon diren hainbatek berdina esaten amaitzen dute, eta ez zutela beraien burua horrelako talde batean ikusten. Gainera, horrelako elkarten parte izatean, biktima rol horretan geratzen dira, edo nagusiki behintzat, eta biktimek hori bera baino gehiago izateko eskubidea eta nahia dute. Biktima izateaz gain, alaba, ama edo profesionala ere direlako. Argi dago, beti izango dutela biktima rola, baina nolabait beste rol berri batzuk pixkat gehiago nabarmentzea eta beraien bizitza aberastea ondo legoke. Hori modu bat da dolua egin eta bertatik irteteko. Rol horretan bakarrik gelditzen direnak, zuloan harrapatuta gelditzen dira, eta zuloan egotea dolua ez gainditzea da. Orduan, Iñakik, beste askok bezala, pentsatzen du elkarten dinamikek ez dutela laguntzen, horrelako elkarteek ez behintzat (AVT, adibidez). Azkenean gauza gutxik laguntzen dute pertsonalki aurrera irteten, pertsonalki aurrera egiteko askatu egin behar zara, libreki ibili. Bakoitzak bere prozesua egin behar du, eta gauza pertsonala da, dolu guztiak bezala.

Iñaki orokorrean jendea ez epaitzen saiatzen da bakoitzak bere historia duelako, baina sarritan zalantzak izaten ditu. Biktima batzuk beraien biktima rola erabiltzen dute abantaila pertsonalak izateko, adibidez, politikan sartzeko. Hori dela eta, benetan gustatuko litzaioke jakitea zer dagoen errealitatetik eta zer antzerkitik. Zalantzak ditu, ez dakielako benetan hain izorratuta dauden edo dena rol baten ondorioa den. Berak pentsatu nahi du gehienak ez daudela hain izorratuta, eta nolabait aurrera egiten ari direla.

Terrorismoko biktimen ingurua biktima bere rol horretan mantentzeko dago bideratua zulotik irteten lagundu beharrean: Eta beraien bizitza ahalik eta “normalen” egiten lagundu beharrean, biktima titulu horrekin mantentzea komeni zaie, beraien interes pertsonaletarako. Horrela dolua erabat tapatuta geratzen da, beste plano batean.

Minbizia izan, suizidio bat izan, edo atentatu bat izan helburua normaltasunera itzultzea da. Pertsonal sekula ez duzu ahaztuko bizitakoa, beti izango dute beraiekin, baina gizaki moduan aurrerapen bat eman behar da. Azken finean dolua transformazio bat da, dolua ondo eginda beste pertsona hobeago baten bilakatzen dira, pertsona batzuekiko enpatia hori sentitzeko gaitasuna dutelako.

Obran zehar enpatia hori pizteko ere alde bakoitzeko biktima bat aukeratu zen, hori azkenean oso pedagogikoa izan daitekeelako. Gaian zentratzeko aukera ematen du, bestela, alde bateko ikuspegia bakarrik emango balitz, hasieratik ikusleak osoa ez den

zerbait ikusiko luke. Bi alderdiak argi ikusteko, hasieratik esaten da Arrasateko emakume bat eta Mondragóneko beste bat izango direla, metaforikoki argi geratzeko.

Baliagarria dena prozesua modu indibidualean egitea da, horrek ez du esan nahi bakar-bakarrik egin behar denik, ahizpa, lagun on bat edo psikologo bat izan dezakete alboan. Kontuan izan behar da, elkarte guztiek dituztela psikologoak, baina Iñakik biktimei egindako elkarrizketak irakurri ondoren, etsipen handia sentitu zuen. Bai, lagundu nahi dute, baina gero ezustean sermoi politiko bat botatzen dute. Eta berdina alderantziz, *Etxeraten* badaude psikologoak, baina ez zaie interesatzen benetan pertsona aurrera ateratzea. Rol hori elikatu nahi dute.

Dolu gehienak posible dira bakarrik gainditzea, psikologorik gabe, baina hauek gogorrenak dira, orduan beste bide bat hartu behar da, adibidez, beste psikologo batekin, zaintza aringarrietako psikologoekin edo minbiziarekin ohituta daudenekin. Profesional horiek baliteke gehiago eman ahal izatea, urrutiagotik ematen den beste ikuspegi bat delako. Nolabait egiten dutena da erakartzea terrorismoaren mundu horretatik datorren pertsona beste mundu batera, eta horrela pertsona hori gizarteratzea lortzen dute.

Biktimen erreparazioa

Biktimen erreparazioaz eta beraiek erreparatuak sentitzeaz hitz egitea, Iñakirentzat, asko esatea da. Transformazio hori ikusi egiten da, gertaera eman zeneko adina, pertsonaren izaera eta bizitzeko eraren arabera, nabariagoa izango da, eta noski ofizialki biktima bezala kontsideratu badira edo ez.

Justiziaren sentimendua

Justizia egin dela sentiarazteari buruz, kasuaren arabera egin da puntu bateraino, baina oraindik falta da. Helburu horretara heltzeko bakearen prozesu sendo bat beharko litzateke.

Iñakik ikusten duena da ez dagoela interes handirik. Hau minoria baten interesa da, eta azken finean oso jende gutxiri interesatzen zaio.

Jende gehienak egoera gaitzen du, ezer ez gertatuko balitz bezala, ez dielako axola. Era horretan jardun dutenen zauriak gaizki sendatuta daude. Gai honen inguruan dagoen arduragabekeria nabaria da, politikoki tamalgarria, Iñakiren hitzetan.

Ekimenak biktimengan eragindako aldaketa

Su/aminetik Bakera ekimenak biktimenzat aldaketa suposatzen duela bistan dago. Olatz eta Sandraren kasuan, lehenengo ekitaldia Arrasaten egin zen eta jende asko elkartzea lortu zuten. Esan daiteke eragindako aldaketa nabarmena dela. Dolu sakonean egotetik, lortu nahi duten “normaltasunera” hurbiltzen doazela ikus daiteke.

Eusko Jaurlaritzaren balorazioa

Lanaren balorazioari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak *Gogoraren* lana baloratu zuen, baina obra hau konkretuki ez. Ez ziren ez aurkezpena, ez estreinaldira etorri, ez zuten inolako interesik erakutsi. Botereko erakundeetatik ez dute babesik lortu, pasotismoa ikusi dute. Arlo hau lantzen dutenak gutxi dira, eta hala ere ez dute interesik jaso.

Erren geratu dira, ze bai baina ez. Azkenean argi dago ez dela interesik egon, beldurra dago, ezjakintasuna, eta ez bada zerbait ezagutzen mesfidantza izaten horrekiko.

Instituzionalki erantzunik politena Arrasatekoa izan zen. Ateak ireki, diruz lagundu eta oso jarrera ona izan zelako.

Egindako lana ez da eremu makroetan aurkeztu, mikroetan baizik, hau da, udalerrietan. Era honetan helarazi nahi izan den mezua hobeto heldu da, errazagoa delako lan-taldeak sortzea.

Biktimak gizartearen aldetik

Biktimei dagokienez, beraiengana hurbiltzeko beldurra dagoela esango luke Iñakik, mesfidantza. Baita axolagabekeria eta nagitasun kolektiboa. Normalean jendeari kostatzen baldin bazaio doluan dagoen pertsona batengana hurbiltzea, askoz gehiago indarkeriaren ondorioz izan bada. Gizartean erruki eta enpatia falta dago. Iñakik ez du uste gaitasunik ez dagoenik, alderantziz, pentsatzen du gizaki guztiok dugula gaitasun

hori, baina kontua da ia benetan indartu nahi dugun ala ez. Hori garatzeko aukera dago edo ez, eta pertsona gehienek ez dute garatzen, eta hor gelditzen dira. Horrek ez du esan nahi gero pertsona horiek bizilagun moduan zintzoak ez direnik, ez da bateraezina.

Biktimek nola ikusten dute beraien burua

Biktimek beraien burua biktimaz gain, ama, alaba edo profesional modura ere ikusi nahi dute. Biktima papera ezagunena da gizartearentzat, baina beste paper bat da gainontzekoen artean. Horren beste aldean, beste mundua dago, telebistan agertzen dena. Bertan biktima rola besterik ez dute erakusten, eta tamalez batzuk benetan zuloan egongo dira.

Esan beharra dago oso kolektibo heterogeneoa dela, euskal gatazkaren alde bietan, baina bi mundu horietan badaude zenbait gauza amankomunean. Askok edo gehienek ez dute parekotasun hori onartu nahi, bestea “deabru” modura ikusi izan dutelako, eta ez bada enpatia sortzen da ez direlako elkar ezagutzen. Amankomuneko espazioak landuko balira, beste gauza bat izango litzateke.

Biktimen ikuspegia

Iñakiri gustatuko litzaioke jakitea biktimek nola ikusten duten bera, horren inguruan ez dute inoiz hitzik esan eta. Badaki eskertuta daudela, eta zeharka helarazi diote esker ona, baina inplizituki ez. Pentsatu nahi du positiboki gehitu diela eta eskertzen dutela beste pertsona batzuk horrelako enpatia eta ariketak egitea. Bera ohituta dago horrelako gauzeekin, medikua izanda oso sentsibilizatuta dagoelako orokorrean minarekin, baina zerbait gehiago eman ote dieten baieztatzea gustatuko litzaioke.

Gizartearen erantzuna

Orokorrean ikusi dutena izan da publiko gehiena ezker abertzalekoa izan dela, eta horregatik bakarrik oso pozgarria iruditzen zaio Iñakiri. Ez dira hainbeste iritsi beste mundura, baliteke estetikoki euskarazko produktu bat izatean, mundu abertzalera errazago hurbiltzea.

OLATZ ETXABE: ESTATUAREN ALDETIK ETORRITAKO INDARKERIA JASAN DUEN BIKTIMA

Olatzek 55 urte ditu eta orain dela 45 urte bere aita erail zuten, 1975eko urrian.

Gertaera

Bere aita politikatik kanpo zegoen, baina garai hartan ETAn sartuta zeuden bi anai zituen. Etxabetarrek jatetxe bat zuten leku apartatu batean Elorrio eta Arrasate bitartean.

Bere aita hil aurretik pare bat atentatu egon ziren, bonbekin, eta bera hil zuten egunean Oñatin Arantzazura bidean ETAk hiru Guardia Zibil hil zituen arratsaldean. Gauean, bengantza moduan beraien tabernara joan ziren eta aita hil zuten.

Olatzek orduan hamar urte besterik ez zituen. Egun horretan ez daki zein arrazoi dela eta, ezin zuen lorik egin, ohean zegoen zarata batzuk entzun zituenean. Jaitsi zenerako aita lurrean zegoen hilda, 18 tiro zituela. Egoera gogor horren ondorioz bere ama bere onetik aterata geratu zen.

Beste anai-arreba batzuk ditu, bera zen zaharrena, gero zortzi urteko neba eta lau urte ahizpa, beraiek ez ziren ezertaz ohartu, lo zeuden.

Gertaera horrekin beraien bizitza guztiz aldatu zen. Ezbeharra gertatu aurretik tabernan bizi ziren, mendian libre, baina gero aitona-amonen etxera joan ziren bizitzera.

Olatzen kasuan, hasieran ez zuen lorik egiten, gauetan amets gaiztoekin altxatzen zen eta oso gaizki pasatzen zuen. Gero, amets gaiztoak amaitu zireneko momentua iritsi zen, baina ordutik oso lo gutxi egiten du, ia ez du lorik egiten. Berak gorputzaren defentsa moduan ikusten du, lorik egiten ez badu, ez dituelako amets gaiztoak izango.

Amets gaiztoak izatea, eta gero lo egiteko ezintasuna izatea estres postraumatikoaren zeinua da: Funtsean pentsamendu intrusiboak izaten dira nabarmentzen direnak, hau da, gogamena ustekabean hartzen duten ideia iraunkorrak, eta horiekiko ez dago inolako kontrolrik, antsietate sentimenduak, aktibazio sensoriala gertakari traumatikoa gogoratzearekin, eta gehiegizko zaintza. Era berean, ez da arraroa berbizipen horrek arazoak sortzea loaren ziklo eta edukian. Amets gaiztoak arrisku gaiei buruzkoak izan daitezke, edo sinpleki, esperientzia berriro bizitzea. Flashbackek pertsonari trauma berriro bizitzea eragiten diote, hori berriro gertatuko balitz bezala (Gaborit, 2006).

Urte asko pasa dira eta horrekin bizitzen ikasi dute. Horren ondoren, modu batera seme-alabek zorrea izan dute, ama eta amonarekin batera, azken hau oso emakume sendoa izandakoa, nahiko bizitza ona izan dute. Maitasunean eta babestuta bizi izan dira.

Bere aita herrian oso estimatua zen, lasaia zen izaeraz eta jatorra. Alde guztietako lagunak zituen, eta babesa beti sentitu dute. Urteak igaro ondoren oroitzen dira, eta beti izan dute herriaren babesa.

Olatzek ikastolako txikitako lagunak mantentzen ditu, ostiraleko elkartzen dira. Gertukoaren babesa sentitu duen bezala, instituzioen aldekoa falta izan zaio.

Sentimenduak

Olatzek sentitzen du gertatutakoarekin denerako heldutasuna hartu duela. 45 urteetan zehar gauzak analizatzeko denbora nahikoa izan du eta horrekin bizitzen ikasi du. Baina aita faltan somatu izan du bizitzako egoera askotan, momentu garrantzitsuetan ez da hor egon, bere alaba jaio zenean, adibidez.

Gertatutakoaren harira, heldutasuna lortzea edo independentzia dolauren faktore psikologikoen eta pertsonalen parte da eta dolua gainditzearekin positiboki erlazionatuta dago (Pacheco, 2003). Olatzek jasandako galerak, helduagoa izatera eraman zuen.

Ardurak

Gehien arduratzen diona dolua egin ote duenaren zalantza da. Olatz anai-arreben artean nagusiena zen, beraien ama hasieran emozionalki oso gaizki egon zen, jota. Orduan, Olatzek gogorra izan behar zuela esaten zion bere buruari, horretarako bere sentimenduak gordetzen zituen. Hasiera batean negar asko egitekoa zen, baina iritsi zen momentu bat non ezin zuen negar egin bere neba-arrebek horrela ez ikusteko. Negar ez egitea asko barneratu du, hori dela eta, gaur egun ezinezkoa egiten zaio negar egitea, kosta egiten zaio. Bizitzan negar egiteko momentuak tokatu zaizkio eta ezin izan du negar egin. Negar ez egitea babes modura jarri zuen, besteek bera sufritzen ez ikusteko, eta horrela mantendu izan da orain arte. Loia eta negar ez egitea izan dira ondorioak.

Negar egitea eta pena hori sentitzea saihesten zuen Olatzek, emozio sakon baten edozein saihestek pertsona babesten du traumarekin loturiko aktibazio

psikofisiologikoarengandik. Hala ere, saiheste jokaera asko pertsonen kontzientziatik at kokatzen dira, ez dira ohartzen egiten ari direla (Gaborit, 2006). Momentu batean saiheste ariketa egin zuenez, orain bere gorputza ez da gai lehengora bueltatzeko.

Instituzioetako babesak

Instituzioetatik jasotako babesari dagokionez, urte pila batean ezer ere ez. Udal mailan zerbait, baina ezer nabarmentzekoa. Duela hamar urte Eusko Jaurlaritza kontaktuan jarri zen beraiekin, gobernuan biktimen sail bat zegoela esanez. Orduan gure historia jaso zuten.

Orain Eusko Jaurlaritzak biktimatzen hartzen gaitu, baina ez gaude onartuta (biktima modura). Azkenean, beraien aita 18 tiroekin hil zuten, eta inon ez dago hori jaso. Eusko Jaurlaritzak badu jaso bere artxiboetan, baina ez daude biktima bezala onartuta, eta gaur egun aitoren hori oraindik ez jaso izana zerbait mingarria da.

Instituzioetatik babesik ez jasotzeak, bigarren mailako biktimizazioa eragiten du. Biktimak babesak behar du, eta babes hori jasotzea espero duen lekuan, ez du ezer jasotzen. Erantzun negatibotzat ere jo daitezke instituzioen alderik erantzunik ez jasotzea (Bernal, 2012).

Hiltzailearen identitatea

Momenturen baten ere ez dute jakin zein Guardia Zibil izan zen beraien aita erail zuena, horren inguruan ez zen ikerketarik egon. Badaude artxibo batzuk Ferrolen, “Secretos de Estado” delakoa, han gordetzen dira horrelako gauzak. Zerbait gertatu eta hurrengo 50 urteetan gorde daitezke. Zerbait egin zen bere garaian, baina ez zuten lortu.

Aitaren espedientea eskatu zuten bere garaian zer jaso zen jakiteko. Aita hil eta handik 15 egunera amari autopsiaren faktura pasa zioten, ordaindu zen, baina autopsia bera ez zuten jaso. Beraiek duten dokumentu bakarrean jartzen du aita *shock* batengatik hil zela, “Causa de la muerte: shock”.

Bazekiten beraien aita ez zela *shock* batez hil, onarpena behar dute zauri hori ixteko. Oraindik zauria hor dago.

Biktima mota bat izateagatik, hau da, Guardia Zibilen biktima, interes falta igarri dute. Nahiz eta herriaren eta bizilagunen babesa jaso, instituzioetatik abandonatuak sentitu dira. Ikusten dute nola beste biktima batzuk, ETarenak, esate baterako, oso babestuak sentitu diren heinean, beraiek bigarren mailako biktima moduan katalogatu direla.

Bigarren mailako biktimizazioa sistema sozialak biktimari ematen dion erantzun negatiboa da. Egoera honek ondorio psikosozialak eragin ditu biktimetan eta beraien familietan, askotan berreskuraezinak. Biktima erasotua sentitzen da eta bere biktima papela berriro bizitzen du, baina kaltea berak laguntza eta errespetua jasotzea espero duen instituzioetatik ematearen gehikuntzarekin (Bernal, 2012).

Inguruko babesa

Ingurutik jasotako babesa oso gertukoa izan da, gainera ezberdin pentsatzen zuten jendea ere hurbildu zitzaien, abertzaleak ez zirenak, adibidez. Beraien aitak errespetua pertsona modura lortu zuen, hortaz, politikoki desberdin pentsatzen zuten pertsonak ere hala ikusten zuten.

Olatzek pertsona nagusiekin egiten du lan egoitza batean, eta bertara joaten diren batzuk bere aita ezagutu zuten. Ohartzen direnean bere aitaren alaba dela, ezagutzen zutela esaten diote, nahiz eta jakin pertsona horiek politikoki beste ideia batzuk dituztela. Aita pertsona moduan ikusten zuten, eta garrantzitsua da beraientzat.

Ahultasuna

Horrelako egoera bat bizi ondoren, bere garaian Olatz ahul eta zaugarri sentitzen zen, hamar urte nituen, baina jada urte asko pasatu dira. Daukan oroitzapena da oso ahul sentitzen zela eta edozer gauzarekin negar egiten zuela. Urte batzuetan oso sentikor egon zen, gero pena horrekin bizitzen ikasten zuen, eta egoera berri horretara egin zen. Heldutasuna hartzen joan den heinean, horrekin bizi egin du.

Horrelako esperientzia latza bizi ondoren, mina gainditzeko beharrezkoa dolu prozesu bat egitea. Olatz orain dela 10-15 urte hasi zen dolua egiten. Ordura arte tapatuta zegoen zerbait zen, familian ez zuten gertatutakoari buruz hitz egiten, edo egitekotan, oso gutxi. Amak aitarekin egindako gauzak kontatzen zituen, baina gutxi.

Dolua lantzea

Orain dela 45 urte ez zegoen laguntza eskatzeko ohiturarik, ez psikologo, ez psikiatra. Beraz, bakoitzak bere dolua bere erara egin zuen, bere anai-arrebak oso gazteak ziten eta aita gabe bizitzera ohitu ziren. Etxean ez dute inoiz hitz egin politika edo aita nola hil zuten erari buruz.

Denbora pasa ahala, bakoitza bere aldetik laguntza eskatzen hasi zen, Olatz psikiatra batenera joan zen ez zuelako lorik egiten, bakoitza bere erara joan zen lantzen, baina urte asko pasa ondoren, 30 inguru. Azkenean dolua egiten hasi arte hainbeste urte pasa izanak faktura pasatzen du, Olatzek lehenago edo beranduago dolua egin behar dela dio.

Benetan balio duena

Dolua egiteko eta aurrera joateko, Olatzen iritziz egindako denak funtzionatu dio. Egin dituen ahalegin guztiak, borondatez egindakoak eta borondatez eginak izan ez direnak. Adibidez, *Gogora Institutuaren* ekimena eta Iñakiren proiektua beregana hurbildutakoak izan dira, ez dira izan berak bultzatutakoak. Baina, hala ere, lagungarria izan da berarentzat. Hausnartu ondoren, esperientzia hori ondo etorri zaio bere dolua eguneratzeko, nahiz eta berak ez bilatu.

Ekimenean bata bestearen aurrean jartzea

Obran bata bestearen aurrean jarri eta gertatutakoa kontatzeak, balio izan die konturatzeko sufrimendua ez dela alde batean bakarrik egon, beti pentsatu izan duten bezala. Egoera horrek denek sufritu dutela ikusteko balio izan die. Biak dira biktimak eta sentimendu berdinak izan dituzte. Sentimenduak eta biktima egoera berdina dela ikusteko politika traba bat izan da. Gainera, inguruko elkarteek beraiek erabili izan dituzte, baita politikak, helburu propioetarako.

Gizartearen aldetik, Olatzi pena ematen diona da gazteek historia ez jakitea, gertatu izan dena ez ezagutzea, ez landu izana.

Su/aminetik Bakera ekimenaren parte izatea

Iñakik Su/aminetik Bakera ekimenean parte hartzeko eskatu zion Olatzi, eta azken honek ez dakit ezetz esaten. Lan hau martxan jarri aurretik, Olatzek Sandrarekin batera *Memoriaren Plaza* egin zuten, *Gogora Institutuak* bultzatutako ekimena, eta Iñakik hori ikustean dokumentala egitea pentsatu zuen. Olatzek *Gogora Institutuarekin Memoriaren Plaza* egin aurretik ez zuen beste ezer egin dolua lantzeko.

Estilo honetako ekimenetan parte hartzea liberazio modu bat izan da Olatzentzat, pisua kendu du gaineratik. Gertatutako kontatzen joan ahala, horrek pentsaraztea eskatzen dizu, zer esan, esan beharreako landu, ideiak ordenatu, atzera joan, barruak astindu. Egindako denak beti lagundu dio barrukoa ateratzen.

Iñakik egindako lan guztia eta gero, Olatzek eskerrak eman nahi dizkio, esperientzia hori lagungarria izan delako bere bizitzan dolua lantzeko, nahiz eta jakin oraindik ez dela amaitu. Uste du ez dela amaituko, ez behintzat onarpena lortu arte. Zintzilik dagoen zerbait da.

Onarpena

Onarpen edo aitortza hori, ez daki momenturen baten iritsiko ote den, baietz pentsatu nahi du. Hori lortzea etapa bat ixtea izango litzateke. Nahiz eta Eusko Jaurlaritzak beti kontutan hartu, ez dute biktima izaera lortu. Plus bat falta zaie, lekukotasunarena, besterik ez dagoelako, baina era horretan behintzat biktima izango lirateke instituzioen begietara. Hori garrantzitsua da beraiantzat.

Bere ustez biktima moduan egiteke duten lana pedagogikoa da. Gertatutakoa kontatu, bereziki gazteenei, horrelako egoerarik bizi ez dutenei.

Olatzek bere burua

Gaur egun Olatzek bere burua beste dolu batean sartuta ikusten du. Zaharren egoitzan egiten du lan eta Covid-19aren birusa dela eta, beste dolu bat egitea tokatu zaio, birusa barruraino sartu delako. Nahiz eta bere familiakoak ez izan, kristoneko sarraskia izan dute eta hori digeritzen dago orain. Orain buruan ez du beste gauzarik, oso momentu gogorra bizitzen ari bait da.

SANDRA CARRASCO: ETAREN INDARKERIA JASAN DUEN BIKTIMA

Sandra Carrasco Isaías Carrascoren alaba da, Arrasateko alderdi sozialistako zinegotzia, eta 2008ko martxoaren 7an ETAk erail zuen.

Gertaera

Martxoaren 7a egun arrunta zen, Sandra esnatu ondoren errekadu batzuk egiteko prestatzen hasi zen. Denbora batera etxera itzuli eta aita agurtu zuen, Arrasateko autopistara zihoan lanera. Zerbait lehenago elkarrizketa txiki bat izan zuten eta agurtzean buelta eman eta irribarre batez joan zen. Handik segundo gutxitara, suzirien moduko zarata entzun zen, horrelako hiru entzun ziren. Bere ama zuzenean atetik irten zen eta bera leihora hurbildu eta aita kotxetik nola irteten ari zen ikusi zuen. Momentu horretan kotxetik irteteko espazio gutxi utzi zuela pentsatu zuen, eta hori dela eta gehiago tardatzen zuen. Beraz, barre egin eta erlaxatu egin zen.

Aitak pausu batzuk eman eta lurrera jausi zela ikustean telefonoa hartu eta laguntzera irten zen, bera eta bere ama aitaren alboan egon ziren, laguntzen edo ahal zutena egiten, azken finean ikusten ez ziren zauriak zituen eta. Anbulantzia heldu zen, erreanimatzen saiatu ziren, baina ezin zen ezer egin, zauriak oso larriak ziren, eta ez ziren hiru tiro izan, bost baizik.

Sentimenduak

Momentu horretan pelikula baten egongo balitz bezala sentitu zen Sandra, ez zen kontziente gertatzen ari zenaz, gertatzen ari zenaren larritasunaz. Shock egoera zegoen. Egoera hori heriotzaren ostean ematen da, eta sintomak erreakzio afektibo eza, apatia eta urduritasuna dira (Echeburúa et al., 2005).

Lehenengo egunetan ez zuen negarrik egin, kontziente izan gabe jarraitzen zuelako. Gainera, jendeak asko babestu eta berarekin kontaktatzen zuen, eta horrela deskonektatuta sentitzen zen. Baina gero, asteak eta hilabeteak pasatu ziren eta dena ahazten joan zen. “Hor egongo naiz” moduko hitzak ahazten joan ziren eta bakarrik aurkitu zuen bere burua.

Beldur ezberdinak izaten hasi zen, adibidez kotxea hartzerako orduan, Ertzaintza joan behar izan zen kotxea begiratzera ea bonbaren bat jarrita zuen ikusteko. Goizeko 6etan lanera joatean beldurra sentitzen zuen.

Mesfidantza ere sentitu zuen, ez zen inortaz fio, ez zekien ia norbaitek traizionatu ote zuen, denbora osoan behatua sentitzen zen eta mundu osoa bere aurka joango balitz bezala. Hori dela eta, amorru sentimendu bat sortu zitzaion eta segurtasun falta beldurraren ondorioz.

Asko kostatu zitzaion bertatik irtetea, amorrua sentitzen zuen, etxean aspertuta zegoenean ordenagailuan gertatutako bilatzen zuen, herritik zehar jarritako pankartak kentzen zituen, *herrikoetara* joaten zen zirikatzen... Biktimak bere burua haserrekor erakustea estres postraumatikoaren zeinua da: bizirauten duten pertsonak, haserrekor erakusten dute beraien burua, eta ez dira gai ikusten sentimendu horiek kontrolpean mantentzeko. Indarkeria hori beste pertsona batzuei zuzendua izan daiteke (Gaborit, 2006).

Denbora batera mundu abertzaleko pertsona batekin hasi zen hitz egiten eta berarekin orduak igarotzetik aurrera, ohartu zen bera ez zela gaizki pasatzen zuen pertsona bakarra, bazegoela beste inguru bateko jendea berak sufritutako berdina sufritu izandakoa. Ordutik, bere prozesua egiten hasi zen, eta gaur egun esan dezake ez duela inolako amorru, ez beldur, ez mesfidantzarik sentitzen. Hasieran berak zituen sentimendu guztiak joan egin ziren. Mundu abertzaleko pertsona horrekin eta laguntza psikologikoarekin.

Buelta eman zion bere inguruari, eta gaur egun beste pertsona bat da. Horrek ez du esan nahi batzuetan amorru sentimendua sentitzen ez duenik, baina ez dago zerikusirik garai bateko edo gaur eguneko sentimenduen inguruan.

Gertatutako guztiak asko markatu zuen; lagunak galdu zituen, ez zuen kalera irteteko gogorik, ezer ez egiteko gogoia, eta horrela mina egiten zion bere buruari.

Baina, garai hartan, lau urte zituen neba bat zuen, eta amorru eta haserre sentimendua transmititu egiten ziren. Transmititzeaz gain, Sandrak sentitzen zuen gertatutako guztiarekin bere gaztaroa galtzen zegoela. Aurretik zuen bizitza nahi zuen, baina inoiz ez zuen aurretik zuen bizitza berreskuratuko, aitaren eta lagunak faltagatik eta gauza asko aldatu zirelako. Bazekien hori dena ez zela itzuliko, baina iritsi zen puntu bat non bere buruari argi esan zion bi aukera zituela, geldituta geratu iraganari begira, edo txipa aldatu,

aurrera begiratu eta bere adineko pertsona normal baten bizitza egin. Puntu horretara iritsi zenean Sandrak 25 urte zituen.

Jendeak galdetu izan dio ea nola hitz egin duen abertzale batekin edo ETako odoltsuenarekin. Sandrak pertsona horrek egin duena ahazteko eta pertsona moduan ikusteko ahalmena du. Gero etxera heltzerakoan pentsatzen hasten da eta bere buruari galdetzen dio ea nola hitz egin duen pertsona horrekin ezer ez gertatuko balitz bezala, pertsona horrek bere aitari egin dioten berdina egin duenean. Berak ez die pertsoneri amorruez begiratu nahi, pertsona moduan ikusi nahi ditu. Bakoitzak zer egin duen pentsatzen hasiz gero, ez duzu bizitza egiten, eta horrek ez du laguntzen.

Baditu lagunak ez dutenak berak egiten duena partekatzen, baina errespetatzen dute. Hala ere, Sandrak nahiago du inguru abertzaleko jendearekin hitz egin, ETak hildako pertsonen familiakoekin baino. Azken hauek arreta handia ematen duten pertsonak dira, albisteetan adibidez, eta hauek ikustean Sandrari amorruek handia transmititzen diote, horregatik ez du horiekin kontakturik izan nahi, etapa hori gainditu duelako.

Inguru abertzaleko jendearekin hitz egitean, hauek ez diote amorrurik transmititzen. Egia da bakoitzak bere amorruek duela bere bizipenen ondorioz, baina Sandrak badaki beraiekin hitz egin dezakeela, iritzi ezberdinak trukatu, beti errespetua mantentzen, berarentzat oinarritzkoa da.

Baina gero ETaren beste biktima batekin hitz egiterakoan ez dio berdina transmititzen. Bera ETako biktima izatearren, ez da behartuta ikusi nahi inguru horretako pertsonekin bakarrik erlazionatzeko. Ez dio onik egiten, amorruek besterik jasotzen duelako, ez du inolako aurrerapenik eragiten, iraganean harrapaturik geratu diren pertsonak dira eta bertatik bizi dira. Hortaz, ez die ezer gehitzen, berak etapa hori gainditu zuen, etapa horrek min handia eragin zion, bere gaztaroa kendu ere, eta ez du berriro hori bizi nahi.

Ardurak

Gertaeraren momentuan gehien arduratzen ziona horrek amaierarik ez izatea zen, beti beldur horrekin bizitzea, jendeak alde batera uztea, jendearen babes urria, etab. Gaur egun, gehien arduratzen diona gertatutako guztia ahaztea da, arazoa gainditzea eta ezer ez gertatuko balitz bezala jarraitzea. Hau gai oso serioa eta larria da, jende asko hil delako

eta horren ondorioz pertsona askori eragin diolako. Arazoa ez da joaten denarentzat, geratzen denarentzat baizik.

Beraiei gerta zitzaienean, ez zen aita erail izana, dolua egin eta ahal zen moduan konpontzea bakarrik. Jendeak ikusi ez duen guztia da.

Arrasaten, etxetik igarotzen ziren manifestazioak egin zizkieten, etxera joan zitzaizkien presoentzat dirua eskatzen, amari manifestazio bat egin zioten lanean ez hartzeko, eta beste hainbat gauza. Horrek denak pertsona ahultzen dute.

Hau ezin da berriro onartu, baina ezta gertatutakoa hain bizkor gainditu ere ezer gertatuko balitz bezala, pertsona askok sufritu dutelako eta familia osoak hautsita gertu direlako.

Instituzioetako babesa

Hasieran, albisteak ikusterakoan politikari denak inguruan agertzen ziren, baina gero hori irudi batean besterik ez da gelditzen. Lehenengo egunetan ematen den itxura da. Benetan lagundu diotenak aitaren lankideak izan dira.

Kostatu zitzaien laguntza psikologikoa izatea, hilabete edo hilabete eta erdi, biktimen elkartearen eskutik. Gasteizko psikologo batera eraman zituzten, eta bertara joaten ziren laurak; ama, Sandra, ahizpa gaztea eta neba. Lehentasunezko ordena jarraituz joaten ziren, hau da, ama Sandra baino okerrago egoten bazen, ama aurretik zihoan; neba okerrago egoten bazen, ama, neba, Sandra eta gero bere ahizpa. Era horretan lasai asko hilabete asa zitekeen arreta psikologikoa jaso arte.

Hori aitaren lankideei kontatu eta berehala laguntza psikologikoa bilatu zieten, eta bakoitza profesional ezberdin batera joaten hasi zen.

Inguruko babesa

Hau dena gertatu zenean jendeak kalean gelditzen zuen, doluminak ematen zizkion, kartak jasotzen zituen, baina dena amaitzen joan zen.

Gaur egun, dokumentalen batean agertzen denean, jendeak Facebooketik bilatzen du, kontaktuan jartzen da berarekin eta animoak ematen dizkio.

Lagunei dagokienez, beste biktima batzuekin hitz egiten, konturatu da ez dela berari bakarrik gertatu zaion zerbait. Gertaera eman zenean Sandrak 20 urte zituen eta adin horretako neskatila baten bizitza ari zen egiten. Zinera joaten zen, lagunekin erosketak egitera, larunbatero Elgoibarrera, Eibarrera festara, eta alde guztietara lagunekin joaten zen.

Baina gertatutako guztia heltzean, hasieran bertan egon ziren, baina gero desagertu egin ziren. Garai hartan Sandra mutil batekin zebilen eta erlazioan zentratu zen, ez zuen ezer egiteko gogorik, eta norbaitek animatzea behar zuen. Bere lagunak desagertu egin ziren, ez zituen lagunak izan kafe bat hartzeko, ahulki baten eseri, hitz egin eta negar egiteko. Bere ingurua desagertu egin zen eta bere burua bakarrik aurkitu zuen, burbuila baten sartuta egongo balitz bezala.

Bakarrik negar egiten ikasi zuen, ez zizkion bere arazoak amari kontatu nahi, ama ez zuelako ondo ikusten eta ez zuelako larritu nahi.

Bere ingurua desagertu zenean behin eta berriz esaten zuen berak lehen zuen bizitza nahi zuela, bere lagunekin. Gero, ohartu zen horrelako gauzen heldutasuna lortzeko balio izan ziotela, bere burua gehiago baloratu eta esan “pertsona horiek nire alboan egon ez baziren merezi ez nindutelako izango zen”. Arazo horri garrantzia kendu zion eta jende berria ezagutzen hasi zen. Gaur egun ez dio ardura nor joan zen garai hartan, baizik eta nor etorri zen gero, geratzeko. Aldaketaz geroztik, orain benetako laguntasuna aurkitu du, gaizki dagoenean bertan daudenak, baita ondo ere, edo beste edozer egiteko. Horrekin geratzen da, askoz gogorragoa eta independenteagoa bihurtu duelako.

Ahultasuna

Lehenengo urteetan ahul sentitzen zen. Penarekin joaten zen alde guztietara, ezer ez egiteko gogoekin. Depresioarekin egon zen, hondoa jo zuen eta ez zuen etxetik irten nahi. Egun osoa negarrez pasatzen zuen eta amari galdetu zion ia ez zuen inoiz gehiago barre egingo. Beldurrez egiten zuen negar guzti honetatik irtengo ez zela ikustean. Zuloan sartuta zegoen eta ez zuen irtenbiderik ikusten. Ez zekien ez nondik hasi, ez zer egin, baina bertatik irteteko nahiak lagunduta ikasten joan zen.

Depresioa izatea estres posttraumatikoaren bigarren mailako erreakzioa da. Horrek adierazpen kognitibo, emozionala, konduktualak edo fisiologikoak izan ditzake.

Orokorrean, traumatizatutako pertsonen modalitate horietako hainbatetan adierazten dute depresioa. Depresioaren ohiko erak hurrengoak hartzen ditu: egoera letargikoak edo motorreko aktibitate eza, apatia sentimenduak edo esperantza gabekoak, konstanteak diren pentsamendu negatiboak, arreta jartzeko zailtasunak, jateko gogoaren galera eta nahasmenduak loan (Gaborit, 2006).

Dolua lantzea

Asko kostatu zitzaion dolua lantzen hastea, bere aitarenarekin batera beste hainbat gauza pilatu zitzaizkion eta. Kotxe istripua izan zuen, lagunik gabe gelditu zen, mutilarekin zuen erlazioa oso toxikoa zen, eta abar. Orduan, hori dena pilatu zitzaion eta hondoa jo zuen. Arrasate moduko herri baten bizitzea ere ez zitzaion erraza egin, presoan aldeko pertsona asko zeudelako eta ostegunero kontzentrazioak egiten zituztelako. Bere amorrua handiagotzen joan zen eta egun batean horrekin amaitu nahi izan zuen.

25 urte zituela ikusi ezin zituen pertsonekin gelditzen hasi zen, inguru abertzalekoa. Elkartzen hasi ziren, bata bestea entzuten, eta hori dela txipa aldatu zuen. Momentu horren ondoren dolua lantzen hasi zen. Orduan, ohartu zen ez zela bera mina sentitzen zuen bakararra. Konturatu zen mina berdina dela, entzuten hasi zen, enpatizatzen, besteen egoeran jartzen eta horrek indarberritu zuen. Entzuten eta gauzak ulertzen ikasi zuen. Bere egoera beste pertsonan islaturik ikusi zuen, nahiz eta beste gauza bat gertatu, sentimenduak berdinak dira.

Lehen ideologiaren arabera gidatzen zen, “zu GALekoa zara, ni ETA. Ezberdinak gara.” Baina ohartu zen ez zela ideologia kontua, pertsonen kontua baizik, tragedia eta galerak, pixkat dena hartzen zuela.

Orain berak erdua eman nahi du, munduari erakutsi nahi dio hitz egin daitekeela, entzun, errespetatu, aurrera joan eta elkarrekin bizi. Baliteke berari gehiago kostatzea galerak izan dituztelako, asko sufritu dute, hori dela eta beraiek dira mezu hori erakutsi behar dutenak.

Berak bidea hori dela uste du, eta asko eskertzen du jendeak berari idaztea, horrek esan nahi duelako gauzak ondo egiten ari direla, bide onetik doazela, eta hori da lortu nahi duena hitz egiten duenean, bestearekiko enpatia sortu.

Sandrari kanpoan eskuratutako babesak asko lagundu dio. Pertsona batek maite duen hurbileko pertsona baten heriotzari aurre egiten dionean gai da dolua ulertzeko. Bakarrik

denborarekin eta, galeraren minari aurre egin ondoren, gainditu egiten da, poliki, zarata handirik egin gabe, diskretuki. Behin prozesua amaituta, pertsona barnekoa eta intimoa den transformazioaz kontziente egiten da pertsona, eta baita harritu sufritu duenarengatik; aurreko egoera eta bizipenaren ondorengoa erraz desberdindu daitezke. Bere bizitzaren egunerokotasunean zituen planteamenduak zentzugabeak eta faltsuak iruditzen zaizkio (Pacheco, 2003).

Benetan balio duena

Sandrari bere pentsamendu berekoak ez ziren pertsonekin hitz egiteak lagundu dio. Hori izan zen hasiera eta horrek osatu zuen.

Ez diona funtzionatu geldi geratzea eta hain ezkorra izatea izan da, sentitzen zuen amorruan zentratzea, pankarta edo manifestazio bati garrantzia ematea.

Bere aita erail aurretik pankartek eta manifestazioek ez zioten kalterik egiten eta gertatutakoa gertatu ondoren horrela jarraitzea nahi zuen. Txipa aldatu zuen eta garrantzia emateari utzi, eta garai batean hainbeste min egiten zion horrek gaur egun ez dio axola.

Gogorrena ez zen bere aitaren erailketa izan, ingurua baizik; ez zion uzten aurrera egiten.

Gaur egun oraindik pixkat mintzen diona presoegi egiten zaizkien ongi etorriak dira. Beste biktima batzuekin horren inguruan hitz egin du eta berdin pentsatzen dute. Azken finean, beste pertsona batzuk hil dituzten pertsonak gorai patzen direlako. Adibidez, ez du uste pertsona bat bortxatu edo haur bat hil duen pertsona heroi bat izango balitz bezala hartu den. Ez du uste hilketak egin dituzten pertsonak heroiak izango balira bezala hartu behar direnik, omenaldiak egin nahi bazaizkie etxean egin daitezkeela pentsatzen du. Badaki etorkizun batean bere aitaren hiltzailea kartzelatik irtengo dela eta egoera berdinetik pasatzea tokatuko zaiola. Gaur egun hori da kaltetzen dion bakarra.

Su/aminetik Bakeran parte hartzea

Iñakik idatzi zion esanez interesatua zegoela eta berari interesgarria iruditu zitzaion, pentsatu gabe baietz esan zion. Gero, etxera heltzean lotsa eta beldurra sentitu zuen, pentsatuz agian ez zela gai izango nahi zuen mezua helarazteko.

Idea gustatu zitzaion, horrela jendeari transmititzea lortuko zutelako. Inguru ezberdinetako bi neska batera ikustekak bakarrik esanahi handia duelako.

Su/aminetik Bakera ekimenean parte hartzearen ondorioak

Oso positiboa iruditu zitzaion. Egin zutenean jende asko agertu zen, adibidez, institututik ezagutzen zuen jendea, ez zekien horrelako gauzetan interesa zutenik ere ez. Denek animo handiak eman zizkieten.

Askok gustatu zitzaion nola egin zuen Iñakik, esfortzu bat bait da, eta gaur egun jendea ez da horrelako gaietan murgiltzen, aldentuta geratzen ari da.

Horrelako gauzek egiten dutena da gertatutako gauzak ez ahaztea, bertan egotea, nahiz eta gauza txikiak izan.

Iñakirentzat hitzak

Iñakiri eskerrak emango lizkioke Olatz eta bera batera egoteko horrelako aukera bat ematearren. Azaltzeko, beraien historia kontatu, eta Iñakik jarritako esfortzu guztiarengatik. Badaki beraien direla hitz egiten dutenak, baina Iñaki asko dabil mugitzen hau jendeak ikusteko eta beraien eman nahi duten mezua transmititzeko.

Sandra gizartearen begietan

Sandrak uste du gizartean mezu positiboa uzten dagoela. Olatz eta berak ematen duten mezua aurrera joan daitekeela da, arazoetatik irten, heldutasunez hartu, zaila izan daitekeela, baina mezua transmititzerakoan jende askok txipa aldatzea lortu dute.

Orain dela gutxi mezu bat jaso zuen eta bertan esaten zuen pertsona hori burbuila batean sartuta zegoela, baina Sandra agertzen zen dokumental bat ikustetik, txipa aldatu zuela, asko lagundu ziola, arrazoia zuela esaten zuen guztian eta oso eredu ona ematen zuela. Mezu hori jasotzeko Sandra indarberritu zuen, hori delako egin behar dena, amorru eta gorroto asko ginetik kendu, hori guztia aldatu. Eta badaki hori lortzeko ez dagoela bera eta Olatz moduko eredu hobegorik.

Sandrak bere burua

Egun hartan zen pertsona, lehenengo urte horietan, egun osoa goibel egotetik, orain beste pertsona bat da. Dena hasi aurretik oso pertsona alaia zen, baina gero triste bizitzera pasa zen.

Gaur egun, bere adineko pertsona batek izan beharreko bizitza normala izatera iritsi da, bizitza berak bizi nahi duen bezala bizi du eta pertsona alaia dela uste du, positibotasuna transmititzen du eta ez du zerikusirik lehen zen pertsonarekin. Ez du uste norbaitek bera ikustean tristura transmititzen duen pertsona bat izatea, guztiz kontrakoa.

5. Ondorioak

Lan honen bidez aztertu diren bi biktimen bizipenak ezagutu ondoren, lehenik eta behin esan beharrekoa da gertakari horiek ezin direla onartu. Ezin da berriro gertatutakoa errepikatu.

Bakoitzaren esperientzia gogor ezberdinak iraganean ahaztuta ez geratzeko, memoria beharrekoa da. Beharrekoa izateaz gain, oso garrantzitsua da bertatik ikasi eta gaur egungo egoera hobetzeko. Iragana bertan utzi behar da, baina batzuetan komeni da gaur egunera ekarri eta behar bezalako arreta eman.

Gertaera traumatikoaren ondorioz biktima gizartetik aldendu arren, martxan jarritako politika eta ekimen ezberdinek biktima gizarteratzeko helburua izan dute, berriro gizartearen parte direla sentitzeko. Urteak aurrera joan ahala biktima gero eta presenteago dago, gizartearen parte da eta beharrezko garrantzia eta arreta eman zaio. Puntu horretara iristeko, lehenengo pausua onarpena da, eta elkarrizketetako baten ikusi den bezala, onarpen hori ez da beti ematen. Onarpena ez jasotzeak prozesua asko zailtzen du.

Pertsona bat biktima bihurtzen denean, eta gainera terrorismokoa, gizartea prest egon behar da pertsona horri ahalik eta arreta espezializatuena emateko. Beharrekoa da biktima babestea, eta babes hori emateko beraiei zuzendutako politika, programa eta ekimenak egon behar dira. Horrekin jarraituz, beharrezkoak dira ere biktimen alboan laguntzeko prest dauden pertsonak, hala nola, Iñaki Peña moduko pertsonak.

Biktimen egoera hobetzea ez da beraien kontua bakarrik, gizarte osoaren erantzukizuna da. Gizarte kontziente izan behar da hortaz eta lan egin gizarte elkartuago bat sortzeko.

Elkar lan egiteak ez du esan nahi bakoitzak bere ideologiari uko egin behar dionik edo gizartean banaketak egin behar direnik jasandako indarkeria motaren arabera. Pentsamendu ideologikoak alde batera utzi behar dira eta pertsonan zentratu. Gizarte osoa bere ideologian eta bakoitzak jasandakoan zentratuko balitz, amorruan biziko ginateke, eta era horretan ez dago aurrera joaterik.

Bizikidetza lortu nahi bada, gizatasuna, ondokoa entzuten jakin eta enpatia behar da.

Elkar laguntzearen adibiderik argiena hurrengoa dela iruditzen zait: kalean norbait lurrera erortzen denean ez zara fijasen zein ideologiatakoa den, berehala beregana hurbiltzen zara eskua eman eta lurretik altxatzen laguntzera, pertsonak elkar laguntzeko egon behar garelako.

Biktimen arreta psikologikoari dagokionez, nahiz eta hainbat programa egon, ez da behar bezala lantzen. Ondo legoke S(u/a)minetik Bakera bezalako inizatiba gehiago egotea, eta horiei balioa ematea, gizarte eta instituzio mailan. Horrelako inizatibek doluarekin loturiko behar psikologikoak asetzen dituzte, beste programa batzuk hain kontuan hartzen ez dituztenak.

6. Bibliografia


- Adi-adian Modulua. Hemendik berreskuratua: <https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/modulo-adi-adian/>
- Azurmendi, J. F. (2014). *ETA de principio a fin: Crónica documentada de un relato*. Donostia: Ttartalo.
- Bake eta Bizikidetzeta Plana 2013-2016. Hemendik berreskuratua: https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_convivencia/eu_def/adjuntos/600019e_Pub_EJ_Bake_bizikidetzeta_plana_e.pdf
- Batera Konpromezua. Hemendik berreskuratua: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos_paz_convivencia/es_def/adjuntos/Batera%20cas.pdf
- Bernal, C. et al. (2012). Causas y consecuencias del proceso de victimización en las víctimas del terrorismo. *Trabajo Social Hoy*, (67), 7-16 orr.
- Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana 2017-2020. Hemendik berreskuratua: <https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/libro/2017-2020rako-bizikidetzaren-eta-giza-eskubideen-plana-gizartea-elkartzea-helburu-enpatiaren-aldeko-hautua-plan-de-convivencia-y-derechos-humanos-2017-2020-un-objetivo-de-encuentro-social-la-opcion-por-la-empatia/>
- Burleigh, M. (2013). *Sangre y rabia. Una historia cultural del terrorismo*. Barcelona: Penguin Random House.
- Casanova, I. (2007). *ETA. 1958-2008: Medio siglo de historia*. Nafarroa: Txalaparta.
- De la Corte Ibañez, L., Kruglanski, A., De Miguel, J., Sabucedo, J. M., eta Díaz, D. (2007). Siete principios psicosociales para explicar el terrorismo. *Psicothema*, 19 (3).
- Echeburúa, E., Corral, P. y Amor, P.J. (2005). La resistencia humana ante los traumas y el duelo. En W. Astudillo, A. Casado y C. Mendiñeta (Eds.). *Alivio de las situaciones difíciles y del sufrimiento en la terminalidad*. San Sebastián. Sociedad Vasca de Cuidados Paliativos.
- Eraikiz Programa. Hemendik berreskuratua: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/-/eraikiz-programa/>
https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/6872/ERAIKIZ_CAST.pdf?1441983342
- Gaborit, M. (2006). Desastres y trauma psicológico. *Pensamiento Psicológico*, 2 (7), 21 orr. Hemendik berreskuratua:

<https://revistas.javerianacali.edu.co/index.php/pensamientopsicologico/article/view/39/114>

- Gertu Programa. Hemendik berreskuratua: https://www.ogasun.ejgv.euskadi.eus/r51-catpub/eu/k75aWebPublicacionesWar/k75aObtenerPublicacionDigitalServlet?R01HNOPortal=true&N_LIBR=051483&N_EDIC=0001&C_IDIOM=es&FORMATO=.pdf
- Gogora Institutua. Hemendik berreskuratua: <https://www.gogora.euskadi.eus/aa82-home/eu/>
- Icuza, I. (2018) “Krimenaren Fenomenologia”. Euskal Herriko Unibertsitatea EHU. Donostia, País Vasco.
- Jiménez, M. (2019). Las víctimas del terrorismo en España e Irlanda del Norte: dinámicas de selección durante los «años de plomo» y políticas de reparación. *Arbor*, 195 (792), 2-10 orr.
- La resolución 4034 de la Asamblea General de la Organización de las Naciones Unidas “Declaración sobre los Principios Fundamentales de la Justicia para víctimas del delito y del abuso del poder” (29 de noviembre de 1985). Hemendik berreskuratua: <https://www.ohchr.org/SP/ProfessionalInterest/Pages/VictimsOfCrimeAndAbuseOfPower.a.spx>
- Pacheco Borrella, G. (2003). Perspectiva antropológica y social de la muerte y el duelo. *Cultura de los cuidados*, 7 (14), 32-38 orr. Hemendik berreskuratua: https://rua.ua.es/dspace/bitstream/10045/1040/1/culturacuidados_14_05.pdf
- Portilla, G. (2001). *Terrorismo de Estado: los grupos antiterrorista de liberación (G.A.L.)*. Cuenca: Ediciones Universidad Salamanca.
- Real Academia Española. (2001). *Diccionario de la Lengua Española* (22.aed.). Hemendik berreskuratua: <https://dle.rae.es/terrorismo>
- Subijana, I. (2014). Víctimas, Memoria y Justicia (A propósito de la victimación terrorista). *Eguzkilore*, (28), 177-182 orr.
- Torres, H. (2010). El concepto de terrorismo de Estado: una propuesta de Lege Ferenda. *Diálogos de Saberes*, (33), 129-147 orr.
- 1/2015 Lege Organikoa, martxoaren 30ekoa, honako lege organiko hau aldatzen duena: 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodearena.

7. Eranskinak

Hau da ekimenaren portada.



Horrela irudikatzen dira Sandra eta Olatz ikus-entzuneakoan, bakoitza bere testigantza kontatzen.



ELKARRIZKETAK OSORIK

IÑAKI PEÑA

1. Zure burua aurkeztu.

Iñaki Peña naiz eta medikua naiz profezioz, batez ere ibiltzen naiz adineko jendearekin, bereziki zainketa aringarriak egiten ditut (cuidados paliativos) minbiziarekin eta gaixotasun kronikoak eta alzhemerrarekin. Profesionalik heriotzarekin harreman estua daukat. Eta gero beste fazeta bat, 2013an egin genuen dokumental bat doluari buruzkoa “Aulki Hutsak” izenekoa, eta dolua jorratzen du orokorrean, gaixotasunekin eta abar. 2017an Su/aminetik Bakera aurkeztu genuen, bigarren dokumental bat doluari buruzko baina indarkeriarekin zentratuta eta bi protagonistekin bakarrik, eta hirugarren proiektu baten nago aurten aurkezteko, mendiarekin eta doluarekin lotuta, horrela doluaren trilogia bat amaitzeko.

2. Zer da Su/aminetik Bakera dokumentala/lan-eszenikoa?

Zati bat grabatuta dago, etengabean pantaila baten proiektatzen dena eta aldi berean zuzenean bi narratzaile daude, joaten direla pixkat jositako gidoi hori tartekatzen pantailan dagoenarekin. Hor dago fondo moduan. Batzuetan narratzaileek egiten dute berba, eta tarteka protagonistek. Protagonistak irteten dira, Olatz eta Sandra, eta gero beste hirugarren pertsona bat dago eszenatokian, Aitor Muro (musikaria), eta berarekin batera egin dut, hor egoten da musika interpretatzen.

3. Zein momentutan planteatzen duzu honelako programa bat martxan jartzea?

Zer dela eta? Zer izan da hau burutzeran eraman zaituena?

Arrazoi bat baino gehiago daude. Lehenengoa, izango litzateke “Aulki Hutsak”en ez zutela biolentziaren gaia plazaratu, baina asmoa izan zuten. Bera zerbait egiteko gogoekin geratu zen, eta azkenena piztu zen ideia *Gogorak* egindako ekimen horretatik, irakurri zuten, Arrasaten egiten dut lan eta bertako bi elkarrizketa irakurri nituen, Sandra eta Olatzena, eta fazinatuta geratu nintzen. Urteetan egon naiz eta nago Arrasaten lanean eta ezagutzen zuten Etxabetarren istorioa, eta gero Sandarena, ze Isaias Carrasco berak lan

egiten duen ospitalera eraman zutenil zutenean, eta ETAREN azken atentatua izan zene ta denek ggoratzne dute indo. Eta pertsonalki pixkat gertuagotik ukitu zion.

Azken arrazoi nagusia gogo pertsonala zuen zerbait esateko berari buruz, beer bizipena askatzea. *Su/aminetik Bakeraren* interesa dolu prozesuarena da, ez da ideologietan sartzen, edo ez dira azaltzen zergatiak, pertsonalki agian interesa zaizkigu, baina obrarako ez. Bereziki kontzu ibili ziren elementu distorsionanteak kentzen, baina gero bakoitza non egon zen gauza bakoitza gertatu zenean oso interesgarria da; pentsatzea zenbat urte neuzkan, ze egoerean, eta ideologikoki nola erantzuten zuen atentatua gertatzen zirenean.

Eta Aitor eta berak hausnarketa pertsonal bat egin zuten, bakoitza nondik zetozen biografikoki, eta oso aberasgarria izan zen horregatik, normalean horrelako gauzei buruz ez delako hitz egien lagunen artean, edo oso jende gutxirekin hitz egiten delako.

Alde ideologikoa alde abtera utzi nahi da eta biktima eta beraien prozesuan zentzuru, beraien sentitzen dutenari buruz.

Egindako hurbilketa orokorretik konkretura izan da, heriotzaren fokoa zabal-zabalik izatetik, beraien bizipen konkretuetara. Oso orokorretik abiatzen dira. Beraien tesietako bat da, doluak ez berdina direla, baina badaudela gauzak amankomunean. Gainera esaten digute ideologikoki ezin direla biktimak konparatu, eta ni ez nago batere ados, ze emozioak eta sentikerak oso komunak dira, nahiz eta bakoitza alde baten egon, eta ez hori bakarrik, baizik eta ni mediku moduan eta zaintza paliatiboetan goten naizenez eta, zer dago amankomunean minbiziak eragindako heriotzarekin? Edo alzhemerrak? Edo istripu batek? Edo suizidioak? Orduan konturatzen zara,

Ideologikoki esaten digute “ez du zerikusirik, ezin duzu konparatu, “ eta gainera ez daukala zerikusirik gauza batek edo besteak, eta hori ez da horrela, hori edozein psikologok badaki ez dela horrela eta gauza eta are gehiago Aitor eta biak pertsona moduan hurbildu ginen Sandra eta Olatzengana. Nik biak galdu ditut, aita eta ama, minbiziagatik, tokatzen zitzairenean baino lehenago, eta Aitorrek ere bai bere aita minbiziagatik.

Guk hausnarketa horiek, umezurtzetasunarena, nahiz eta helduak izan, egin izan ditugu eta hurbildu gara bi seme bi alabengana. Azkenean horrelako pausu bat emateko ausardia izan behar dela esaten digute, baina ausardia baino gehiago legitimitate hori ikusten dugula, guk ere gure aita galdu dugulako, modu baten, desberdina, baina min horretan

zenbat gauza ditugu amankomunean? Eta legitimitate hori sentitzen dugu horregatik, sentitu dezakezu galera handirik izan gabe, noski, izan zaitezke pertsona bat oso reflexiboa, enpatia sentitzen duena erraztasunarekin eta formakuntza batekin, baina nik uste dut plus bat duzula benetan honetatik pasatu baldin bazara, doluetatik pasatu baldin bazara, eta kasu horretan gu pasatu gara.

4. Zein da eramaten duzun prozedimendua?

Aurre pausua izan zen Aitor eta biok egindako hausnarketa, gure bizitza pertsonalari buruz, eta gero hurrengo urratsa eurengana hurbiltzea izan zen, proiektua azaltzea, eta hori oso interesgarria zan zen, denbora pasatu genuen, pare bat ordu inguru bakoitzarekin, eta hau guztia azaltzen, zer nahi genuen eta zer ez. Gidoia oso antzekoa da *Gogoran* ekimen horretan irten zenarekin, hortik abiatu ginen, elkarrizketa horietatik (Goienakoak), eta azkenean gauza batzuk aldatu egin dira, eta beste puntu batzuk gehitu ditugu, baina ez gara asko aldentu, ez genuen forzatu nahi ezer eta behin egin zutena, nolabait beste modu batean errepikatzea izan da, eta %80a orduan esandakoa da, eta %20 guk gehitu dugu, eta irten denarekin, eta eurekin, eta hausnarketak egiten ditugu heriotzarekin orokorrean, biolentziarekin, mundu maila gertatutako beste erailketa batzuk, Irak edo gerra, Palestina eta Israelgo egoera, eta hori guztia josi egin dugu.

Ikus-entzunezkoaren zatia dokumental bat egitea bezala izan da, montaketa egiten duzu, beste elementuak gehitu eta puzzle bat egin,

Gero zuzeneko emanaldia, ez ditugu asko egin, guztira 13-14, eta kontuz joan gara, jakiten zein zoru zapaltzen genuen une oro, ze badakigu gauzak gertatzen direla. Ez da “Aulki Hutsak” bezala aulkiak mugitzea, errazagoa da, nahiz eta gaia tabua izan.

5. Zein da obraren helburua?

Badakigu “Bakea” oso kontzeptu zabal dela, eta bakoitzak gauza bat ulertzen du. Badago tesi handi bat, gainera nire lankide batena, eta nik uste dut pertsonak beste ikuspuntu bat dutela: zer eskatzen diezu zure agintariei: bakea edo garaipena? Bakea eskatzen baldin badiozu prest egon behar zara zurea den zerbait galtzeko, eta garaipena eskatzen baldin badiozu, beste toki batera begiratu behar duzu, ze garaipen hori lortzen den bitartean gauzak gerta daitezke, torturak, erailketak, eta abar, orduan prest egon behar zara beste

leku batera begiratzeko. Orduan hain ondo islatzen du pertsona askok pentsatzen duena, asko erabiltzen dudala.

Gure helburua bakea zehazki badaude bide pilo bat eta guk hau planteatzen dugu, hondar aletxo bat. Bi pertsona bakarrik ateratzen dira, kontuan hartuta zenbat biktima dauden (hauek biktimak baino gehiago dira, super bibenteak dira, biktimen senideak). Zenbat pertsona hil diren euskal gatazkaren ondorioz, 1000 pertsona inguru, eta zenbat senide, biderkatzen baduzu, 2000+3000... hemen bakarrik. Orduan, horietatik 2 bakarrik aukeratu izana ikuspuntu txiki bat da, baina saiatu gara beste kontestu orokorrago baten sartzen, nolabait esanez, dolu eta ikuspuntu guztiak ezberdinak direla, baina ez erabat desberdinak, azkenena gauza asko daude amankomunean, Israel edo Palestinan egon daitezkeen testigantza batzuekin, nahiz eta kulturalki oso desberdinak izan.

Adibide moduan, bigarren emanaldia Bartzelonan egin genuen eta beste guztiak hemen, Euskal Herrian. Oso polita izan zen, ze narratzaileetako bat Rober Manrique izan zen, Hiperkorreko atentatutik bizirik irten zen pertsona bat, oso sartuta dagoena terrorismoaren elkartean jendea laguntzen, oso interesgarria da bere ibilbidea, eta gero bestea nik ezagutu nuen "Aulki Hutsa" ken gatik, bera Huesca aldean egin genuen emanaldi batera etorri zen, eta nik jada buruan neukan zerbait egitea honi buruz, eta esan zidan inoiz egiten banuen berarekin kontatzeko, posible zuelako Kataluniako testigantzak lortzea.

Orduan hau martxan jarri genuenean, harremanetan jarri nintzen berarekin, esan nion berak aukeratzeko beste narratzailea, aukeran emakume bat, eta Rosa Juque, Ernest Juquen alaba bat aukeratu zuen.

Gidoia katalanera egokitu behar izan genuen, euskaraz dago, eta gero Sandraren gaztelerazko zatiak daude, orduan euskeraz zegoena katalanera pasa genuen.

Gure zalantza zen, Arrasateko bi bizipen Bartzelonan ia zer gehitu zezaketen, hain toki desberdinak izanda, baina jakina, 24.000 biztanleko herri bateko gertaerak eta egotea 3.000.000ko hiri handi baten, eta noski daudela gauzak amankomunean, pila bat.

2018 hasieran egin genuen, eta justu orain bizitzen ari den egoera, batez ere garai hartan, kristoneko tentsioa zegoen politikoki. Orduan oso kurioa izan zen, Euskal Herritik joandako talde txiki bat bakearen inguruko gauza batzuk planteatzen, beti alderantziz izan denean. Dena inbertitua izan zen, oso bitxia izan zen. Eta nire lagun bat etorri zen hangoa eta esaten zuen bake sentitzea gustatuko zitzaioela, baina suminduta zegoela gertatzen ari

zenarekin. Eta horrela da, beraiek suminean daude bete-betean, zorionez ez da egon biktima mortalik, gutxiengatik, baina biolentzia ikaragarria, fisikoa eta bestelakoa. Oso positiboa izan zen, oso eraikitzailea, eta gu horra joatea, zerbait gehitzen, mundua alderantzi izan zen, baina oso pozik.

6. Trauma eta dolua arintzeko edo hobetzeko balio dute?

Bai, hori da guk espero duguna. Doluei aurre egiteko garrantziaz jendea jabetzea, horretatik pasatu behar dela, oso bereziak direla, baina berdin-berdin egin behar direla. Eta ez du esan nahi zure ideologiari uko egin behar diozunik, ezta gutxiago ere. Guk hau egitearren ez du esan nahi ideologia konkretu batekoak garenik, berdin da guk zer pentsatzen dugun. Garrantzitsua biktima eta bere bizipena direlako, baina jendeak beti galdetzen du ze ideologiatik hasi garen honekin, baina beti humanitate batetik.

Bihotzetik pentsatzen duzunean beste gauza distorsionante horiek desagertzen dira eta pertsona bat ikusten duzu zure aurrean.

7. Zerrek balio du? Eta zerrek ez?

Elkarte baten baldin bazaude, abantaila batzuk dituzu, adibidez biktima elkarte baten, edo presoen senideen elkarte baten. Abantailak dituzu, talde babesa, baliabide batzuk, legalki... Zer gertatzen da? praktikan lobby moduan funtzionatzen dutela, lobby politiko eta ideologikoak. Orduan, samin hori erabiltzen da beste helburu politiko batzuk lortzeko, orduan pena ematen dudanez, inork ez dit ezer esango, ukiezina naiz, eta gainera nire alderdietako gauza batzuk lortzen ditzut. *Etixeraten* ere bai, nola nire senidea kartzelan dagoen, gauza bera, pena ematen dut eta horrela abantaila batzuk lortzen ditut. Orduan, ikusi zein urrun kokatzen den pena hau errukitik, hau zerikusirik ez duen beste gauza bat da. Sandrak argi eta garbi esaten zuen, bera egon zen, baina irten zen, Rober Manriquek gauza bera, Rosa Juquek gauza bera, ez zutela beraien burua horrelako talde batean ikusten, Rosak esaten zuen Ernest Juqueren alaba izateaz gain, badela beste hainbat gauza, ama, profesionala, eta berak ez du nahi rol horretan bakarrik gelditu. Elkarteetan baldin bazaude rol horretan gelditzen zara, edo nagusiki. Gure planteamendua da rol hori beti izango dutela, beti izango zara Ernest Juqueren alaba, baina nolabait beste rol berri batzuk pixkat gehiago nabarmentzea eta zure bizitza aberastea, eta hori da modu bat dolua

egiteko eta hortik irteteko. Rol horretan bakarrik gelditzen bazara, zuloan zaude, eta zuloan egotea dolua ez gainditzea da. Orduan, askok pentsatzen dugu elkarteen dinamikak ez dutela laguntzen, horrelako elkarteek behintzat (AVT, adibidez). Azkenean gauza gutxi laguntzen dute pertsonalki aurrera irteten, pertsonalki aurrera egiteko askatu behar zara, libreki ibili. Hori Sandra obran argi eta garbi esaten du, zuk zure prozesua egin behar duzu, eta gauza pertsonala da, dolu guztiak bezala.

Nik sarritan zalantzak izaten ditut, orokorrean saiatzen naiz jendea ez epaitzen ze bakoitzak bere historia dauka, baina niri benetan gustatuko litzaidake jakitea zer dagoen errealitatetik eta zer antzerkitik, benetan. Ez dakit benetan hain izorratuta daude, edo rol bat den. Nik pentsatu nahi dut gehienak ez daudela hain izorratuta, eta nolabait aurrera egiten ari direla.

Terrorismoko biktimen ingurua biktima bere rol horretan mantentzeko dago bideratua, zulotik irteten lagundu beharrean, eta beraien bizitza ahalik eta “normalen”, biktima titulu horrekin mantentzea komeni zaie, beraien interes pertsonaletarako. Eta horrela dolua erabat tapatuta geratzen da, beste plano batean.

Minbizia izan, suizidio bat izan, edo atentatu bat izan helburua normaltasunera itzultzea da. Sekula ez duzu ahaztuko, beti izango dituzu zurekin, baina gizaki moduan aurrerapen bat eman behar da. Ze azken finean dolua transformazio bat da, dolua ondo eginda beste pertsona hobeto baten bilakatzen zara, enpatia hori sentitzeko gaitasuna duzulako beste pertsona batzuekiko.

Enpatia hori pizteko ere alde bakoitzeko biktima bat aukeratu zen, hori azkenean oso pedagogikoa izan daitekeelako. Gaiaren zentratzeko aukera ematen dizu, ze alde batekoa bakarrik eginez gero, hasieratik ikusleak sesgatua den zerbait esaten du, eta ez da sakonduko, beste aldekoa baldin bada, “honek ez du ezertarako balio” pentsamenduarekin geratuko da. Era hau hasieratik desaktibatzen da, esateko: hemen daude Arrasateko emakume bat, eta Mondragónekoko beste bat, metaforikoki argi geratzeko.

Baliagarria dena prozesua modu indibidualean egitea da, horrek ez du esan nahi bakar-bakarrik egin behar denik, zure ahizpa, lagun on bat edo psikologo bat izan dezakezu alboan. Kontuan izan behar da, elkarte guztiek dutela psikologoak, baina biktimei egindako elkarrizketak irakurri ondoren, etsipen handia sentitzen dut, ze bai baina ez. Bai nahi dute lagundu, baina gero ezustean sermoi politiko bat botatzen dute. Eta berdina alderantziz, *Etixeraten* badaude psikologoak, baina ez zaie interesatzen benetan pertsona

aurrera ateratzea. Rol hori elikatu nahi dute. Dolu gehienak posible dira bakarrik gainditzea, psikologorik gabe, baina hauek gogorrenak dira, orduan beste bide bat hartu behar da, beste psikologo batekin paliatiboetako psikologoak edo minbiziarekin ohituta daudenak, horiek agian gehiago eman dezakete, urrutiagotik ematen den beste enfoke bat delako. Nolabait egiten dutena da erakartzea terrorismoaren mundu horretatik datorren pertsona beste mundu batera, eta horrela pertsona hori gizarteratzen duzu.

8. Biktimak erreparatuak sentitzen dira?

Hori asko esatea da. Nik esango nuke bai ikusten dela transformazio hori. Sandraren kasuan, gehiago, bera pertsona publikoa izanda, ezaguna, hasiera hartatik hona aldaketa eta erreparazio hori nabarmena izan dela uste dut. Berak testualki ez du esaten, baina bistan da detaile askotan.

Olatzen kasuan ezberdina da, baina bai esaten du gehiago kostatu zaiola, urte gehiago, gainera bera askoz txikiagoa zen hori gertatu zenean, ofizialki sekula ez dute tratatu biktima moduan. Batallón Vasco Español edo Guardia Zibilak izan ziren, frankismo garaia zen oraindik.

9. Justizia egin dela sentiarazten laguntzen du (programak)?

Olatzen kasuan argi eta garbi ez, ofizialki. Eta Sandraren kasuan, ezta ere, berak esaten du agian bere aitak kale baten izena merezi duela, esaten berako bizi ziren kalearena, baina nahiago du ez izatea bere aitak kale baten izena ze oraindik baten batek zikinduko zuen.

Orokorrean justizia puntu bateraino bai, baina falta da. Nire ustez bakearen prozesu sendo bat beharko litzateke, eta merezi dugu denok.

Nik ikusten dudana da ez dagoela interes handirik. Hau minoria baten interesa da, azkenean humanoki oso jende gutxiri interesatzen zaio.

Jende gehienak orrialdean pasatzen du, ezer ez gertatuko balitz bezala, ez die axola. Era honetan jardun dutenen zauriak gaizki sendatuta daude, zikinduta.

Arduragabekeria nabaria da, politikoki tamalgarria da.

10. Zer nolako aldaketa uste duzu suposatzen duzula/duela (programak) biktimentzat?

Aldeta hori bistan dagoela uste dut. Olatz eta Sandraren kasuan lehenengo ekitaldia izan zuten, jende pilo bat joan zen Arrasatera, eta eskoletan zelan ibili diren. Pertsona horiek aberatsak dira.

Aldaketa nabarmena da.

11. Eusko Jaurlaritzak nola baloratzen du lan hau?

Eusko Jaurlaritzak *Gogoraren* lana baloratuko du, baina gure obra konkretuki ez. Ez dira ez aurkezpenera, ez estreinaldira etorri, ez dute inolako interesik erakutsi.

Gu ez gara hain makroetara joaten, mikroetara baizik, hau da, udaletara. Era honetan helarazi nahi den mezua hobeto heltzen da, errazagoa da lan-taldeak sortzea.

Botereko erakundeetatik ez dugu babesik lortu, pasotismoa ikusi dugu. Arlo hau lantzen dugunok gutxi gara, eta hala ere ez dute interesik izan.

Erren geratzen zara, ze bai baina ez. Azkenean interesik ez da egon, hori argi dago, beldurra dago, ezjakintasuna, ez baduzu zerbait ezagutzen mesfidantza izaten duzu.

Instituzionalki erantzunik politena Arrasatekoa izan da. Ateak ireki, diruz lagundu eta kriston jarrera ona egon zen.

12. Nola uste duzu ikusten direla biktimak gizartearen aldetik?

Nik esango nuke beldurra dagoela hurbiltzeko, mesfidantza dago. Gizartearen aldetik beste sentimendu batzuk, beldurra eta axolagabekeria puntu hori, pereza kolektiboa. Jendeari kostatzen baldin bazaio doluan dagoen pertsona batengana hurbiltzea, imajinatu horrelako batengana. Erruki eta enpatia falta dago. Ez dut uste gaitasunik ez dagoela, alderantziz, pentsatzen dut gizaki guztiok dugula gaitasun hori, baina kontua da ia nahi dugun benetan potentziatu edo ez, hori garatu edo ez, eta pertsona gehienek ez dute garatzen, eta hor gelditzen da.

Horrek ez du esan nahi gero bizilagun moduan zintzoa ez denik, ez da inkompatiblea, baina nik esango nuke pertsona horiek normalean rol bat dutela, bizilagun onak izaten,

akonpañamendu horiek egiten, jendeari laguntzen, jende hori eta boluntariotza egiten dutenak, kooperazio internazionala egiten, jende horrek askoz errazagoa du mundu honetara hurbiltzeko.

Guk izan dugun publikoaren artean horrelako asko egon dira.

13. Nola uste duzu ikusten dutela biktimek beraien burua?

Beraien burua biktimaz gain, ama, alaba, profesional modua ikusi nahi dute. eta esango nuke dou hauke benetan ondo landu dituztela. Biktima papera ezagunena da guretzat, baina beste bat da gainontzeko paperen artean. Pertsona aberatsak dira.

Gero beste mundua dago, telebistan agertzen dena, rol horretan daude eta ez dakit ze puntutaraino den errealitatea edo antzerkia, baina tamalez batzuk benetan zuloan egongo dira. Oso kolektibo heterogeneoa da, alde bietan, baina zenbait gauza amankomunean daude emozionalki bi munduetan. Askok edo gehienek ez dute onartu nahi, bestea “deabrua” delako, baina alde bietatik gauza bera pentsatzen dute, eta ez bada enpatia sortzen da ez direlako elkar ezagutzen. Amankomuneko espazioak landuko balira, beste gauza bat izango litzateke.

Ohituta egongo balira Espainia aldean bakarrik katalanez entzuten, ez zuten gorroto hori garatuko.

14. Nola uste duzu ikusten zaituztela biktimek?

Jakitea gustatuko litzaidake, ez dugulako inoiz horri buruz hitz egin. Badakit eskertuta daudela, eta zeharka helarazi digutela esker ona. Implizituki ez dakit, pentsatzen dut aportatu diegula eta eskertzen dutela beste pertsona batuk horrelako enpatia eta ariketak egitea, eta agian ausardia puntu hori izan dugula.

Ni ohituta nago horrelako gauzeekin, medikua izanda oso sentsibilizatuta nago orokorrean minarekin, baina beti pentsatu dut benetan zerbait aportatu diegun jakitea.

15. Nola uste duzu ikusten zaituela gizarteak?

Orokorrean ikusi duguna izan da publikoaren artean hurbildu diren pertsona gehienak ezker abertzalekoak izan dira, eta horregatik bakarrik oso pozgarria izan da. Azkenean, jende asko gauza batzuetaz konturatzea itzela da, ez gara hainbeste iritsi beste mundura.

Estetikoki euskarazko produktu bat denez, errazagoa da mundu abertzaletik etortzea.

ESTATUAREN ALDETIK ETORRITAKO INDARKERIA JASAN DUEN BIKTIMA: OLATZ ETXABE

1. Zure burua aurkeztu

Olatz Etxabe naiz, 55 urte ditut eta nire aita orain dela 45 urte hil zuten, urrian egingo dira 45 urte.

2. Zer gertatu zen?

Nire aita politikatik kanpo zegoen, baina garai hartan ETAn sartuta zeuden bi anai zituen. Guk jatetxe bat geneukan, leku apartatu batean Elorrio eta Arrasate bitartean.

Aita hil aurretik pare bat atentatu izan genituen, bonbekin, eta bera hil zuten egunean Oñatin Arantzazura bidean ETAk hiru Guardia Zibil hil zituen arratsaldean, eta gauean bengantza moduan gure tabernara etorri ziren eta aita hil zuten.

Nik orduan hamar urte nituen, eta egun horretan ez dakit zergatik ezin nuen lorik egin, ohean negoen eta zarata batzuk entzun nituen. Jaitsi nintzen eta aita lurrean ikusi nuen, hilda, 18 tiro zituen eta nire ama bere onetik aterata geratu zen egoera gogor honen ondorioz.

Beste anai-arreba batzuk ditut, ni naiz zaharrena, gero anaia zortzi urtekoa eta ahizpa lau urtekoa, beraiek ez ziren ezertaz ohartu, lo zeuden.

Horrekin gure bizitza guztiz aldatu zen, gu tabernan bizi ginen, libre mendian. Orduan gero gure aitona-amonon etxera joan ginen bizitzera.

Nire kasuan hasieran ez nuen lorik egiten, gauetan altxatzen nintzen amets gaiztoekin eta oso gaizki. Gero iritsi zen momentu bat non ametsak amaitu ziren, baina ordutik oso lo

gutxi egiten dut, ez dut lorik egiten, da gorputzaren defentsa antzeko bat, ez baduzu lorik egiten, ez dituzu amets gaiztoak izaten.

Urte asko pasa dira eta ikasi dugu horrekin bizitzen, gero zortea izan dut, ze nire amama oso emakume sendoa izan da eta nire amarekin batera nahiko bizitza ona izan dugu. Maitasunean eta babestuta bizi izan gara.

Nire aita herrian oso estimatua zen, izaera laisaikoa, jatorra. Alde guztietako lagunak zituen, eta beti sentitu dugu babesa. Urteak igaro ondoren gutaz oroitzen dira. Beti izan dugu herriaren babesa.

Nik ere nire kasuan ikastolako txikitako lagunak mantentzen ditut, ostiraleko elkartzen gara. Nik babesa beti sentitu dut. Instituzioetatik ez.

3. Nola sentitzen zara?

Heldutasun hartzen bat hartzen duzu denerako, gauzak analizatzen dituzu, eta urte asko pasa dira, 45 urte eta horrekin bizitzen ikasten duzu.

Beti faltan bota izan dut aita nire bizitzako egoera askotan, momentu garrantzitsuetan ez da hor egon, nire alaba jaio zenean, adibidez.

4. Zer da gehien arduratzen zaituena?

Ez dakit dolua egin dudan. Garai hartan ez geneukan laguntza profesionala.

Ni nire anai-arreben artean nagusiena nintzen, nire ama hasieran emozionalki oso gaizki egon zen, jota. Orduan, nik gogorra izan behar nintzela esaten nion nire buruari, zure sentimenduak gorde. Ni negar asko egitekoa nintzen, baina iritsi zen momentu bat non nik ezin nuen negar egin nire anai-arrebek ezin nindutelako horrela ikusi. Eta hori hainbeste barneratu dut, gaur egun ezinezkoa egiten zaidala negar egitea, kosta egiten zait. Bizitzan negar egiteko momentuak tokatu zaizkit eta ezin izan dut negar egin. Negar ez egitea babes modura jarri nuen, besteek ni sufritzen ez ikusteko, orduan hori mantendu izan dut orain arte.

Loa eta negar ez egitea izan dira ondorioak.

5. Zein da instituzioetatik jaso duzun babesa?

Urte pila baten ezer ez. Udal mailan zerbait, baina ezer nabarmentzekoa. Duela hamar urte Eusko Jaurlaritzak gurekin kontaktuan jarri zen, esanez gobernuan biktimen sail bat zegoela. Gure historia jaso zuten.

Orain Euko Jaurlaritzak biktimatzat hartzen gaitu, baina ez gaude errekonozituta. Azkenean gure aita 18 tiroarekin hil zuten, eta inon ez dago hori jaso. Eusko Jaurlaritzak badu jaso bere artxiobotan, baina ez gaude biktima bezala errekonozituta, eta hori guretzat zerbait mingarria da.

6. Momenturen baten jakin zen ze Guardia Zibil izan zen zuen aita hil zuena?

Ez, ez zen ikerketarik egon. Badaude artxibo batzuk Ferrolen, “Secretos del Estado” delakoa, han gordetzen dira horrelako gauzak. Zerbait gertatu eta 50 urtetan gorde daitezke. Zerbait egin zen bere garaian, baina ez dugu lortu.

Gure aitaren espedientea eskatu genuen jakiteko zer jaso zen bere garaian. Aita hil eta handik 15 egunera nire amari autopsiaren faktura pasa zioten, berak ordaindu zuen, baina autopsia bera ez zuen jaso. Guk daukagun dokumentu bakarrean jartzen du gure aita *shock* batengatik hil zela, “Causa de la muerte: shock”.

Guk bagenekigun gure aita ez zela shock batez hil, errekonozimendua behar dugu zauri hori ixteko. Oraindik hor dago zauria.

